Erreka haizea

SONIA GONZÁLEZ

botere, isilpen eta herioaz

SONIA GONZÁLEZ

Erreka haizea

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.eus/ebook

© 2018 Sonia González
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2018ko maiatza
Edizio hau: 2018ko maiatza

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

[...]

Alaitasunez etorri arren
berbostarren hitzordura,
nola ostendu zure gomutak
sortzen digun hunkidura?
Kostatu arren, bazter ditzagun
saminak eta tristura,
eta ospatu dezagun pozez
batzen gaituen lotura...
Marianek inoiz ez baikintuzke
negarrez ikusi gura.

Fredi eta Xabi Paia,
2018ko Kanpomartxo

Zure bizitzaren parte txikia izan garenontzat bete ezinezko hutsunea. Pertsona hobeago bihurtu gaituzu baina, horixe dugu ondarerik kuttunena. Gure herriko izen handiak letra xehez idatzi ohi dira, bihotz, kemen eta irribarre berbak idazten diren eran.

MARIAN DE LA FUENTE,
gure Marianjaia.
Maite zaitugu, betiko.

Lichter und Schatten.
Argiak eta itzalak

Zenbait pentsalariren aburuz,
liburuak eta apunteak ezberdinak dira zeharo.
Batek, argitzen duen
ezagupenaren izpiak lapurtzen eta
berehala eroaten badaki,
argi horiek liburuan biltzeko.
Besteak, itzalak baino ez ditu ematen,
aurreko egunean
ariman berrosatutako zuribeltzezko irudiak.

NIETZSCHE, *Zientzia alaia*

ERREKA HAIZEA

Kirri-karra logelako leihoak. Kirri-karra egongelakoak. Erreka haizea dabil. Haize bizia. Andoni lo dago. Zurrunga leunak heltzen zaizkit. Lehenago altxatu naiz. Nik ez dut ganoraz deskantsatzen eta ez diot ganoraz deskantsatzen uzten.

Hego haizeari deitzen zaio erreka haizea hemen, erreka itsasoratzen den norabiderantz heltzen da eta.

Mapetako puntu kardinal abstraktuetatik harago, herrian kokatzen gaitu termino horrek. Herria ere munduan kokatzen du: beroa errekatik dator, erreka sortzen den toki hura, beraz, behar da hegoa izan.

Kartografiak, bere lerro, eskala, neurri eta koordenatu guztiekin ere, engainatu egin ohi du mapak marrazten ditugunean. Azkuek berak azaltzen zuen kostaldean “Ipar” ez zela “Norte”, “Este” baino. Eta hala da, gure herria Ipar eta Hego banandu arren, mendebalde eta ekialde banandurik gaude. Baiona ez dago Bilbo baino gorago, biak 43 gradutan daude Iparrarekiko, minutu gutxiren diferentziaz.

Uste nahiko zabala da itsasoak ipar zuzena markatzen digula. Ez da horrela, baina. Hondartzatik, uraren

mugaren paraleloan, edo talatik ortzemugara begira, iparrerantz egon bagaude, bai, baina ekialderantz ere bai. Mendebaldean edo “Hego” Euskal Herrian gaudela, behintzat.

Erreka haizea ibili da negu osoan. Ez da gauza arrunta. Udagoien, negu, baita udaberri sasoietan ere bestelako haize batzuk ibiltzen dira sarriago.

Kalera irten, norbait topatu eta eguraldiaz berbetan hasten garenean, euri ezean, darabilen haize finaz aritzen gara maiz, eskuez besoak igurtzi bitartean. Hezurretaraino sartzen da, edozer jantzi dugula ere. Haize fina hain da fina, ezen gure arroparen zirrikitu ñimiñoenetik ere sartzen baita.

Beste batzuetan, haize zakarra ibiltzen da. Zenbaitetan itsasotik: ipar haizea edo ipar *baltza* da hori, ipar-ekialdetik datorren haize hotz-hotza. Hemen haize *baltza* daukagun moduan, Nafarroan haize gorria daukate, komunikabideetako esatariak “ziertzo” esaten tematu arren. Neguan ipar-mendebaldetik jotzen duen haize latzak guardasolak alferrikako gauza bihurtzen ditu. Hemen menditik dator haize hori, ez itsasotik.

Galerna edo galarrena haize benetan zakarra da, enbata arriskutsua, baporeak eta marinelak hondora-

tzen dituena. Kostalde bazter honetan bapore deitzen zaie oraindino geratzen diren arrantza ontzi apurrei. Galarrena tristeki ospetsuak badira historian zehar: 1912, 1892, 1881 edota 1878ko Zapatu Santukoa.

Galerna guztiak ez dira hain zorigaiztokoak. Batzuetan, udan itsasoari parpaila zuriak altxatzen hasten zaizkio, handik gutxira hondarrean botata dauden uhalak urrunera eroango dituen seinale.

Erreka haizeari zoro haizea ere esaten zaio. Hego haizea, ero haizea dio atsotitzak. Baliteke zoramena hotzak apaldu eta beroak azkartzea.

Edozelan ere, erreka haizea dabil. Haize beroa, neguan egonda ere.

HERIOTZAZ

Joan, alde, mundu honi ihes egin. Norberaren heriotzan pentsatzea durduzagarria da berez. Hala ere, gure Miren Agur samur eta zuzenak bere liburuan esan bezala, ez da gauza bera heriotzan pentsatzea eta hil nahi izatea.

Pentsamendu horretan hurrengo pausoa egiten denean, zerbait abstraktu izatetik, konkretatzera pasatzen denean, heriotza posiblea da, benetan dago eskura. Alde egiteko mekanismo mentala izateari utzi eta egiazko aukera bihurtu da.

Koldarkeria deitu izan zaio askotan. Ausardia, bizitzeko behar dela. Joatea bide erraza hartzea baino ez dela. Baina, zer da funtsean? Aukeraketa baino ez. Segi ala eten. Instintuak segitzera eroaten gaitu, eteteak biziraupen instintua iraultzen du. Eta iraulketa guztiak dira ordenarako beldurgarriak.

Heriotza aukera benetan agertzen denean, ez da harrezkero gerokoan pentsatzen. Handik aurrera gertatu behar den guztia irudipenetik desagertu da. Gerora lotzen gaituen sokatik askapen sentimendu bete eta borobila. Berez, ez da ezer egongo. Lasaitasun ho-

rrexek hurbiltzen du heriotzara. Ez kezkek, ez buruhausteek. Hustasun premia eta ez konponbide nahia. Hutsa, ezereza, desagerpena.

Emakume idazle askok egin dute euren buruaz beste. Malenkonia, bakardadea edo isolamendua arakatu izan dira hauen bizitzetan. Suizidiora edota zoramenera zerk eroan dituen bilatzeari ekin zaio. Psikologikoki desorekatuak izan dira. Askotan. Oro har. Horren guztiaren atzean lausoturik gelditu dira maiz. Andreak eta euren obrak.

Gizonezko idazle askok egin dute euren buruaz beste. Alkoholikoak, drogazaleak, gutxitan psikologikoki desorekatuak. Adituek *dixerunt*.

Heriotzatik hurbil, hain hurbil... Betazaletatik barrurantz zeharkatu eta behatzetaraino igarri ahal izan dut. Habia egin dit barrenetan. Deika eta deika eta deika. Egunak eta egunak eta egunak... asteak, hilak, urtebete. Eta ni nagi. Kasu egin nahian eta, hala ere, nagi. Alfer.

Argi izpi batek gela gurutzatu du. Heldu egin natzaio. Momentu bat izan da. Baina ez bere seme-alabak jaten dituen momentu kronologikoa. Denbora eternoari dagokion momentu eternoa baino. Izpi horri

tiraka, eta erreka haizea dabilenez, heriotzatik aldentzeko, heriotzara hurbiltzea deliberatu dut.

VIRGINIA WOOLF (I)

Dalloway andrea, etxeko txikikerietan denbora ematen eta zaindu beharreko guztia zaintzen, gonbidatuentzat azken detailerainoko guztia kontrolatu nahian, horrela bere bizitza behingoz ordenatuko duelakoan, zerk desordenatu duen jakin ez arren. Dalloway andrearen bakardadea handia da, hain handia ezen bere barne zuloak malkoz betetzen baitizkidate sentsazio partekatuok.

Septimus Warren Smith, biziak zentzu oro galdu duela dakien baina azaldu ezin duen pertsonaren ezintasuna. Ezintasuna, ezer gertatzen ez zaiola tematzen den medikuaren eta lehengo Septimus berriro izateko alferrikako ahaleginetan dabilen emaztearen aurrean. Arroztasuna eta arroztasunari gailentzeko ezina.

Itsasora begiratzen dut batzuetan. Leihotik edo zubitik. Orduan *Dalloway andrea* nobelako pertsonaia horiek etortzen zaizkit gogora. Akaso, itsasora begiratzen dudanean Virginia Woolf gogoratzen dudalako.

Uretara sartu eta uretan desagertu. Woolfen etxe inguruko errekarekin konparaturik, itsasoak erraztasun handiagoak ematen dituela begitantzen zait, edo-

norentzat, baina batez ere igeri egiten ez dakidan honentzat. Seguruenik ez ninduke hartuko errekaren esku abegikor, leun eta pausatuak bezala; bortxaz eroango ninduke barrurantz, goiko olatu apurtu eta beheko korronte ezkutu artean. Baina onura ere izango luke: poltsikoetan aparteko pisurik sartzeko premiarik ez.

Kontatzen dutenez, Virginia Woolfek horixe egin behar izan zuen. Badirudi behin ahalegindu eta ez zuela lortu hondoratzea. Arropa bustirik itzuli omen zen etxera egun hartan. Saiatu zen hurrengo aldian, bai ala bai itoko zela erabaki zuenean, arropetan harriak sartu zituen. Eta lortu egin zuen.

Virginia Woolfek ohar bi utzi zituen: bata ahizparentzat, bestea senarrarentzat.

BAKARDADEA

Eskumatara begiratu dut. Han dago Andoni, egunkaria irakurtzen. “Bakarrik nago” pentsatu dut. Eta egia da. Bere alboan jesarrita, elkarrekin bazkaldu ostean. “Goizean izarak tolestu ditugu, elkar ikutu dugu, baina bakarrik nengoen. Kanpoko bakardadea samurtzea ez da ezer, barruko infernua apaltzeko laguntzarik ezean, barruko infernura, ura barik, ikatz beltza botaz gero”. Besoa sofa gainera jausten utzi dut, eskua luzatu eta atzamarrez ikutu diot ukondoa. Erantzunik ez. Erantzun fisikorik ez. Erantzun ñimiñorik ere ez. “Hemen gaude, elkarren alboan, baina bakarrik nago”. Zigarro bat atera dut paketetik.

Neure buruarekin egotea ez da sekula honen bakartia izan. Ez nau inguruak abandonatu, neure buruak laga nau, soilik, bakarrik, ber. Neure baitan deitu eta oihartzuna baino ez dut jaso, “nun zaoz? aoz? aoz? nao? nao? ao?”.

JABETZA

Maitatzen dugunean zerbait nahi dugu geuretzat, zerbait geureganatu nahi dugu. Ez dago maitasun altruistarik, benetan altruista den ekintzarik ez dagoen bezalaxe.

Zerbait “ona” egiten dugunean, eskerrak edo jendearen miresmena edo, besterik ezean, besteek gutaz daukaten irudia “ona” izan dadila bilatzen dugu. Ekintza guztiek bilatzen dute ordainen bat, zuzen edo zeharka. Baita balizko ekintza altruistek ere.

Maitasunarekin antzera gertatzen da. Maitasunaren atzean beti dago jabetza nahia, baina ez edozelako jabetza. Maitasunak ez du bilatzen beste pertsonaren jabe izatea, bestea gure pertenentzia edo ondasun bihurtzea, geure egitea. Hori baino geurekoiagoa da.

Batzuek bidaiak maite dituzte; bidaietan leku, gauza, jende berria ikusi edo ezagutzetik lortzen duten sentsazioaren jabe izan nahi dute. Beste batzuek musika maite dute; noten joan-etorriek ariman sorrarazten dien sentipenaren jabe izan nahi dute. Zenbaitek jakintza maite dute; adimena lantzeak eta

izakien zein munduaren ikuskera zabaltzeak ematen dien ulermen gero eta handiagoaren jabe izan nahi dute.

Zerbait maite dugunean, zerbait horrek gugan eragiten duen aldaketa maite dugu. Horrexegatik da ekintza geurekoia maitasuna. Emankorra ere bai. Besteak gugan eragiten duen aldaketak pertsona berri bihurtzen gaitu; maite dugunak, horrela, gu berri horretatik har dezake, bera ere norbait ezberdin bihurtzeko. Denboran aurrera, izaerak moldatuz eta birmoldatuz joaten dira, bata besteaz jabetuz eta batak bestea aldatuz.

Baliteke gurpila gelditzea, horrek berritasun-erregaiaren premia geldiarazten ez badu ere. Orduan, zerbaiten amaiera gertu dago, beste zerbaiten hasiera etorriko den batere ziurtasun barik.

GALERA

Maite dudan gizona galdu nuen. Nahita. Baina zerbait nahita galtzeak ez du galera samurtzen.

Arrazoiak, batzuk; sakonak, milaka. Baina zerbait galtzeko zergatiak izateak ez du galera samurtzen.

Galera izan zen. Gorputz atal bat, femurra, eskumuturra, belarria, saihets bat borondatez eta indarrez ateratzea lakoa izan zen.

Areago: esku batek, norberaren eskuak, samatik sartuta, tutu gordin eta gorriei gogor heldurik gorantz tira egingo bailuen izan zen; gorantz tira egin, harik eta barruki guztiak ahotik atera arte. Horrelako zerbait izan zen.

Mingarria oso.

Askoz mingarriagoa geroko hustasuna.

ERRUA

Minak materiaren legearen bigarren zatiari baino ez dio jarraitzen. Mina, materia bezala, ez da suntsitzen. Eraldatu ahal da, denboraz zertxobait apaldu edo denboraz enkistatu eta maskur bihurtu. Hala ere, materia ez bezala, mina bai da sortzen.

Andoniren mina ez dut ezagutzen, baina badakit hor dagoela. Maite nau, baina lehen bezala maite al nau? Lehen orain baino gehiago maite al ninduen? Maite al ninduen? Maite al nau? Nik ezin dut neure burua maitatu min horren sortzailea neu izan nintzela pentsatzen dudanean. Min horren sortzailea neu izateak neure mina biderkatu eta enegarren potentziara altxatzen du. Oinaze sakona da, beltza.

Errua, kontzeptu judeokristaua: errua eta bekatuengatik ordaindu beharra; hobe izaten lagundu baino, nork bere burua gorrotatzera eroaten duen sentipena da errua.

Errua errealitate sozio-historikoa da. Erlijioaren ideologia mendez mende joan da blaitzen Mendebaleko ordena soziala eta psikismo konpartitua. Mendeba-

la erru eta damuaren jendartea da; Ekialdea, desohore eta ahalkearena.

Errua beste nozio batzuekin dago loturik, hala nola zigorrarekin edo bekatuarekin. Hainbat kontzeptuk zeharkatzen dute hirukotea: damua, aitormena, penitentzia... Erlijio eremuko hitzak izanda ere, baliokide laikoez ordezka daitezke erraz asko. Adibidez, “bekatu” barik, “txarto egindakoa”. Batera zein bestera, gure barruetan dago suaz markaturik.

Mendeetako kultura konpartitu hau, sinestunek bezala, sorbalda gainean daramagu baita ateook ere. Benetako sinesmen falta galarazita daukagu, jainkoaren existentziarik ezera mugatzen den uste pertsonala baino ez zaigu geratzen.

Erru sentipenari gaztigu nahiaz erantzuten zaio maiz. Errua eta errua sortu duen bekatua zelan edo halan garbitzearren. Badago jendea gaztigu horren beldur izaten dena edo, hobeto esanda, gaztigu hori ezar lezakeen autoritate figuraren beldur. Sarritan, ageriko beldur horiek baino atzerago joz gero, nork bere buruari dion beldurra ezkutatzen ei da, maitasunari beldurra edo maitatzeko ezintasunari beldurra, esaterako.

Errua eramanezina da. Atlasen indarra izanik ere, zanpatu eta txikitu egiten gaitu, egunetik egunera. Errua burdina goria da erraietan, ez haizeaz, ez uraz, ez denboraz hozten dena. Erre egiten du. Etengabean.

Andoniri egindako mina nire errua da. Andonik niri sorrarazitakoak ez dakit niri besteko erredura eragiten ote dion.

VIRGINIA WOOLF (II)

Virginia Woolfek harriak sartu ei zituen poltsikoetan errekara sartu eta bertan itota hil baino lehenago. Behearen gainetik jaso zituenean, edozein harri aukeratu zuen? Pisuagatik besterik ez zituen bereizi bere buruaz beste egiteko harri onak eta txarrak? Ala beste zerbait izan zuen kontuan? Kolorea? Forma? Etxetik irteterakoan, berokien artean ere poltsiko handidunena aukeratzen eman ote zuen denbora edo aldez aurretik bazekien egun hartan goitik behera zer jantziko zuen?

Virginia Woolfek agur gutuna utzi zion senarrari. Gutun hartan ez zion egoera ez ulertzea edo kudeatzen ez jakitea aurpegiratu; aitzitik, barkamena eskatu zion pasarazi zion sufrimenduagatik. Gehien maite duzunari sufrimendua eragiteak norberaren sufrimenduari zama erantsia dakarkio. Hurbil behar duzun hori gero eta urrunagotzen da. Erruduna nor den deliberatzea berokia harriz betetzea lakoa da.

Virginiaren errukia sentitzen dut batzuetan Andoniri begiratzen diodanean. Amorru eta gorroto biziak erruki sentimendu apalari gailentzen zaizkion arte.

Mendeku oharra utziko nuke. Hala uste nuen, behintzat, heriotzan pentsatzen nuenean.

Benetan hil nahi izan dudanean, ordea, balizko oharrak ez zuen hainbeste inporta, gerokoak inportantzia osoa galdua baitzuen. Oraindik ere ez dakit zenbateko garrantzia merezi duen etorkizunak, orainak askorik ez daukan heinean.

MENDEKU OHARRAK

Ezinbestean gertatu behar dena denboran aurreratzea besterik ez da. Bizitzari uko egin, besteek, beste guztiek, euren bizitzetan aurrera egiten jarraitzen duten bitartean. Ezinbestean gertatu behar da. Lehenago edo geroago. Aditza orainaldian edo geroaldian jokatzea da ezberdintasuna. Ez bakarra, halere. Bizitzak bere kabuz eta nahi duenean alde egingo edo nork bere kabuz eta erabakitzen duenean biziari uko egingo. Esaldiaren subjektu edo eragile kontua ere bada.

Edozelan, momentua eta akzioaren pasibotasun edo aktibotasuna gorabehera, beste guztiak berdin egingo luke bere bidea.

Ingurukoak agian penatuko lirateke. Batzuk besteak baino gehiago. Gehienek eurekin zerikusirik ez daukaten bestelako zergati batzuk bilatuko lituzkete. Seguruenik horrexegatik uzten dituzte oharrak euren buruaz beste egiten dutenek: ekintza horren arrazoia behar den bezala zehazteko. Suizidaren oharra, beraz, bizian mendekurik hartu ezin izan duen horren heriotzaren mendekua da. Baina, mendekua mendeku al da

ez bada bizitzen, ez bada besteei egiten zaien minaz gure alderik ilunena asetzen?

Andoni irudikatzen dut. Zenbat denbora iraungo luke bere penak? Zenbateko min egingo lioke errua berak ere badaukala norberaren hizkietan irakurtzeak?

AMETSA

Herri ezezagun batean nago. Norabait joan behar naiz. Ez dakit nora, baina premia larria nabaritu dut. Tranbiaren geltokian nago, itxaroten. Ez nago bakarrik. Beste batzuk ere hor daude, eurak ere tranbia itxaroten. Azkenik heldu da. Tranbia zaharra da. Igo egin gara. Ordubetean behin baino ez da pasatzen joaneran; ordubetean behin baino ez da itzultzen etorreran.

Mugitzen hasi gara. Beteta dago. Mugimendu bortitzek albo batera eta bestera sakatzen gaituzte. Lan eskerga zutunik eustea. Zubi bat pasatu dugu, zubi zaharra, egurrezkoa. Kostata eutsi diogu tranbiatik jausi barik. Izerdi hatsa dabil. Gaueko koloreak dauzka egunak. Hizkuntza ezezagunez egiten du berba nire inguruko jendeak. Bidaia luzea izan da, baina, azkenik lortu dugu helmugara heltzea.

Tranbiatik jaitsi orduko, jende aldra hurbildu zaigu kanpotik. Erasoan hasi zaizkigu. Ez gaituzte han nahi. Makilak, harriak, ukabilak erabiltzen dituzte. Korrika irten naiz. Bakarrik nago eta ordubetera arte ez dago beste tranbiarik. Oinez hasi naiz bidea egiten. Oinez

pasatu beharko dut zubi zaharra. Arrapaladan noa. Nire atzetik datoz, makilekin, harriekin, labanekin. Kale ezezagunetatik noa, noraezean, arineketan. Lantzean behin atzera begiratzen dut, gutxitan, atzera begiratze hutsak ikaratzen nau eta. Aurrera, noraezean.

Beste tranbia bat hartu ahal izan dut, pasoan; egin duen geldiune bat aprobetxatu eta gora igo naiz. Ez daramat tiketik. Berdin da, ez da inor eskatzera etorriko. Geltoki batean jaitsi naiz. Aurpegi ezagunak ikusten hasi naiz hemen. Baina ez naiz salbu sentitzen. Aurpegi ezagun horiek ni ez ikusteko ahaleginak egin ditut, ezkutatzen saiatzen aritu naiz.

Andoni ikusi dut, urrunean. Berarengana hurbildu naiz. Berak ere ikusi nau. Badakit ikusi egin nauena, baina aurpegia beste aldera biratu du. Deitu egin diot. Ez dit erantzun. Hurrago hurbildu naiz. Ia-ia ikutu ahal dut, baina berak ez du nireganako imintziorik ere egin. Ez dago niretzako tokirik. Nire tokia beste norbaitek bete du oldarkor. Ez dago tranbia gehiagorik. Ez dago nora joan.

Ez dago ezer, gasolina poto bat baizik. Tabako paketea atera dut. Barruan txiskeroa.

Izerdi plotan altxatu naiz.

LABARTZA HERRIA

Labartza ez da biztanle guztiek elkar ondo ezagutzeko bezain txikia, ezta betiko familiek betidanik elkar ez ezagutzeko bezain handia ere. Labartza herriko biztanleak denbora luzez egon daitezke labartzarren baten berri ematen elkarri, hizketakidea, haritik tiraka, zeinen inguruan ari diren berbetan azkenik kargutu arte: “Ez dakit noren alaba, senarraren amak denda bat ez dakit non zeukana, badakizu, familia beheko kalean bizi zena eta aitaren anaia bi Ameriketara joan zirenak... bai, jakin behar duzu, gaztetan gerora koinatua izango zenaren tabernatik askotan ibiltzen zena...”. Harik eta “bai, bai, bai, nire ahizpa nagusia baino pare bat urte gazteagoa den andre hori, zelan ez dut jakingo ba!”. Labartzako biztanleek, usu baino gehiagotan, ez dute gogoratzen zeren kontura zetorren pertsona hori aipatzea.

Udatik udagoienera, gauez euria egiten duenean, kale kantoi guztietaraino zabaltzen den belar usainaz esnatzen da Labartza. Oraindik, ohitura den legez, txikoriaz hartzen diren goizeko kafesneetako katiluetara ere sartzen den freskotasun berdea da, kresalaren ga-

ziaz nahasirik. Labartza herrian ez dago inoiz izarrak ikustea galarazten duen besteko argirik. Duela urte gutxira arte negu orotan argia eteten zen, bizpahiru egunez. Eta orduan inoiz baino ederrago ikusi ahal ziren zeru oskarbietan konstelazio guztiak. Eta orduan inoiz baino hotzagoak izaten ziren itsaso eta erreka alboko gau hezeak, baina inoiz baino ederragoak, manta lodi azpian sofan jesarrita eta kandelen aurrean liburuak ozen irakurtzen, antzina bezala.

Labartza herriko umeek Hirian ikasi behar dute zer den semaforo bat. Gizon gorria geldi dagoenean, geldi itxaron behar dutela; gizon berdea agertzen denean, orduan pasa daitezkeela aurreko lauzara. Labartzako umeei bereziki gustatzen zaie ikustea mugitzen diren gizon berde horiek bat-batean korrika hasten direla eta, orduan, gurasoek, eskutik helduta, arrapaladan gurutzarazten dietela zebrabidea.

Labartzan ez dago semafororik. Ezta lanik ere. Horregatik, goizean irteten den auto andanak biztanlez husten du herria iluntzera arte.

OREKA ETA DESOREKA

Bizi orekatuenak dauzkatela uste duten horiek zoro deitu izan digute noizbait. Ez da erraza muturretik muturrera oreka joko arriskutsuetan ibiltzea. Ahigarria? Oro har, baina grinatsua ere bai. Onuragarria? Segun eta zertarako, pasioa bezala. Lasaigarria? Sekula ere ez.

Zororik zoroena lasaitzearekin konformatzen da, fibrilatzen ari den bihotzaren lerro zuzenean etzanda.

KEINUAK

Burua sabel gainean pausatu zidan, eskuak alboetan, saihetsen kontra, arnasketaren erritmoa jarraitu nahiko bailuen. Alkohol lurrun artean egin genuen maitasuna elkar ezagutu genuen lehenbiziko gau hartan.

Andoni goizean keinu maitekor horretan pausatzeak adierazi zidan egin genuena maitasuna izan zela. Maitasuna edo maitasun hastapena.

Momentu hartatik jakin nuen Andoni niretzako zela.

Nahiz eta ni Andonirentzako nintzen ala ez oraindik ez jakin.

Nahiko nuke esan goiz konturatu nintzela horretaz. Baina nik ez dut gezurrik esaten.

SENTIMENDUEZ

Dendua lortu behar dela, ideien mundua apur bat alboratu eta sentimenduei egin behar diedala toki eta kasu. Horrela dio adituak. Baina sentimenduak askatzen direnean ez nago oraindik konbentziturik onerako denik.

Sentimenduei beren menpean hartzen utziz gero, menpeko bihurtzen gara berez, definizioz? Eta zer egin maitasunaren aurrean? Norbaiten menpeko bihurtu? Fereka eta musu eske itxoiten duen animalia higuingarri bihurtuko ote gara? Atzoskol eta letaginak prest hori baino lehenago.

Zer ote den maitatzea. Zer den, zergatik den eta zertarako den. Nork bere buruari galdetzen dio ea adimenaz zentzunik topa ahal dion. Metodo induktiboaz, hipotetiko-deduktiboaz, baita, eta zelan ez, metodo dialektikoaz ere aztertzen ahalegindu. Eta ez.

Tesiak eta antitesiak. Baina lortu beharreko, gomendatutako, sintesia inondik ere ez.

Teoria atzean ezkuta gaitezke, baina iluntasunean praktika dago aiduru, zelatan, erasotzeko momentu

egokienaren zain, teoria alferrikako ezkutalekua izan dela aurpegiratzeko.

Eta zer egin sentitzen dena esan nahi eta ezin denean? Zer egin denboran gordetakoek, on eta txarrek, sugar purpura, ezpal zorrotz, itzal printza bihurturik, airea bat-batean pitzatzen dutenean, kontrol barik, ordena barik, barnetik ezpainetara, ezpainetatik kanpora?

Sentimenduei egin behar diedala toki eta kasu. Dena ezin dela teorizatu, aztertu eta hausnartu. Sendabidearen partea ei da hori. Baina sendabidearen parte horretan norberaren aurrekoak gaixotasunaren isla besterik ikusten ez badu?

Oraindik ez nago konbentzituta onerako denik.

HEROISMO ETA PASIBITATEA

Hazia deitzen zaio espermari, haziak direlako, lurrean ereinda, landareak sortzen dituztenak. Hala, haziari, espermari, bizia sortzeko gaitasuna egotzi izan zaio historian zehar. Menstruazio odolari, ordea, lurraren ongarri antzeko funtzioa aitortzen zitzaion antzinako Grezian.

Hortaz, emakumeok jasotzeko prest. Eta beti prest. Gizonezkoen leinuari jarraipena eman ahal izateko.

Ondo gogoratzen dut zelan azaldu ziguten klasean fekundazioa. Obulua eta espermatozoidea. Obulua bertan, zain, geldi, aiduru. Eta espermatozoideak lehenbizikoa eta, hortaz, arinena eta indartsuena zein izango den frogatzeko gogoz. Barruan hazi dizkigutenen artean txapeldunak obulu barrura sartzea lortuko du azkenik.

Lasterketa heroikoan edozein mutilek ikus dezake bere heroismoa. Eta edozein neskak bere pasibitatea, espermatozoiderik onenaz fekundatuko duen heroiaren zain. Jaio orduko horrelakoak garela zientifikoki argi izan dezagun.

Baina, antza, gauzak ez dira kontatzen diren bezala. Espermatozoideak euren kabuz ez lirateke helduko inora. Obulua omen da bidea seinalatzen duena eta helmugara heltzeko energia bultzada ematen diena, CatSper izeneko ioi kanalak aktibaturik. Progesterona hormonaz egiten ei du.

Eta behin obulura erakarrita (eta ez helduta), espermatozoidea sartu baino, espermatozoideari sarrera ematen dio obuluak, Folr4 folato hartzailearen bitartez.

Heroismo handirik ez. Pasibitaterik ere ez.

AMORRUA

Erraietan hasten zait. Ezinegona da hastapenetan, gorantz eta muskulu guztietara barreiatu bitartean barruko su bihurtzen joaten dena. Estutasuna igartzen dut segidan, haginetara, masailezurretara igo eta gorputz adar guztiak tenkatzen dizkit. Estutasuna hain da estua ezen dar-dar bihurtzen baita, kontrola ezineko dardara. Hankak, besoak, eskuak nahi gabe mugitzen zaizkit, mugimendu atezuetan eta kontrolaezinetan. Zerbait apurtu behar dut. Amorrua da eta amorru mota hori, amorrua aurpegi eta jarrera horren pean agertzen denean ezinezkoa zait galgarik ipintzea. Barrukietatik atera behar dut, kanpora, beste norabait, beste zerbaiten kontra, neure burua harrapatu baino lehen. Milaka zaldi, mila lurrikara, milaka kontrolaezineko indarraldi barrutik irten eta noraezean, besterik ezean, neure burua harrapatu baino lehen.

Kolpatu, apurtu, desegin, suntsitu... eta gero, lasaitasuna, bake sentsazio leuna. Dena apaltzen da inguruan, harrotutako itsasoaren kontra borrokatu den batelak azkenik portuko baretasuna topatzen duenean bezala. Atsedena, mila zatitan apurtutako koa-

dro haren krasss hura gogoratzen dudanean bezain deskantsagarria.

ALFONSINA STORNI

Hark telefonoz berriz deitzen badu,
esaion ez tematzeko, kanpoan naizela...
“Lotara noa” poema
(Itzulpena: Uxue Alberdi)

Mercedes Sosaren ahotsak betetzen ditu bazterrak oro, bere kadentzia eta tristuraz. *Alfonsina y el mar* kanta, Storniren poemak baino ezagunagoa. Alfonsinaren heriotza, Storniren bizia baino presenteago. Kantak heriotza horri ematen dion irudi erromantikoa nahiago du jendeak: Alfonsina lasaitasunean itsasora sartzen, astiro, irensten uzten. Irudi hain erromantiko eta leuna, ezen ez baitira gutxi harrezkeroztik Alfonsina izena jaso zuten umeak.

Baina Stornik itsaslabarretik behera bota zuen bere burua, ekintza latz, gogor eta mingarriaz.

Depresibo, paranoiko, histerikoa... horrela mintzo dira zenbait zutaz. Idatzi ere egin dute, zuk erabilitako abeze berberaz. Paranoikoa... guk baino ikusten, igartzen, nabaritzen ez ei ditugun gauzak.

Besteak ikusteko gai ez diren hori sumatzen badugu, ez da gure gaixoa, beste horien hutsunea baino.

1920ko maiatzaren 18an “harmonia femeninoaz” aritu zinen egunkariko orrialdeetan. Emakumeok harmonia perfektua izan behar garela, gizonek euren egoismorako emakume-biktima behar dute eta. Gurea beti izan behar da, edozer egiten dutela, edozer egiten digutela ere, ulermen bihozbera eta sakrifikatua. Geroago, *Mundo Argentino*-n, jendartearen gaixotasun morala ideiei beldurra dela azaldu zenuen.

Ez ei ziren horrelako ideiak emakumeek izan behar zituztenak. Are gutxiago emakume poeta batek. Zergatik ez zinen mugatu zure paperera? Zergatik ez zenuen lilien usainaz gau eta egun gozatu? Urrezko kaiolatik ihes egitea arriskutsua dela, zergatik ez zizun inork abisatu?

Sekula gizaki izatera helduko ez garelako konbentzimenduak erraiak usteldu eta gogoa belztu dezake. Ez, edozer eginda ere, edozelan arituta ere, ez gara gizaki izatera helduko, emaztekiak, andrekiak, gara eta. Gure andretasuna ez da inoiz gizatasuntzat hartua izango, gugandik isurtzen diren esne eta odolak, gure

oin hotzek eta haragi samurrek humanitate askoz handiagoa erakutsi arren.

Ez, ez dugu gizaki izan nahi. Andrekiak gara eta.

AMETSA

Odola ahurka batzen ari naiz, Bereterretxeren khantoreko Margaritaren antzera. Maria Santzen pena beltza daukat bihotzean, baina.

Odola ukondoetara arte jausten zait, hamaika adardun erreka bailitzan. Batzuk salbatuko dira, beste batzuk zerraldo eroriko. Batzuk salbatzeko, beste batzuk hil beharko dira. Neure ametsa da. Ez naiz ni hildakoen artean izango.

Berriro sartu ditut eskuak bidoi barrura, eragin egin dut, buru bat atera dut azkenik. Gure larruen bila datozen horiei eskaini diet opari. Handik irteteko atea seinalatu didate.

Atea gurutzatu dut geziak saihesturik. Irteera baimendu izanak ez du, ordea, tregoarik ekarri. Beste aldera heltzea lortu dut. Nirekin batera beste batzuk salbatu behar ditut, baina atearen bestaldean ez dago zin egindako salbamendurik. Geziak saihestu ditut berriro etorri naizen lekurantz. Hildakoak alde bietan, hildakoak zubi azpian.

Hegazti zuri eder boteretsu bat hartu eta burua samatik banatu diot tenkada sendoaz. Odola dario.

Aurpegira isuritako odola garbituko nuke, eskuak, besoak, arropa, odolez blai izango ez banitu. Ez dago beste aterik, ez dago nora jo. Hildakoak besterik ez. Aurrera jarraituko nuke, aurrera non den jakingo banu.

Aurrera jarraitu dut, noiz amaituko zain. Odola izerdi bilakatu da eguzkiak gelako leihotik iratzarri nauenerako.

Albatrosa erailtzeagatiko madarikazioa: bizian hilda bizitzea. Coleridgeren marinel zaharraren baladan bezala.

ISILPENA (I)

“Hartu trankil”.

Berbek ez dute beti esan nahi adierazten dutena. Berben atzean beste berba batzuk ezkutatzen dira. Egon badaude, baina ez dira irteten. Barruan geldi-tzen dira, esaten ez dituenaren pentsamenduan.

“Hartu trankil”.

Berba bi. Besterik ez. Baino ez. Agerian. Hainbat berba ezkutatzen.

“Hartu trankil”, <gauzek euren horretan iraungo dute, ez dira aldatuko, ikasi trankil hartzen eta, batez ere, egon lasai, egon isilik, utzi dena egoten, ez naza-zu asaldatu>. Hori esan nahi al du?

Ni lasai egotea baino, zuk nahi duzu lasai egon. Batere hoben eta falta barik. Ez duzu nahi barrutik mar-mar egingo dizun ezer, nahiz eta neure burua mar-mar egon etengabean. Malkorik ikusi nahi ez, agertzen ez diren bitartean, dena ondo dagoelako ge-zurrari eutsi ahal izateko.

Gorroto zaitut isiltzera kondenatu nahi nauzunean. Hainbeste, ezen mahai gainean dagoen matrailua hartu eta burua eztandarazten dizudala irudikatu bai-

tut. Neure baitan. Ezer esan barik. Ezer egin barik. Baina nire eskua zure burmuinerantz kolpea zuzentzen ikusi dut, jotzen, hezurrak apurtzen, materia grisa sukaldeko altzarietarantz zabaltzen, handik likin eskegitzen.

MAITASUNAZ

Goizaldetik goizaldera albistegietara loturik hainbat urte eman ostean, azkenaldi honetan ez daukat gogo larregi gerra partea irakurtzeko, entzuteko edota ikusteko. Gaur, askorik pentsatu barik, teleberria ipini dut. Politika arloko berba hustuen ondoren, makroekonomia arloko zenbaki hutsak eta gero, albiste “gogorren” ostean, albiste “samurren” atala ailegatu da.

Meditazio mintegi bat. Kamerak girotze hartualdiak egin ditu. Antzoki edo biltzar aretoa dirudi. Handia. Publikorantz egin du ekorketa. Han jesarrita dauden lagunen %90 inguru –edo gehiago– andrazkoak dira. Adin, arropa eta orrazkera, itxura ezberdinetakoak. Gero, ponentzia mahaira zuzendu du objektiboa. Mahai luzea da, bertan dauden gizonentzat gehiegizkoa. Hiru gizon, berrogeita hamar urte ingurukoak hirurak, bizar zuridunak, oihal argi eta nasaiez jantziak.

Albistearen off ahotsa amaitu eta hizlarietako bati galdetzeari ekin dio pantailan ageri ez den kazetariak. Elkarrizketatuak, hala ere, ez du nondik norakoen laburpenik egin. Bertan esandako gauza guztien artean, txundigarrien suerta litekeen esaldi borobila aukeratu

du jakinduriaz jantzi nahi duen ahots sakon eta pausatuaz. Publikoaren aurrean egin duenean egiaztatu ahal izan du benetan dela emankorra; orain, etxeko sofatik berari begira daudenen artean ere zirrara berbera lortzeko segurtasunaz ari da.

“Norbaiti ‘maite zaitut’ esaten diogunean, benetan esaten ari garena <maita nazazu> baino ez da”.

Antzoki edo batzar aretoko andre guztiak zein etxeko sofatik begira dauden beste andreak buruaz baietz-baietz-baietz egiten imajinatu ditut. Euren harremanetan izan dituzten hainbat porrot saldo etorri zaie gogora eta, behingoz, mahai zabal batetik adituren batek eman die jadanik suposatzen zuten erantzuna. Oker maitatu dute: batzuk ez ei direlako beste pertsona bat benetan maitatzeko gai izan; beste batzuek euren burua nahiko maitatzen ez dutelako. Porrot horiek guztiak euren erruz izan direla jabetu dira esaldi magiko bakar batez.

Andre horiek guztiek zertan meditatu behar duten esaldi borobil, erraz eta bakan batean kontzentratu ahal izanaz guztiz puztuta eta harro joan da hizlaria pasabidetik aurrera. Ondo egingo du lo gaur, bere arrakasta izara artean induskatzen. Publikoaren %90 –edo gehiago–, ordea, zergatik egin duen beti dena

hain oker, zer aldatu behar duen eta inoiz aldatzeko gai izango ote den hasiko da, lixazkoak ematen duten izaren artean bueltaka.

“Maite zaitut” bakoitzaren atzean “maita nazazu” bat ezkutatzen ei da.

Jaiotzetik eta jaio bezain pronto, pertsona guztiok daukagun premia bizia da hori. Ez maitatzea, maitatuak eta zainduak izatea baino. Besotako umeek, oraindik berbetan ez dakiten, oraindik pertsonak direnik ere ez dakiten, oraindik mundua zer den ez dakiten ume txiki horiek, maitasunik eta zaintzarik ezean, garapen arazo biziak izaten ei dituzte. Maitatuak izatea gure funtsezko premia fisiologikoa da, jatea, edatea, lo egitea bezainbestekoa.

Beste norbait maitatzea? Jasotzen dugun maitasuna, benetan maitasun izateko, elkarrenganakoa izan behar dela egiaztatzen dugunean dator. Ez da premia fisiologikoa, harremanek eta denborak erakutsitako premia soziologikoa baino.

Maitasuna eskatzea funtsezko beharra betetzera dator. Bestea maitatzea behar hori betetzearen trukea daukagu. Ez dago bestea maitatzerik, maitatuak sentitzen ez bagara. Honetan ezin naiz Erich Frommekin guztiz ados egon. “Maite zaitut behar zaitudalako”

heldutasunik gabeko maitasunari eta “behar zaitut maite zaitudalako” maitasun helduari lotzen dizkie.

“Behar zaitut maite zaitudalako” eta “maite naute maite dudalako” esaldiak lotzen ditu, horrenbestez, Frommek. Eta, hortaz, “maite zaitut behar zaitudalako” esaldiari “maite dut maite nautelako” proposizioa dagokio. Norabide bietakoak beharrezkoak direlakoan nago.

Emakumeok maitasuna emanez gero, maitasuna jasoko dugula uste dugu gehiegitan. Hala sinetsarazi digute. Maitasuna eman eta eman eta eman, azkenik, noizbait, maitasuna hartuko dugulakoan. Egoismo dosi handiak behar dituen maitasun-ekintza honetarako, andreoi eskuzabaltasuna baino ez digute irakatsi, gure nahi eta beharrak isilarazi behar ditugula.

AMETSA

Euri jasa gero eta gogorragoa da. Ura etengabean jausten da herriko aldatsetatik behera. Kale zoruetako harriek erreka harriak dirudite. Uriolak dira. Etxera noa, zutik iraungo ez duen beldurrez. Ziurtatu behar dut. Gora noa, pisu bat, beste bat, eskaileretatik baino, hormatik ari naiz gora egiten. Etxearekin batera neu ere eroriko naizen ikaraz nago. Basatza gainean eraikita balego legez mugitzen da, dar-dar egiten dute etxeko habeek, dar-dar egiten dute nire hankek. Zutik dirau, hala ere.

Andonirengana noa, herrira. Serio begiratu dit. Egunen batean berak ere ezer esan barik alde egingo duela aurpegiratu dit. Mespretxuzko begirakunea izan da. Igar dezaket. Gure etxea jausiko ez dela egiaztatzera joan naizela azaldu nahiko nioke, baina isildu egin naiz.

Iratzarri egin naiz. Andoni ez dago, lanera joan da honezkero. Izarak gorputzaren kontra igurtzi ditut izerdia xukatzearren.

ESKUBIDEAK

Eskubiderik gabeko pertsona naizela sakonki uste dudala argitu dit medikuak. Neure buruari hainbeste buelta eta hainbeste buelta eman eta ondorio horretara sekula heldu ez. Eskubiderik ez daukadala: ez haserretzeko, ez eskatzeko, ez berba egiteko; eskubiderik ez.

Neure burua harrapatu dut txarto sentitzeko eskubiderik ez daukadala pentsatzen.

SUFRIKARIOA ETA MINA

Minaren beldur bizi den eta, era berean, sufrikarioa goratzen bizia ematen duen jendartea da gurea. Egiten, lortzen, eratzen, osatzen, burutzen, finatzen, urrentzen, erdiesten, erreusitzen dugun orok neke, pairamen eta sufrimendua izan behar du atzean, benetan goresgarri, laudagarri eta loriagarria izan dadin.

Sufrikarioa beti da txalotzekoa. Horretaz asko dakigu andreok. Gure aurrekoengandik ikasi ahal izan dugu belaunaldiz belaunaldi. Gupida, debozioa eta ontasuna gure dohain edo balio nagusiak izanda, eskala horixe baino ez zaigu geratu izan zelanbait gailentzeko. “Nire ama, saindu hutsa!”, horixe da gure aurrekoek gerora utzi nahi/ahal zuten ondoren pozgarriena. Horixe da euren aurrekoez andre askok goratzen dutena, egia izan ala ez.

Kristautasuna bezalako salbazio erlijioek salbamendua agintzen dute, bai, baina horretara hurbiltzeko bidea sufrikarioetan pasatutako bizitza izan behar dela ere bai. Erlijioei ez ezik, honelako jokabideak militantziari ere agertzen dira loturik maiz. Militantzia eta erlijioaren edo, hobeto esanda, militantzia eta sal-

bazioaren arteko sakoneko lotura ukaezina da. Bizitzari zentzua emateko era eta bizimoduari ordena eta balioak emateko forma, hau da, klan-erlijioa, totemismoa. Minak beti eman izan dio plusen bat militantziari, erlijioek salbamendurako bideari eman bezala. Baina minak ez gaitu ez hobeak ez txarragoak egiten. Kristautasunaren errondoak eta balio eskala maltzurrak baino ez dira.

Edozelan ere, minak izan badauzka ekarpen baliotsuak.

Lehen begiratuan, aurkarien legeari jarraiki, mina inoiz eta ezelan sentitu ezean, seguruenik plazera bere dimentsio osoan sentitzeko gaitasuna ere laburtuko litzateke.

Minak, bere horretan, behin iragana, hondar eta aztarnak uzten dizkigu barruan. Jakintza hondarrak eta biziari ekiteko ikuspen osoagoaren aztarnak izan litezke batzuk. Eta gehien estimatzekoa: funtsezko indarren askapena.

Minak, eta ez itxurakerietako sufrikarioak, benetako minak baino, pertsona izan aurreko estadiora eroaten gaitu, animalia izaerara bueltatzen gaitu, berez garenaren muinean jo eta azaleratzen digu. Garen

animalia bortxaz agertu eta, beste ezer izan aurretik, horixe izan ginela gogorarazten digu: biziraupen, ehiza eta babes instintuek gidatutako animaliak.

Eta ez naiz min fisikoaz ari.

MIN FISIKOA

Min fisikoak, edota psikikoak, negar zotinak eragin ditzake, baita negar marraskak ere. Negarra, kasu honetan, adierazi bakarra daukan adierazlea da. Intentzioduna. Honek ez du esan nahi bigarren intentzioren bat edo ezinbestez erantzun bat bilatzen duenik. Intentziodun adierazleak dira pertsonak garen heinean eta, hizkuntzarekin batera, gure lengoaia osatzen dutenez gero. Metakomunikazioa deitu izan zaio horri.

Intentziodunak dira, era berean, ekintzaren alternatibak; hau da, negarra ordezka lezaketenak ere bai, adierazlearen barne baitaude. Honela, negarra isilarazi ahal dugu ezpainak estuturik. Orduan, estututako ezpain horiek adieraziko dute mina. Malkoei eutsi ahal diegu. Orduan, aurpegiera bera izango da minaren adierazlea.

Mina, hala ere, gutxien komunikatzen den esperientzia izaten da, denok, salbuespen barik, pairatu arren, gure kondizioa edozein delarik ere. Mina, heriotza bezala, arlo pribatuari dagokio. Ez da egokia, ez da onargarria, ez du gutaz eman gura genukeen irudia

ematen. Akaso min fisikoa izan liteke gutxien estaltzen dena.

Min fisikoa saihesten, apaltzen eta ekiditen –edo, behintzat, horretan ahalegintzen– ematen dugu bizia. Gehienetan, baina ez beti. Min fisikoak bestelako minetatik aldentzeko aukera ematen digunean izan ezik, alegia. Izan ere, min fisikoa, fisikoa denez gero, zehatza ere bada: zuzena, neurgarria, mugatua, gure gorputzak diren bezala. Gorputzaren eremu batean sentitu eta mina eremu horretan zehazten dugu. Zehaztapen horretara bideratzen dira orduan pairamen guztiak, hor zentratzen dira, bestelako minetatik askaturik, ahazturik.

Nire ezkerreko eskumuturra begiratu dut. Larruzko pultsera zabalak ozta-ozta estaltzen ditu azpiko erredurak.

AMETSA

Atzera egin dut denboran. Andoniren bila nabil Labartzatik zehar. Laster topatu dut. Tabernan. Herriko neska bik futbolinean zelan jokatzen duten dago begira. Atzetik hurbildu natzaio eta gerria besoaz inguratu diot. Buelta eman du. Begiratu egin dit, baina ez nau ezagutu. Ez nau oraindik ezagutzen.

Taberna kanporantz laguntzeko eskatu diot eta, ezezagun honengatiko kuriositateak bultzaturik, eskaileretan gora etorri da niri jarraiki.

Kanpoan, aparkatutako auto baten alboan paratu gara elkarren parean.

“Oraindik ez nauzu ezagutzen, baina hemendik urte batzuetara elkar topatuko dugu. Zu ez zara hain gaztea izango eta ni orain baino gazteagoa izango naiz. Maiteko nauzu, inor maite izan ez duzun bezala. Eta, halere, edo horregatik, mindu egingo nauzu. Nik ere emango dizut mina. Eta, halere, edo horregatik, inor ez bezala maiteko zaitut”.

Eta desagertu egin naiz.

ARIMA HILAK

Norbaitek maite nauela igartzen dudanean,
horrek harritu egiten nau.
Niganako gorrotoa norbaitengan ikusten dudanean,
horrek ere sortzen dit harridura.
Gehienetan
pertsona horiek neuk ere maite eta gorroto ditut,
hurrenez hurren.
Alderantziz ere zenbaitetan,
maite duzun hori guztiz gorrota daitekeelako.
Eta gorrotoa eragiten dizunari
    sentipena sentiarazteagatik,
    bizirik sentiarazteagatik,
eskerrak, bederen, eman behar zaizkiolako.

Indiferentziarik ez dut, hala ere, inorekin sentitzen.
Are gutxiago jendearekiko,
munduarekiko,
bizitzarekiko
indiferentziaz
jokatzen duten horiekin.
Ez daukate ezer onik eskaintzeko

eta txar gutxi eskain dezakete.

Gogolen nobelako edozein Txitxikovek zenbatuko lituzkeen arima hilak baino ez dira.
Estatistiketatik harago existitzen ez diren numeroak.

HILEZKORTASUNA

Txikitan orkestra zuzendaria izan nahi nuen. Ez erizaina, ez irakaslea, ez albaitaria, ez ama. Orkestra zuzendaria. Kontzertuak ikusi ohi nituen telebistan. Musikaren notek eragiten zuten sentipena, arima altxatzeko zeukaten gaitasuna, eta hori guztia batuta soil batez, makila txikitxo batez, kontrolatu ahal izatea zerbait magikoa zen. Gizon haien tokian egon nahi nuen nik.

Plastikozko piano laranja bat izan nuen. Erdi parteko teklak sakatzean Edurnezurik eta zazpi ipotxek gora egiten zuten. Jo eta jo eta jotzen nuen. Entzuten nituen konpositore handien kantak errepikatzeari ekiten nion edo, bemol eta sostenitu barik, ahalik eta antzekoen egiten ahalegintzen nintzen.

Eskerrak bide hori frustraturik gelditu zen. Bestela, hala gertatzen ikusiko nukeen nagusitan: orkestra zuzendariak gizonezkoak dira, zuzendaritza ikasketetan emakumeak gehiengoa izan arren. Simone Young izan zen Vienako Filarmonika zuzendu zuen lehenbiziko andrazkoa. 2005ean izan zen, Filarmonika sortu zenetik 174 urte igaro ostean. Akaso, 174 urte gehiago

iragan beharko dira Urteberriko kontzertu ospetsua andre batek gida dezan.

Artea besteei emateko modua da. Baita adierazteko modua ere. Isiluneen gure familian artista bat baino gehiago dira. Isilpena nonbaitetik hautsi behar omen da. Artea hilezkortasuna bilatzeko forma ere bada. Paradisu kristau edo islamikoaren faltan, hilezkortasuna honela bilatzea ez da harrokeria hutsa, erlijiotasunetik ere asko dauka.

AMETSA

Zomorroak irten zaizkit besoetatik. Azalaren kontra bultza egiten duten bolatxo txiki modukoak dira, euren kabuz mugituko liratekeen garun txiki bezalakoak. Atzamar erakusle eta lodiaren artean estutu dut bat, azaletik atera nahian. Eta bai, irten egin da. Bolatxo gogor zuria lehenengo eta, horren segidan, buztan likina. Beso gainean daukat. Higuingarria da benetan. Esku-bularraz astindu dut besotik.

Azkura sentitu dut ezkerreko bernan. Beste zomorro bat da, badakit. Hori ere atera behar dut. Baina hara begiratu eta batere laguntza barik, bere kabuz, bera bakarrik irten da, azala apurtuta. Zomorro askoz handiagoa da, grisaxka, luzanga eta mardula, hanka txiki eta iletsuduna. Beste zomorro batzuk igarri ahal ditut, gero eta gehiago dira, gero eta handiagoak, gora eta behera, nire azal azpitik mugimenduan, gorantz, beherantz, harantz, honantz. Azala urratzen ari zaizkit. Irten dira. Bat, beste bat. Ez daukat denborarik denak kentzeko. Gero eta gehiago dira. Zomorroz beterik nago, gainetik eta barrutik.

Izerdi plotan altxatu naiz.

ERREDENTZIOA

Orainaren bete ezinezko putzu hau nondik isuri da? Etorkizunetik ezin, etor-kizun baita. Iraganarekin behar ditut, orduan, kontuak egin. Iraganera begiratu behar dut. Alferrikakoa litzateke oraina goza dezaketen balizko sasoi hobeen edo dirdiratu dezaketen ispilatzeen bila abiatzea. Iraganera begiratu nahi dut, baina harako sasoi dardaragarrietan ez zait eskertasun gomutapenik apenas begietara agertzen.

Nire iragana benetan neure bihurtuko duen erredentzioaren araketan. Isilik egon den iragana aipagarri bihurtzearren, esatearren, zabaltzearren. Ez da barkamenaren erredentzio nahia. Ez dut zertan barkamenik jaso. Sarraski eta triskantza grinaz, iragana pasa zen momentutik erauzi eta oraingora purifikatu nahi dut. Suntsipenaren bila noa.

TALDE PENTSAMENDUA

Irving Janis psikologoak *groupthink* izeneko teoria oso bat garatu zuen erabaki kolektiboen “arrazionaltasun” faltaz kargu hartu zuenean. Norbanakoek erabakiak hartzeko edo jokatzeko erakusten duten arrazionaltasuna beste faktore batzuek desplazatzen omen dute taldeetan aritzen direnean. Talde pentsamenduan, taldeak berak, taldearekiko identifikazioak eta taldea babestu beharrak pentsamendua bigarren plano batera mugiarazten dute. Pentsamendua, zentzua, zentzuzko gogoeta ez da taldean inportanteena, bazik eta taldearen homogeneizazioa eta funtzionamendu arau ez idatziak gordetzea, taldea kolokan jar dezaketen balizko arriskuen aurrean.

Janisek aztertu eta eman zituen adibideen artean, esanguratsu bezain ulerterraza den hurrengo hau azaldu zuen: pentsatu erretzaile talde batean. Pentsatu erretzaile hauek tabakoari utzi nahi diotela. Janisek egiaztatu ahal izan zuen moduan, erretzaile hauetako edozeini aldez aurretik galdetuta, euren erantzunak ez ziren oso ezberdinak. Erraz esaten zuten guztiek euren helburua adikzioari agur esatea zela. Erraz

gehitzen zuten, bide horretan, beste erretzaileei, ahal zuten neurrian, agur esaten laguntzea ere bazela euren xedea.

Hala ere, erretzaile hauek, taldean batu ostean, bestelako jokabide bat izan zuten.

Taldeetan baten batek beti hitz egiten du besteek baino autoritate handiagoz. Berak ez du autoritate zehatzik eskatzen, baina, horrela jokatze hutsagatik, beste guztiek autoritatea eman egiten diote. Honen iritzia, horrela, taldean gehien balioztatzen den iritzi bihurtzen da eta pertsona bakar honen iritziak talde osoaren iritzi bihurtzeko aukera handiak izaten ditu.

Gure taldean izaera honetako bik arin azaldu zuten euren ikuspuntua gainontzeko kideen aurrean: erretzea hain da adiktiboa, ezen ia ezinezkoa baita horri aurre egitea. Talde osoa laster batean bat etorri zen: erretzea hain da adiktiboa, ezen ezinezkoa baita egun batetik bestera uztea.

Hurrengo batzarrean, erretzaile taldeko beste batek bere eskarmentua azaldu zuen. Talde dinamika horretan hasi bezain laster, erretzeari utzia zion; hortaz, borondatea egonez gero, posible izan badela ondorioztatu zuen.

Eztabaida sutsua hasi ei zen orduan. Talde osoa erretzaile honen kontra aritu omen zen jo eta su. Irvingek azaltzen duenez, gizon honek adierazitakoa taldeak jadanik bere egina zuen iritziaren kontra zetorren. Adostasun inplizitua lortua zuen taldeak. Azken erretzaile honen iritzia eta esperientzia adostasun/batasun horren kontra zetorren argi.

Hurrengo bilkuran, gure gizonak erabaki garrantzitsua hartua zuela kontatu zien. “Talde honetan hasi nintzenean, klinikak ezarri zituen arau nagusi biak betetzearekin konforme egon nintzen: ahalegin handia egin behar nuela erretzeari uzteko eta bilkura guztietara etorri behar nintzela, alegia. Hala ere, bietatik bakarra bete daitekeela ikasi dut. Horregatik, bilkura guztietara etorriko naiz, baina, horrekin batera, berriro hasi naiz pakete bi egunean erretzen eta ez dut uzteko ahaleginik egingo harik eta bilkura guztiak amaitu arte”.

Hau entzundakoan, gainontzeko taldekideek irribarre egin eta txalo zaparradaz eman zizkioten zorionak. Zorionak berriro erretzen zuelako? Ez, zorionak taldearen adostasuna desafiatzen saiatu ostean, berriro ere talde osoak –sendotasunez agertu ziren bi haiei jarraiki– konpartitzen zuen hartara itzuli zelako.

Talde pentsamendua, taldea zaintzea helburu nagusia duen heinean, pentsamendu gregarioa da. Artaldeena. Eta, artalde guztietan bezala, baten bat artzaina izan behar.

Taldeek beti egin didate atentzioa. Talde hauen barruan sortzen eta birsortzen diren harremanak antropologia, soziologia eta psikologia ikasketa ezin baliotsuagoak dira. Lotura afektibo eta pertsonal hauek sostengatzen dituen faktore nagusia ez da beti, ezta gehienetan ere, maitasuna izaten. Hala ere, iraunkorrak izaten dira eta iraunkorrak izateko, hain zuzen, arau eta estratifikazio sistema konplexuak sortzen dituzte.

Deserosoak izan zaizkit betidanik.

Arauak eta estratifikazioak bezainbeste.

BOTEREA TALDEETAN

Botereaz ari garela, argi izan behar den lehenbiziko premisa hauxe da:

Botereak ez du justifikaziorik behar.

Botereak legitimazioa behar du.

Boterea ez da jabetza bat, ez da berez edukitzen den zerbait. Boterea pertsonen arteko erlazioa da.

Hamaika definizio badira ere, hartu honako hau, adibidez: A-k lortzen du B-k egitea edo pentsatzea bestela egingo edo pentsatuko ez lukeena. Hortaz, B-k A-ren “arrazoiak” onartu egiten ditu. Baina A-ren arrazoiak al dira B-ren bidea aldatzen dutenak? Boterea daukanak ez du justifikaziorik behar. Ez zaio justifikaziorik eskatuko. Ez du arrazoirik eman beharrik ere, aurretiaz legitimatua izan baita.

A-k B-ren gainean boterea dauka A-k B-ren jokabidean edo pentsamenduan eragiten duenean, azken honen interesen kontra, hau da, B-k desiratu edo nahiago lukeenaren kontra. Erabakitzen dena eta erabakitzen ez dena A-ren esku dago, B-k erabaki horretan parte hartu barik. Botere harremana egituratzen duena A-ren interesa da.

Hiru modu dauzka A-k bere boterea praktikatzeko, B-rekiko daukan erlazioaren arabera:

1. Interes gatazkarik ez dakarkioten pertsonen aurrean, limurtzeko gaitasun minimoa baino ez da behar.
2. Interes gatazka egonez gero, baina B-k interes gatazka hori azaldu ez dezan, baita interes gatazka horretan dagoela nabaritu ez dezan ere, manipulazioa erabili beharko du.
3. Interes gatazka egonez gero eta B-k interes gatazka hau argi azaleratuz gero, koertzioa izango da erabili beharrekoa, zuzen edo zeharka.

BOTEREAZ

Boterea erabiltzeko modurik eraginkorrena limurtzea edo pertsuasioa da.

A-ren interbentziorik ezean, B-k *a* jokabidea izango zukeen; A-ren interbentzioaren ostean, ordea, B-k *b* jokabidea izango du. Limurtzeaz edo manipulazioaz, zigor mehatxuaz ez bezala, B konbentziturik dago berea izan dela aukeraketa.

Hortaz, Aimarrek domekan trago batzuk hartu nahi baditu, baina Agurnek mendira joatea askoz hobe dela esaten badio, Aimarrek azkenik mendira joatea aukerarik onena dela defendatuko du taldearen aurrean.

Horrelako kasuetan ez dago borondate konfliktorik A eta B artean. Zigor mehatxuaz, aldiz, B-k bere burua beharturik sentituko du: nahiz eta bere jokabidea berbera izan, B-k ez du *b* nahiago, *a* baino. Beraz, Aimarrek eta Alaznek domekan kanpora ez irtetea erabaki badute ere, Aimarrek Agurneren hautua defendatu ostean, Alazne ere mendira joango da.

Borondate konfliktoa dago, Alaznek adieraziko ez badu ere. Aimar limurtzea nahikoa izan da Alazne zeharka behartzeko.

Manipulazioa, zuzenean ere, hain da kontu fina ezen A-k B-ren jokabide zehatz bat eragin baitezake esplizituki eskatu gabe, baita B-ri jokabide hori desio duela ezkutaturik ere eta, gainera, B konturatu barik A-k nahi duen hori egiten ari dela. Harreman mota hau, normalean, manipulazio berbaz izendatu ohi da. Honen adibidea izan liteke, Anartzek eta Aliak asteburu pasa pentsaturik izan eta, kasualitatez, Agurnek asteburu horretan bertan Anartzen laguntza behar izatea zereginen baterako. Anartzek, orduan, ondo pasatu edo lagundu... erabakia argia da. Agurnek asteburu pasa izorratzeko asmoa ezkutatu du Anartzen begietara, baina praktikan Anartz Agurneren jokoan sartu da.

Manipulazioa erabiltzen denean, normalean B ez da lehen momentutik kontziente, borondate konfliktoa ezkutuan geratzen da, harik eta B konturatu arte bere jokabidea manipulatua izan dela.

Botere karismatikoaren funtsa menpekotasun afektiboa da. “Gidari” zein “dizipuluen” izaerak osatzen, moldatzen eta arrazoitzen doaz harremanaren arabera. Kasu hauetan, boterea zuzenean erabiltzeko

premiarik ez da egoten gehienetan. Honela, Ainarak Agurne imitatzen duenean, eredu mailara altxatzen du. Agurneren intereseko jokabidea da hau, sustatu behar izan ez duen arren; Ainarak bere borondatez egiten du.

Norbanako zein taldeek euren eremu sozialean botere banaketaz egiten duten irudikapenak botereare-kiko bere(n) jokabidea zehaztuko du.

ANNE SEXTON (I)

Anne Sexton etxean, kamera aurrean, lotsagabe berbetan eta lotsagabeki jokatzen, botatzen duen esaldi bakoitzaz elkarrizketakidea erosotasun egoeratik atera eta bere jokora ekarri nahiko bailuen.

Neure burua ikusi dut lotsabakokeria zuzen eta zorrotz horretan. Biziarekiko atrebentzia. Berriro poemak idazteko gai izango al naiz? Hutsunearen hondarretan bilatu beharko dut, menditik jaitsitako piztiek zaborrontzietan bilatzen duten bezala.

ZIGARROAK, WHISKIA ETA
EMAKUME BENETAN BASATIAK
(kantu batetik)

Belauniko jaio nintzen agian,
negu luzean eztulka,
errukiaren musuaren zain,
abiadak liluratuta.
Gauzek aurrera egin ahala, dena den,
aise ikasi nuen eremu hesituaren
eta isolamenduaren zentzua,

enemak dakarren gasaren esanahia.
Bi edo hiru urte betetzerako ikasi nuen jada
ez belaunikatzen,
ez itxaroten, nire suak lurpean landatzen,
panpinei soilik xuxurlatzen zaien lekuan,
han, non haiek soilik diren lotarako etzaten,
itsusi eta perfektu.

Jada hitz asko idatzi ditut,
hainbat amodio aske utzi hainbat jenderentzat,
eta beti izan nintzena izan naiz orobat:
gehiegikeriaz, pasioz eta gutiziaz betetako emakume bat.
Haatik, alferrikakoa iruditzen zait ahalegina.
Ez diot, akaso, nire buruari ispiluan so egiten egunotan,
begiztatzeko arratoi mozkor bat nirekin ezkutaketan?
Ez dut, akaso, gosea hain zorrotz sentitzen, non,
nahiago bainuke hil, hari aurpegira begiratu baino?
Beste behin belaunikatu naiz,
deskuidoan errukia baletor ere
denboraren kondarretan.

(Itzulpena: HARKAITZ CANO)

Idazteak ez zion Anneri balio izan konpondu beharrekoa konpontzeko, baina bai XX. mendeko poeta go-

renetako bat izateko. Idaztea osasun bidera hurbiltzeko gomendatu ei zioten. Ez dakit Annek horretan sinistu zuen, baina jakin badakit horren emaitza ez dela espero litekeena. Literaturak norberaren gainetik egiten du salto. Literaturak dena hartzen du, ematen zaiona eta ezkutatzen zaiona, pertsona eta pertsonaia. Eta ez dizu ezer ematen trukean, ez zaitu aldarazten. Zergatik utzia nion idazteari galdetu ohi zidaten. Inork gutxik ulertu ahal zuen ezin niola literaturari barkatu errealitateaz sendatu ez izana.

ANNE SEXTON (II)

Sextonek bazekien poeta guztiek, altzari batzuk hartuta, arbola eraikitzen dutela.

Anne Sexton, bera ere hiru ahizpetatik azkena. Akatsa izan zen bere jaiotza. Edo, behintzat, horrela uste zuen. Hainbat urteren buruan, espero barik jaio nintzen neu ere. Ezinezkoa akatsean ez pentsatzea.

Anne Sextonek eta Sylvia Plathek idazle tailer batean elkar ezagutu zuten. Elkarrengan laguna egin zuten topa. Tabernako barran, aulki altuetan jesarrita imajinatzen ditut. Literaturaz ari dira. Literaturaz eta suizidioaz. Ez dira arrazoiez berbetan ari, baizik eta moduez eta momentuez. Zerbitzariari, hiruki formadun kopak hustu bezain pronto, mesedez berriro betetzeko eskatu diote.

Sylvia Plath izan zen bietatik lehenbizikoa bere bizitza eteten. Lagunaren galeraz gain, Annek berea izan behar zen heriotza lapurtu izana ere sentitu zuela ziur nago.

Esaten dutenez, Sextonek azken egunean vodka aukeratu zuen. Usainik ez duen edabe magikoa. Pare bat vodka hartuta, hirugarrena eskuan, garajera sartu

eta martxan ipini zuen bere auto gorriaren motorra. Autoko musika uhinak libre utzi zituen. Musikak sorrarazten dizkigun emozioak ezin dira poesiaz eragin.

EGIA (I)

Egiaren bilaketa egia bera baino garrantzizkoagoa da. Egia, bat eta bakarra izan arren, ez da borobila. Egia poliedrikoa da.

Poliedrikoa eta zaila osatzen. Zailtasun bikoitzari egin behar zaio aurre. Gertaeren izaera konplexuak poliedroaren alde guztiak argitzea galarazten digu berez. Baina are konplexuagoa dena: behatze ekintza ezin da objektiboa izan, behatzailea askatu nahi dugun korapilo horren partaidea denez gero eta, hortaz, inplikaturik dagoenez gero. Are gehiago, behatzaileak eta behatze ekintzak berak errealitatea aldarazten du eta, errealitatearekin batera, kausitu nahi dugun egia ere bai.

Egia partziala izango da beti, edozein alde ezagutu ahal izateko parte hartu behar delako. Jartzen garen aldeak markatuko digu ze ezagupen egin nahi dugun egiaz. Edonon jartzen garela, nonbait jartzen gara. Ezinezkoa den bakarra ez egotea da. Alde hartu beharra, berez, ezinbesteko pausoa da ezagupenerako. Alde hartu beharrak ez dio egiari bere unibertsaltasu-

na lapurtzen, osotasuna erdiestea galarazten badu ere.

Zenbaitek uste dute poliedroaren alde bakar bat edo, gehienez, bizpahiru ezagututa, egia osoaren jabe direla. Eta, beraz, ez dute egia osatuko duten beste aldeak bilatzeko ahaleginik egiten. Batzuen kasuan, euren buru txiki eta itxietan besterik kabitzen ez delako. Beste batzuen kasuan, euren probetxurako edo inoren kalterako erabili nahi dutelako egiaren alde bakar hori. Azken hauek dira arriskutsuenak. Azken hauetako bat izan gara denok inoiz edo behin.

Benetan balio duena ez da egia osoaren jabe izatea edo egia osoaren jabe garela sinistea. Egiaren balioa poliedroa osatzeko eten eta amaierarik gabeko bilaketan datza. Jabetzak pasibo, nagi eta harroputz bihurtzen gaitu. Bilaketak dudati, saiakor eta ekinak izatera bultzatzen gaitu.

GEZURRA (I)

Gezur asko entzun izan ditut. Horietako batzuk niri esanak, beste batzuk norbaitek inori sartuak, baten bat norberaren ahotik, nik gezurrik esaten ez dudan arren. Edozelako gezurrak izan dira. Gezur tontoenetik krudeleneraino.

Berba egitea beti da arriskutsua, are gehiago egia esateko bada. Gezurra, ordea, entzuten duenarentzat pozoia bada ere, balizko biziraupen edabea da ahoskatzen duenarentzat, biziraupen laburra izan arren. Horrela, gezurraren aurrean erantzunik ematen ez bada, nolabaiteko salbamendu euskarri bihurtzen da gezurrean tematzea, nahiz eta bota duenak jakin ez dela sinistua izan. Adierazi gabeko akordioa da. Gezurretan dabilenak horri eusten dio. Gezurra entzun duenak salbamendu euskarria ez puskatzearren, beste pertsona momentuan itotzen ez ikustearren, ez dio ezer.

Gezurretan ibiltzeko ez da zertan ezer esan; egia ezkutatu eta isiltzearekin nahikoa da.

BERAKATZAK

Frijituta, egosirik, olio-ozpinetan, baita gordinik ere. Armosurik onena dira ogi txigortuan igurtzi eta gatzdun oliotan bustita... edozelan ditut gustuko berakatzak.

Dilistak egiterakoan, baratxuri buru osoa lapikora sartu eta gutiziarik gozoena bailitzan jaten dut gero alez ale. Banan-banan, azala ondo zurrupatua.

Berakatzak ikusten, erosten, prestatzen eta jaten ditudanean beti gogoratzen dut aitak behin kontatutakoa: “Kontzentrazio esparru batean egonez gero, baratxuri landaretxo batzuk izkina batean haztea lortu behar da”. Gauzarik eta probetxugarriena da hori. Merkeak dira, ale bakoitzetik landare bat lor daiteke, errazak dira ereiten, ez dira oso handiak ezta ikusgarriak ere eta, inportanteena, berakatzak janez gero, hestearen paretak itsastea ekiditen da.

Ortuari honen onurak kontatzen direnean, inork ez du horrelakorik aipatzen. Inguruko norbait ataka honetan egon izana ei da beharrezkoa jakinduria hau transmititzeko: jan ezean, hesteak elkarri itsasten zaizkio.

Mauthausenera arte ez da joan behar, Espainiatik hainbat lagun Austriako bazter hartara bidali eta han hil bazituzten ere. Askoz hurrago ere egon ziren esparru madarikatu horiek, Hollywooden agertu ez arren, eskola liburuek kontatu ez arren.

Mauthausenera edota Auschwitzera arte ez da joan behar, ez. Askoz hurbilago ere izan ziren. 188 kontzentrazio esparruetatik, zeinetan egon ote zen gure osaba zaharra? Aitak bere lagunaz berba egin zidanean, familiakoez berba ez egiteko egin al zuen? Balizko galdera zailak uxatzeko? Horrelako esparruetatik pasatu ziren 500.000 lagunetatik, zenbat ezagutu zituen? Guztietatik zeinek ereiten zituen baratxuriak?

Ezin dut pentsamendutik aldendu berakatzak ikusi, erosi, usaindu, dastatu, prestatu, jaten dituda-nero.

Historia gaixoak dira gureak.

Eta ez dago hori osatuko duen ortuaririk.

AMETSA

Zalduna zaldi gainean. Lauhazka bizian. Zaldi iluna, ia beltza. Zaldiaren kokotetik behera zauri zabal sakona. Hain zabal eta hain sakona, ezen burua lepoko tendoi eta zainezko hari finetatik eskegita daraman. Zalduna, korrikaldiaren andara biziarekin batera mugitzen ari da zaldi gainean. Zaldiaren buruak ere mugimenduarekin bat egiten du, gora eta behera, gora, behera, gora, behera, samako haragi hari soil eta sotilek eutsita, eskegita.

Neu naiz zalduna, gainean noa eta, aldi berean, neure burua pasatzen ikusten ari naiz. Protagonista eta ikusle orojakilea naiz.

Kartoizko zaldiaren itxura dauka kanpotik, antzina herrietako ferietan lasterketan zebiltzan kartoizko dromedarioen antzera. Baina zaldia ez da kartoizkoa, gainean noa muntaturik, zaldiari ordenak emateko batere balio ez duten bridei helduta.

Lauhazka gero eta arinagoan. Irudi espektralari ez dio zaldunak, ez diot nik, erreparatu, normaltzat daukalakoan nago, normaltzat daukat. Zaldia ez ezik, zalduna ere hildakoen mundutik etorri al da?

Izerdi plotan esnatu naiz.

ISILPENA (II)

Pastillak hartu eta ezer gertatuko ez bailitzan jokatzen dut. Aurpegi onaz egon, irribarrea erakutsi, dena ondo dabilela islatu. Baina ondo ez, ondoeza ez dago ondo. Batere ondo.

Irentsi eta irentsi eta irentsi. Eta irensteko gaitasunak ere muga naturala daukanez, ezin irentsitako sasoia heltzen bada? Sasoi hori heldu denean?

Jatetxe garesti batean baleude bezala nabaritzen ditut nire obsesioak, etengabe errepikatuz, adurretan, sardexka eta ganibeta eskuetan, nire burmuinaren zein lobulutatik hasiko ote diren ezbaian, astiro eta patxadaz, plater txiki eta goxoen zerrenda luzedun menua aurrean baleukate bezala. Ideia obsesiboen etengabeko otordua da.

BOTERE SAREA

Menperatu-menperatzaile bikoteari eusteko modurik eraginkorrena ez da koertzio esplizitua. Boterea erabiltzeko modu zatar eta ageriko honek erantzuna ekar lezake eta, hortaz, boteredunaren legitimazioa kolokan jarri.

Aitzitik, hainbat estratifikazioren arabera daude antolatuta taldeetako botere harremanak eta sarizigor jokoaz sarea eratu, estutu eta kontrolatzen dute bertako kideek.

Boterea daukanak berez dagokiolako dauka boterea edo, hobeto esanda, horrela izan dadin, hala sinistu eta hala sinetsarazten dielako ingurukoei. Hauxe da lehenbiziko estatus mailaketa edo estratifikazioa: A-k maila altuena betetzen du beste guztien gainetik. Bestela esanda, beste guztiek maila baxuagoan egotea onartu dute A maila gorenera igotzea erabaki dutenetik. Ez da erabaki kontzientea, baizik eta “ordena naturala”. Lehenbiziko estratifikazio honek boterea legitimatzen du.

A-ri nagusitasuna aitortuta, beraren ingurukoek A-ren mesedea izango dute. Ekintza honek balio eskalan

altxatzen ditu taldekoak ez diren beste guztiekin konparatuta. Esan nahi baita, A-ren zirkulutik kanpo daudenek ez daukate A-ren mesedea eta, hortaz, taldearentzat balio gutxiagokoak dira. Hauxe izango litzateke bigarren estratifikazioa, non boterea (edo botere sentimendua) talde osora zabaltzen den.

Sareak A-ren boterea zuzenean bermatzeaz gain, zeharka ere handitzen du: menpekoak (B, B’, b, b’...) euren egoerarekin –A-ren alboan egotearen “sariarekin”– pozik egoteaz gain, botere hori pitzatu ahal duen beste edonoren arerio bihurtuko dira. Boteretik gertu egoteak ematen dien konplazentzia ezerezean geldituko litzateke, baldin eta boteredunak boterea galduz gero edota balizko botere horren fikzio konpartitua apurtuz gero.

Hirugarren estratifikazioa B guztien artekoa da. Talde berean egon arren, ez dute denek posizio berbera betetzen. A-rengandik zenbat eta hurbilago, orduan eta eskailera maila altuagoan egongo dira. Jokoaren arau inplizituak denek ezagutzen, onartzen eta zaintzen dituztenez, menperatuak berez eta euren kabuz arituko dira ahalik eta sari gehien edo ahalik eta zigor gutxien jasotzeko txapelketan.

Araua urratu duena lotsaraztea, kritikatzea edota erridikulizatzea dira zigortzeko modu arruntak horrelako taldeetan. Zigorra edozeinek paira dezake momentu zehatzen batean; hala ere, baten batek beti beteko du azken postua. Pertsona hori zigorren jopuntu ohikoa izango da guztientzat: norbait jipoitu behar da botere faltaren frustrazioa bideratzeko. Agurnek, horrelakoetan, benetan disfrutatzen zuen tabernako barratik begira. Aimar gozamen horren partaide izaten ahalegintzen zen. Alaznek ez zeukan oso gustuko. Ainarak, beti parte-hartzaile, ez zion jokoari benetako zentzua hartzen.

Boterea aitortzen duen sare oso bat da beharrezkoa. Miresten den horren alboan egote hutsa, berez, saria da. “Aukeratutakoen” taldekoa izatera pasatzen zara. Eta talde “esklusibo” horretako partaide moduan, taldea –eta taldearekin batera lortu den balizko “posizio soziala”– babestea da helburua. Harrigarria da boterea beste bati eman ostean, norberak eta ez beste inork sortutako botere horren alboan egoteagatik egin litekeen guztia. Esan bezala, talde pentsamendua, pentsamendu gregarioa da.

EGIA (II)

Egiaren poliedroaren bilaketa zaila da. Kanpoko zein barruko zailtasunei aurre egin behar diegu egia bilatzeko.

Hala ere, bilaketa hori ez da funts barik abiatzen. Oinarri sendo eta argiak izan baditu. Lehenengo eta behin, gauzak diren moduari egokitu behar dira gure proposizioak. Juzgu eta proposizio hauek ezin dira egin gauzapen edo errealitatearen kontra.

Beraz, norbait ez da, besteekin konparaturik, altua edo baxua edo mehea edo beltza horrelakoa dela esaten dugunean egiten dugun juzgua egia delako. Aitzitik, norbait altua, baxua, mehea edo beltza dela baiezztatzen dugunean egia esaten dugu.

Era berean, zer den ona eta zer ez juzgatzen dugunean, argi izan behar dugu zerbait nahi edo desiratzen dugunean, zera hori ontzat jotzen dugulako nahi edo desiratzen dugula. Aitzitik, ez dugu zerbait ontzat jotzen desiratzen dugulako.

Hortaz, ez dira gauza bera onurak desiratzen dituzten pertsonak eta euren desirak onura mailara altxatzen dituztenak. Era berean, inor ez da ona edo

txarra guk egiten dugun juzgua egia delako; horien ontasuna edo gaiztakeria adierazten ditugunean, egia esaten dugu.

ISTORIO AMAIEZINA

Bastian Baltasar Bux mutikoak Fantasia mundua sortu zuen. Eskolako lagunek gerora bullying izendatu dena egiten zioten, aitarentzat ez zen existitzen eta behar baino potoloago zegoen. Horixe izan zen Fantasiara alde egiteko arrazoia: alde egin beharra, alegia.

Michael Endek atsekabe handia hartu omen zuen *Istorio amaiezina* pelikula ikusi zuenean. Ezin nirea baino handiagoa izan. Istorioak guztiz harrapaturik, liburuak zeharo irentsirik, Bastianen Fantasiara sartzeko gosea ez zidan afariak apaltzen. Irakurtzeko egarriak hurrupatzen zuen sei urteko neskato hura liburua esku artean ohera joan orduko.

Gogoan daukat egun batean oharra utzi niola ahizpari burko azpian. Liburu magikoa neuk neukan esku artean. Banekien hura ez zela Bastianen liburu berbera, nobela baino ez zela, baina berben magikotasunak aldarazi ahal gaituen modua ezin du ezein aztikeriak edo konjuruk lortu. Idatziz kontatu eta burko azpian utzi nion ahizpari. Lotsagatik, batetik, sentimenduak ahoratzeko ezintasunagatik, bestetik. Pelikula estrei-

natu bezain pronto, zinemara eraman ninduen. Zazpi urte neuzkan ordurako.

Ahizparen atsekabea ere handia izan zen zinematik irten ginenean. Triste nengoen. Triste pelikula hark ez zuelako islatzen liburuaren funtsa. Hasteko, Bastian mutiko polit eta argala zen; amaitzeko, abentura pelikula kaskar hartan esanahi sakonik ez zen inondik ageri. Nobelaren sarraskia izan zen.

Nik hain argi ulertzen nuena, zelan ez zuten ulertu pelikula hura egin zutenek? Umea baino ez nintzen, eurak helduak. Eguzki izpien pean urtzen diren elurrezko idoloak al ziren? Horrela balitz, norbera haize bero ahokada batez idolo faltsu horiek urtzeko gai izan liteke? Are okerrago, ulertu bazuten, baina bertsio faltsua egin bazuten, ikuslea izan nintzen ni ergeltzat al nindukaten? Horrela balitz, begirunez tratatzen ez gintuzten horiek begirunerik ez zuten merezi.

Pelikularen engainuak ez ezik, ondorioek ere goibeldu ninduten.

ANNE SEXTON (III)

DEABRUA (zatia)

[...]
Oi, ene baitako deabru,
beldur naiz, nekez altxatzen dut eskua
ahoraino, ahoa josi eta
estaltzeko, zu itoarazteko,
nire idazmakinako teklen
begi muturluzeetatik aparte.
Bahitura-etxean utziko bazintut,
zenbat urre lingote nituzke trukean,
zenbat xentimo igerian haien kobrezko muxuen artean,
hilzoriko zenbat txori jasoko nituzke?

Ez.
Ez.
Onartu zaitut,
nire ametsak populatzen dituzten hildakoekin zatoz,
idazmahaian barrena oinez dabiltzanekin
(halaxe dabil Ama ere, minbizia loratu zaio
bere Best & Co. saltokiko titietan,

zeta-paperezko mamuarekin dabil balsean).
Hildakoak, nire baitako diabetikoari goxokiak ematen, hildakoak, tarteka nigana eta nigandik hegaldatzen diren arrosa saldoei geziak jaurtitzen.
Bai.
Bai.
Onartu zaitut, deabru.
Ez dut zeure ahoa estaliko.
Maite dudan gizona bada, ni sagarrez zamaturik eta kirasdun;
maite dudan emakumea bada, ni gaixorik bere odolean, bere gas eztizkoetan eta bere adar erorietan barrena.
[...]

(Itzulpena: HARKAITZ CANO)

Neure burua ikusi dut lotsabakokeria zuzen eta zorrotz horretan. Biziarekiko atrebentzia. Ezin da berreskuratu inoiz galdu ez dena. Desestali liteke. *Hutsunearen hondarretan bilatu beharko dut, menditik jaitsitako piztiek zaborrontzietan bilatzen duten bezala.*

Eta halaxe egingo dut, nire deabruen estalkia guztiz urratu arte. Bizitzen utziko al didate? Ez, euren baimenaren premiarik ez. Neureak dira. Neuk utziko diet eurei bizitzen.

Absentziak dira, torturatzen nauten ez egindakoak, ez esandakoak. Nire deabruak hain dira errealak, hain dira benetakoak, ezen existentziatik harago baitaude. Gaueko leia dira. Jausten ikusi ez, baina belarra guztiz zuritu du goiza heldu orduko.

Ezin ditut lotu, ezin isilarazi. Ez daude, baina badaude. Beste inor haiek ikusteko, entzuteko, igartzeko gai ez izan arren. Deitzen naute, besotik heltzen naute, kantatzen naute... Nabaritzen dituzue? Hegaz datoz, elur eta kazkabar artean. Tinpanoak eztandarazten dituzten ziztuak dira.

Falta, eza, gabezia dira nire deabruak. Neguko eguzkiak lurretik gorantz altxatzen duen lurrunezko lanbroa. Ez eginikoa, ez esanikoa. Lurruna. Neureak dira. Neure parte dira. Armaturiko izpiritu ikusezinak. Nire gerra gogoaz elikatzen dira. Asegaitz, sua bezala. Hustu egiten naute eta, pasa ostean, kiskalitako gerra zelaia baino ez dute atzean uzten, gorputz atalak sakabanaturik. Prometeo berriak bezala, zati bizigabeak berriro biziarazi beharko ditut.

NARTZISISMOAZ

Uretan islatu zen Nartziso eta bere irudi ederraz maitemindu zen. Urek, halere, alde bat baino ez zioten erakutsi: beraren aurpegi perfektua. Ez bizkarralderik, ez gerizperik, ez atzekorik. Nartzisok ikusi nahi zuena baino ez zuen ikusi. Nartzisok bere buruaren isla engainagarri bihurtu nahi zuen. Hainbesteko gogoz, ezen engainu horretan hil baitzen itota.

Bi nartzisismo mota daude, gutxienez: zarena izateagatik edo egiten duzuna egiteagatik. Alde handia dago bien artean. Lehenengoarekin, ingurukoak baino hobeak garela sinisten dugu, berez, gu izate hutsagatik. Inor ezin da gurekin parekatu, inor ezin izango delako sekula gu izan. Bigarren nartzisismoak, ordea, egiten dugun horretan gero eta hobeak izatera bultza gaitzake. Egiten dugun edozer, egiten dugula ere, besteren batek ere egin lezake, baita guk baino hobeto ere. Eta beraz, geure buruari gero eta gehiago eskatzera eraman ahal gaitu. Sortzaileen artean, edozer sorturik ere, nartzisista asko omen daude. Ez dut nik horretaz zalantzarik agertuko.

Norbanakoen nartzisismoaz gain, talde nartzisismoa ere existitzen da. Kasu honetan, norbanakoa barik, taldea bera da gehiegizko estimuaren objektua. Izan ere, talde hauetako kide askok, norbanako moduan, askotan ez daukate euren burua estimu handitan. Baina euren taldea goratzen dutenean, talde horretako partaideak izate hutsagatik, eurak ere hobeak direla sinisten dute.

Taldeko buruzagia mirestean nagusi horrengan isla dezakete euren nartzisismoa. Norabide biko sumisio, sinbiosi eta identifikazio ekintza da: norbanakoek euren nartzisismoa buruzagiari transferitzen diote; liderra zenbat eta handiagoa, jarraitzaileek hainbat eta handiagoak direla sinistuko dute. Era berean, jarraitzaileek liderra zenbat eta gehiago miretsi, azken honen nartzisismoa hainbat eta gehiago elikatuko da. Bereziki nartzisistak diren norbanakoak izaten dira aproposenak lider funtzioa betetzeko. Bere handitasunaz konbentziturik dagoen eta zalantzarik ez daukan buruzagiaren nartzisismoa da, hain zuzen ere, menpekoen nartzisismoa erakartzen duena.

Esan barik doa, kolpatutako nartzisismoa, norbanakoena zein taldearena, kolpatu duena zanpatuz

gero baino ez dela “osatzen”. Balizko zaurtzailea zauritu, balizko zauria sendatzeko.

AMETSA

Telefonoak jo du. Ez dut hartu, baina txirrina ez da eten. Badirudi ez dela sekula etengo. Bai, azkenik.

Berriro jo du. Ez dut hartu. Badakit nor den. Badakit nor den bestaldean dagoena.

Hirugarrenez jo du. Hartu egin dut, baina ez dut erantzun.

Berriro jo du. Hartu eta erantzun nahiko nuke, ez deitzeko esan nahiko nuke, baina ez dut egin. Telefonoa hartu eta isilik gelditu naiz. Denbora aurrera doa. Kabletik ahots ezaguna entzun daiteke, ahots urratu desatsegina da. Inpazientziaz egiten du berba, badaki neu naizela bestaldean dagoena. Exijentziak egiten dizkit, artega. Ez dut ezer esan. Minutuak pasatu dira. Deia amaitu da.

Telefono zaratak iratzarri nau. Andonik hartu du.

INGEBORG BACHMANN (I)

Ni jaio baino lau urte eta egun bat, egun bakar bat, lehenago hil zen Bachmann. 47 urte baino ez zituen. Nik baino hamar gehiago. Suak hartu zuen bere ohea. Ezbeharrez edo beharrez izan ote zen Bachmannek baino ezin jakin.

Malina nobelan idatzi bezala, su gorriak aurpegian dir-dir egiten diola irudika dezaket. Aztia balitz legez, Ingeborgek bere liburuan asmatu zuen amaiera: sua. Labeko suan kiskaltzen zituen paper zatiak. Baina ez idatzitakoa desagerrarazteko ekintza poetikoan; azken zigarroa, azkenetan azkenena izango zen zigarroa pizteko baizik. Aztia balitz legez igarri zuen azken zigarro hura, azkenetan azkenena.

Sofara begiratu dut. Sofako erredurara.

Inguratzen gaituen krudelkeriaren aurrean, zelan babestu? Non topa ahal da atseden, edonon bada sarraski eta min lazgarria? Non topa ahal da deskantsua, egunero triskantzak eragiten badituzte gizakien inbidiek, ezinikusiek, gezurrek, kalte egin nahiek, zapaldu nahiek?

Maitasunean erantzungo luke baten batek.

Maitasunean erantzun dugu denok noiz edo noiz.

Bachmann eta Celanen arteko harremana akaso salbamendua izan zitekeela uste izan zuten biek, nork bere aldetik. Baina poesia errealitatetik at dago. Eta errealitatetik at dagoen zerbaitek ezin gaitu errealitatetik sekula salbatu.

Uste baino gehiago maitatu izan nauela dedikatu zidan gizon batek bere poema liburuetako bat. Badakit berak ez ninduela maitatu. Nik bera ere ez. Maitatzen ez dakien gizona eta maitatu nahi ez duen andrea.

Heriotza literarioa eta benetako heriotza gauza bera ez diren bezala, maitasun literarioa eta benetako maitasuna ez dira berberak.

Benetako maitasuna gauza zikina da, min ematen du. Ez da sentimendu aratza. Sentimendu higuingarria da. Hori islatzen ez duen poema gezurretan dabil. Islatzen duena bezalaxe. “O poeta e um fingidor” zioen Pessoak. Zer ez dira, ba, poeta bi batera?

Poema ederrak sortzeko bidea. Handik poemarik sortu bazen. Zirrara, ardurarik eza, askatasuna, jolasa, batak bestearen ariman arakatu eta bizia literatura bihurtzen den tokitik elkarri xurgatu. Jolastu eta jo-

lasean ezkutatu, andre-gizon izaera poeta izaeraz mozorroturik, sasi-maitasun literarioz mozkorturik.

Paul Celanek Senara bota zuen bere burua 1970eko apirilean.

INGEBORG BACHMANN (II)

Nork eskatu dizu arrotz honi buruzko juzgu bat?
Eta inork eskatu gabe ematen baduzu, segi oinez gau batetik bestera
haren zauriak orpoetan dituzula, segi, eta ez itzuli
"Hizketa eta esamesa" poema
(Itzulpena: NAGORE TOLOSA)

Esamesak juzgatuaren belarrietara sekula helduko ez direlakoan, koldarkeriaren mailarik gorenera heltzeko gaitasuna dutenek ez ei dute gure atentziorik merezi. Inoren juzguak ez ei du gure arretarik merezi.

Aurpegi biko munstroak ez dira izaki mitologikoak, alde bakarra erakusten duten izaki errealak baizik. Erraza da horiei sinisten. Baina ba al da horren erraza horiek ahazten?

Zelan osatu zauri horiek baldin badakigu sortu dituztenen orpoetan ez direla sekula islatuko, euren oinak ez dituztela inoiz odol eta haragi bizi izango? Zelan osatu, errealitatea ikusaraztea hain bada latza?

Gure ingurukoei guk nahi ditugun ezaugarriak oparitzen dizkiegu, onak edo txarrak. Gehienetan

onak eta txarrak aldi berean. Asmatu dizkiegun ezaugarri onei edo txarrei erreparatzen diegu, segun nor garen, segun nor den. Segun zer nahi duen. Segun zer behar dugun. Gure pentsamenduan baino ez dira bizi.

Hurkoak zelakoak, gu halakoak.

Hain da gogorra onartzea ingurukoen eraikina gure irudimenean baino ez dagoela, aurpegi ezkutua gordetzen dutela, aurpegi ezkutu horrek sorrarazitako oinazean gozatzen dutela... Oratu dugun gezurrari edozelan eusten diogu. Gezurra onartzeak gu ere munstro bilakatuko gaituen beldurrez. Eta zauritutako animaliak, bere burua babesteko instintu primarioaz, basati mugitu eta eraso egiten du.

Horrelaxe zauritu ninduen behin Andonik.

Aurpegi biko bere munstroekin parekatu ninduen. Inoizko ekintza bortitz eta mingarriena.

INGEBORG BACHMANN (III)

Adierazteko ezintasunean itotzen zen Ingeborg. Zer sentitu, zer izan, emakume begiek zer ikusten ote duten. Subjektibitatea eta subjektua. Identitatea berbaz gauzatzen bada, ze berbakera erabili identitatearen xerka? Emakumeon subjektua hiltzen duten bezala, gizonezkoen hilketa modu horiek gure subjektibitatea mutilatzen dute.

Ingeborgek bere buruari galdetzen dio poema batean ea pentsamenduaz besterik ari ote den, sentimenduetatik aparte ote dagoen. Horrelaxe esaten dit sarri medikuak. Baina hori mina, kaltea eta kontrola askatzea lakoa da; eskema, sailkapen eta azterketen babesari uko egitea gauza gaitza da, nahiz eta burua-ren garaipenaren harrak bihotz-begietan hutsune bete ezina utzi.

AIMAR

Kale zaharretatik paseatzea zuen gustuko Aimarrek. Astiro joaten zen, bigarren pausoa egiteko lehenbizikoaren baimenaren zain balego bezala. Inguruetara begira joaten zen, burua artez, alboetara begiak besterik mugitzen ez zituela. Hori nahikoa zuen begirakuneaz alboko guztiak arakatzeko. Nor zebilen, nor ez zebilen, nor norekin zebilen eta zertan zebiltzan kontrolatzea zuen gustuko; batez ere eta denaren gainetik, ondotik pasatzean nork begiratzen zion eta zelan begiratzen zion, eta begi horietan miresmen zantzuak ikustea –edo imajinatzea–. Orduan, burua askoz goragotzen zuen, menpeko nekazari artean beren lurrak aztertzen zituzten Erdi Aroko zaldunen antzean.

Nagusitasuna islatzen zuten keinu neurtu haiei naturaltasuna ematen ahalegintzen zen, ez keinuon helburua ezkutatzearren, baizik eta berarentzat nagusitasuna gauza naturala zelako. Gustukoa zuen. Disfrutatu egiten zuen. Batik bat, Agurne alboan zeramanean, edo, hobeto esanda, Agurnek Aimar bere alboan eramaten zuenean.

Aimarrek zigorrak ezartzea zuen gustuko. Norbait ataka edo estualdi batean jartzen zuen “txantxaz” mozorroturiko zigor hauetako askotan, besteen begietara barregarri uztearren. Malezia gabeko ekintza irudi zezakeen, baina “gozamen inozente” honen eta lintxamendu baten arteko alde bakarra neurria baino ez da. Batak zein besteak pertsona aspertu eta gris berberak eragiten dituzte, aurrekoaren kontrako gaztiguak emozioren bat sorrarazi diezaion.

ERRAUTSAK

Gure kume hilen negarrek ez didate lo egiten uzten. Beste hildako guztiekin batera datoz, eskutik oraturik, pietaterik ez duten jainkoengandik ihesi. Ardotan itotzen ahalegindu eta, hala ere, musuger eginik, beti asmatzen dute, nola edo hala, norai edo mutiloietaraino ailegatzen.

Irribarre harroputzak errautsez beteriko imintzio tenkak baino ez direla ikusteak traganarru horretatik ateratzen nauen arte.

EZKERREKO IKASGAI SAKONAK

– Aita, zu noren alde zaude?

Aitaren albo banatan jesartzen ginen batzuetan iloba eta biok, hiru urteko diferentzia besterik ez geneukan ume mokoak, telebistak futbol partida eman bitartean.

– Aita, zu noren alde zaude?

– Bai, aitita, zuk noren alde egiten duzu?

Trankil-trankil begiratzen zigun bioi. Isilik. Isil-isilik. Behin eta berriro galdetzen genion, ume txikien berehalakotasun premiaz, segidan, eten barik, harik eta gure itxaron ezinak galderari behar besteko garrantzia eman ziola uste genuen arte.

Orduan, gauza naturala bailitzan, zera erantzuten zigun erantzun zuzena espero genuen ume bioi: “Ni beti ahulenaren alde”.

Tarte batez ez genuen jakiten zer erantzun, harik eta gure ezinegonak isiltasuna apurtu arte.

– Eta zein da ahulena?

Beti ahulenarekin. Bizia zuzentzen duen pentsamendu erraza. Ezkerreko ikasgai sakona.

ITZALA

Jungen aburuz, izakion arimaren parte iluna da itzala. Norbanakoen miseriak oro barnebiltzen dituen atal inkontzientea, nortasunaren alde negatiboa, “ni” kontzientea onartzeko gai ez dena.

Gure nortasunaren osagaitzat hartzea zail izaten zaigun hori guztia ei da itzala, besteengan ikusi eta gaitzesten duguna. Geure buruaz daukagun irudiarekin eta kanporantz islatu nahi dugun eitearekin bat ez datorrena.

Eta, hala ere, geure parte da itzal hori.

Onartu nahi ez duguna onartu beharrak gatazka sortzen omen digu barnean.

Jungen itzalaren teoria ez da Freuden inkontzientearen teoriaren parekoa. Itzalak daukan suntsipen ahalmen eta potentzia izugarria ei da, energia delako. Eta, energia denez gero, moldatu eta eralda daitekeelako. Suntsipena, beraz, sormen bihur daiteke.

Itzalarekin bat egiten ei dugu gure bizitzetan aldaketa premia azaltzen zaigunean. Esan barik doa, aldaketa premia hauek ez direla etortzen ez samur, ez

leun, ez apur; garratz, latz eta mikatz oldartzen zaiz-
kigu.

UMEEN BOTERETZEA

Ulertuko al duzue behingoz denok, zuek eta gu,
itsasontzi berean goazela?
Gure jabeak berberak direla,
soka berari korapilo berberez loturik gaudela?
Zera esan nahi dugu: zuek,
emakume guztiok, eta gu, ume guztiok.

CHRISTIANE ROCHEFORT

Arestian esan legez, boterea ez da berez gauza dongea, ahalmen hori zelan erabiltzen den da gakoa. Feministok ondo dakigu. Eta ondo dakigu geure burua boteretzea, gai sentitzea, indarra eskuratzea, lehenbiziko pausoa dela zapaltzen gaituen boterea borrokatu nahi badugu.

Gazteek pairatzen duten zapalketari aurre egiteko, hau da, helduen boterea borrokatzeko, euren buruak boteretzeari ekin behar diote. Berez zaila bada, umeen kasuan are zailagoa.

Infantia, latinez, “ahotsik ez daukana”. Infantea ez da hitz egiten ez dakiena, baizik eta jende aurrean hitz egiten ez duena, esateko daukana azalarazten ez

duena. Ordutik hona hori ez da aldatu: ahotsa lapurtu egiten zaie umeei.

Soziologiaren ikuspuntutik, infancia, enfance, infancy delakoa kulturalki eta historikoki eraikitako kondizio soziala da, botere harremanek ezaugarritzen dutena; sozialki eraikitako esparrua, alegia. Haurreria edo umeteria haurrek edo umeek osatzen duten talde soziala da.

Botere harremanak bereziki klase, genero edota arraza aldagaien arabera ikertuak izan diren bitartean, nahiko berria da adin aldagaiaren inguruan aztertzea. Haurtzaroa garapen biologikoaren ikuspegitik baino ez da izan hartua: pertsonak pertsona garatua izateko, hau da, heldua izateko, aurretiaz pasa beharreko aroa, urte tartea da haurtzaroa.

Umeak “heldu potentzialak” baino ez dira ikuspegi horretatik. Umeen etorkizuna da axola duena, euren ongizatea etorkizunaren arabera neurtzen da eta ez momentuko ongizatearen arabera. Etorkizuna da erreferentzia eta, hortaz, haurrak “pertsona proiektuak” dira, oraindik pertsona ez direnak.

Umeek, Manfred Liebelek dioenez, talde sozial moduan, “mutututako taldeen” ezaugarriak dauzkate: jendartean behe maila betetzen dute, zilegitasuna

kendu zaie eta onespenik ez dute izaten ("umekeria" mespretxuzko terminoa da, adibidez), ez daukate erabakitzeko ahalmenik ezta euren interes zuzeneko diren gai politiko, ekonomiko eta sozialetan eragiteko aukerarik ere.

Nazio Batuen Erakundeak umeak eskubide subjektu bihurtu bazituen ere, argi ikus daiteke hor datzan botere harremana: nagusiek, alde bakarrez, "emandako" eskubideak dira eta denak daude babesaren edota zaintzaren ikuspegitik eginda, edozein gai edo aferatan parte hartzea eta ahotsa izatea guztiz alboratzen den bitartean.

Etxean, sofan jesarrita, telebistan telefilm txarra: bikote bat banandu behar zen, alaba bi zeuzkaten. 10 eta 8 urtekoak. Amari galdetu nion ea zergatik ez zieten alabei galdetzen norekin bizi nahi zuten, hamar eta zortzi urte baitzeuzkaten zegoeneko. Amaren erantzuna "Ez, ez, ez, hamazortzi urte ez, hamar eta zortzi". Berba egiteko eskubiderik ez zeukaten, beraz. Uste dut nik ere zortzi urte inguru neuzkala orduan.

Umeen ahalduntzea eta parte hartzea estuki loturik daude. Izan ere, ahalduntzea ezinbestekoa da parte hartu ahal izateko eta ahotsa entzunarazteko. Eta hiru puntu dira funtsezkoak:

- Pentsamendu propio eta kritikoa izatea, aukeratu eta erabaki ahal izateko. Nagusiek ezin dituzte euren pentsamendu, aukera eta erabakiak inposatu.
- Iritzia emateko eta azaltzeko ahalmena izatea. Nagusiek ezin dituzte umeen iritziak gutxietsi edota zigortu.
- Koertzio egoerak identifikatu eta salatzea, izan eskolan, familian edo lagun artean.

Oso gutxira arte emakumeok egoera horretan edo geunden edo bagaude hainbat eta hainbat tokitan: gure pentsamenduak senarraren pentsamendu berberak izan behar dira; ezin dugu iritzi propiorik eman, eta zer esan koertzio eta bortxa egoerez.

Bestalde, jadanik umeak ez garenez gero, helduak izanda, ezertarako balio du lehen ginen umeak boteretzea? Zelan egin daiteke prozesu hori? Zelan boteretu ahal da jadanik existitzen ez den norbait?

EGIA (III)

“Verdades como puños”. Hamaika aldiz entzun eta esan izan dut gaztelerazko esaldi hori. Ukabil horiek borobil eta indartsu irudikatu izan ditut betidanik, egiak bezain indartsu eta borobil. Hala ere, geldirik irudikatzen nituen. Gaur arte.

Mugimenduan ulertzen baditugu, ukabilak eta, hortaz, egiak, ukabilkada bihurtzen dira. Egia esateko premia igartzen dugunean, beti izaten da norbaiten aurreko edo norbaiten kontrako egia. Beste baten gezurrari kontrajartzen zaion egia. Orduan, egia nori zuzentzen diogun, harexeri zuzentzen diogu ukabilkada.

Borobiltasuna eta sendotasuna proiektatu eta kolpe indartsuaren besteko mina sorrarazi ahal du, zuzen, masailezurrera.

Egiaren indar sinbolikoak, nahiko nuke pentsatu, momentu zehatz eta konkretu batean, tupustean eta ziplo, gezurrezko mundu honen zutabeak dardarka jar ditzakeela, ukabilkadaren indar fisikoak egingo lukeen legez.

GEZURRA (II)

“Gezurra iraultzaren kontra doa”. Hamaika bider esan izan dut “egia iraultzailea da” esaldiaren aldaera hau.

Leninek egiaren indarra zerabilen hipokrisia burgesaren aurrean.

Egia boteretsua izan daitekeela ez daukat zalantzarik, baina, praktikan, gezurra askoz boteretsuagoa da. Egiak ondorio positiboak izan ditzake. Ala ez. Kanpo zein barru baldintzen arabera. Baina gezurrak, bai ala bai, ondorio negatiboak ekarriko ditu.

Gezurra izan liteke helburu zehatz bat lortzeko biderik errazena. Eta helburua bide horren bitartez eskura daiteke. Baina ibilbidean gezurrak subjektuaren izaera bera aldarazten badu, zer nolako subjektua izango da aurrera begira? Zeren arabera bereiziko dira gezurrez erdietsi ahal diren helburuak eta ezin direnak?

Eta iraultzarik egin liteke gezurra nagusi izanik? Gauzak ezkutatu, gauzak erdizka kontatu, egia ez diren gauzak esan. Gezurra esaten duena konbentziturik dago besteentzat ere gezurra esatea ohikoa

dela. Denak elkarren mesfidati. Albokoari zeharka begiratu eta bere asmo ezkutuak igarri nahian pasatzen da denbora, engainu eta botere borroka amaigabean, benetako engainuak eta boterea beste nonbait borrokatu gabe.

Gezurraz ez dago ez kritika ez autokritikarik. Tirabirak eta barne gatazkak konpontzeko modu bakarra autokritika da. Baina, horrez gain, gehienetan ahazten da autokritika metodo kritiko dialektikoaren zabalpena ere badela, aurrera egin ahal izateko metodo eta praxia. Maok esaten zuenez, autokritikaren praktika kontzientea da besteengandik bereizten gaituen ezaugarria.

Baliteke iraultzan honezkero ez sinistea. Akaso jadanik ez dugu uste hainbestetan madarikatu ditugun bilur eta geziak irauli ahal direla. Iragan mota bi daude: etorkizuna prestatzen duen iragana eta iraun behar zuena baino luzeago irauten duena.

Baliteke baten batek pentsatzea batzuetan erreferentzia zaharrak erabiltzen ditudala. Baina iraganari muzin eginda zerbait guztiz berria sor daitekeela uste duena, oker historikoa egiteaz gain, akats historikoetan jausiko da ezinbestean.

Oraina ez da gauza berria, iraganaren berrikuspen eguneratua baino.

JABETZAZ (I)

Kantek hiru antsia edo gogo bizi (Süchte) aipatu zituen: jabetza antsia, botere edo dominaziorako antsia eta handigura antsia (Habsucht, Herrsucht, Ehrsucht).

Hiru antsia edo gogo bizi hauek animalietatik bereizten gaituzte. Ez dira desira edo premia fisiologikoak, ez dira bizi ahal izateko bete beharrekoak, baina denok eramaten ditugu geure baitan. Gogo hauek, nahi eta nahi ez, mundua mugiarazten dute.

Animalietatik bereizten gaituzte, besteak beste, giza taldean baino ez direlako sortzen eta ezin direlako ase. Interakzio horretan, beste pertsonak bitarteko huts moduan erabiltzera eraman gaitzakete.

Kanti jarraiki, hiru antsia hauek estuki loturik leudeke inperatibo kategorikoaren eta inperatibo praktikoaren harira filosofoak zioenarekin.

Inperatibo kategorikoa: zure ekintzak izan daitezela lege unibertsal bihurtzea nahiko zenukeen agindua-ren araberakoak.

Inperatibo praktikoa: zure ekintzetan gizakiak –zu zeu eta besteak– ez daitezela izan bitarteko hutsa, helburua ere izan daitezela.

Hortaz, beti izan behar gara helburutzat hartuak eta ez bitartekotzat. Zeren eta pertsonak ez baikara helburu subjektiboak –inori helburu baliagarri suerta gakizkiokeenak–; pertsonak helburu objektiboak gara, geure existentzia bere horretan helburua badelako.

Bestetik, hiru antsia horiek bultzatutako pertsonek ezin dituzte sekula beren premiak bete, daukaten edozein premia edukita ere, antsia inpultsoak berak biderkatuko baitu. Beraz, boterea ez da sekula nahikoa izango, botere gehiago lortzea beti delako posible eta, hortaz, *ad infinitum* egon liteke botere gehiagoren xerka. Gauza bera gertatzen da jabetzarekin: jabetza materialarekin, pertsonak ere materialtzat ulerturik. Eta beste horrenbeste handigurarekin.

Zenbat eta gehiago eduki, orduan eta askoz gehiago edukitzea izango da helburua, baina zer gertatuko da desjabetuak direnean?

JABETZAZ (II)

Aimarrek ez zuen Agurne maite, batzuetan kontrakoaz konbentziturik bazegoen ere. Aimarrek Agurne nahi zuen, Agurnerentzat pertsonarik bereziena bera izatea nahi zuen, bere atentzioa izan nahi zuen, beste guztiengandik berezituko lukeen harreman estuagoa nahi zuen, guztietatik bera aukeratua izatea nahi zuen.

Horregatik ausartu zen egun batean Agurneri musua ematen, Agurne ikutzen, Agurnerekin aferatxoa izaten. Boterea dastatu nahi zuelako. Aimarrek Alazne maite zuen edo, behintzat, horixe esaten zion bere buruari Agurne maite zuela bururatzen zitzaionean. Alaznek bai maite zuen Aimar eta Aimarrek bazekien Agurnek ez lukeela sekula maitatuko.

Agurnek ez zuen Anartz maite. Menderakuntza. Jabetza. Boterea. Horixe maite zuen. Agurneren ahoan mesedeak aginduak baino ez dira. Berak betetzea nahi duen eran beteko ez direla jakinda, zor bihurtzen dituenak. Zor txikiekin gogorarazten dio Anartzi ezin izango duela sekula zor eternala kitatu.

AURORA

Askotan joaten ginen elkarrekin eskolara. Bazkalostean, batez ere. Auzo berean bizi ginen eta aitak biok eroaten gintuen.

Atzeko ilaran baino atzerago jesartzen zuten Aurora. Hantxe zegoen jarria bere mahaia, azken ilaran baino gibelerago. Berarena bakar-bakarrik. Klasera etorri, egunero etortzen zen, baina ez ei zen ikaslea. Inork ez zuen berarengan ikaslerik ikusten, beste altzariekin batera, hutsune bat betetzen zuen zerbait baino.

Eskolako ume zein irakasleek ergela zela uste zuten, baina Aurora, eurak ez bezala, ez zen batere ergela. Ekina eta langilea baizik. Guztiz.

Aurorari umeentzako fitxak ematen zizkioten betetzeko, besteok beste ikasgai batzuk ikasten genituen bitartean. Eta irakasleek pentsatu baino lehenago amaitzen zituen beti. Han, atzen ilaran baino harago zegoen bere mahai bakartian. Ez zen sekula kexu. Bere lana egiten zuen, nahiz eta inork berarengan erreparatu ez.

Aurora ni baino nagusiagoa zen, handi eta gangartxoa. Ile iluna solte eramaten zuen, nahiz eta ama gakoekin atzera orrazten saiatzen zen, betaurreko lodien gainerantz ez jaustearren. Eskolara bidean eskutik helduta eramaten ninduen beti. Askoz txikiagoa nintzen eta. Jagon behar ninduen.

Auroraren adin fisikoa eta mentala ez zetozen bat, hori zen “arazo” bakarra. Maitekor eta maitagarria zen guztiz, besteek hori ikusteko paradarik izan nahi ez zuten arren. Denek begiratzen zioten higuin eta pena arteko begiradaz. Inork ez zuen Aurorarengan pertsonarik ikusten, nahiz eta eurak baino askoz pertsona osoagoa izan.

Batzuetan Aurorak hain estu besarkatzen ninduen, ezen mina ere ematen zidan. Baina nik ez nion sekula ezer esan. Neure min fisikoa nahiago nuen jasan, bere maitasun handia mindu baino.

EMAKUMEA IZATEN IKASTEN

Adierazgarria da norberaren amak behin baino gehiagotan erakustea, baita ahoz azaltzea ere, gizona izatea askoz hobea dela. Eta hori, bere horretan, egia esatea besterik ez bada ere, norberaren amari behin baino gehiagotan entzutea gizon izatea gurago zuela benetan da gauza iluna, azaren azpiko orriak baino ez direla kodifikatzen duten belarrientzat.

Ez gaitezen engaina, emakumea izatea ez da zorionekoa. Beltza izatea, pobrea izatea, langilea izatea, hego hemisferiokoa izatea, transa izatea, itsu edo gorra izatea... Badirudi biztanleriaren gehiengoa izatea ez dela zorionekoa.

Harrigarria izan daiteke, baina aitarengandik jaso nituen benetan baliagarriak suerta daitezkeen bestelako ikaskizun batzuk. Bat gogoratzen dut bereziki: gizon bati labana sartu behar banion, ez hartzeko arma pelikuletan egiten duten moduan, hau da, goitik apuntatzen eta parte zorrotza atzerantz. Labanak zuzen hartu behar dira, zorrotza gorantz, atzetik apur bat ezkutaturik eta inpultsoa bilatuz, eta sabel partera zuzendu. Goitik eginez gero, edozein gizonentzat

erraz izango litzateke labanaren ibilbidea eten eta eskutik kentzea. Sabelean egiten diren zauriak, bestalde, mingarriak ei dira oso; gainera, zorte apur batez, hor barruan dauden organo inportanteetako bat jo nezake. Irakaspen erabilgarria benetan. Orain arte erabili behar izan ez badut ere. Baina garrantzitsuena izan zen, hori jakinda, neure burua ataka horretan imajinaturik, boteretsu sentitu nintzela. Neure burua babesteko gai, beldurra uxatzeko jakinduria baten jabe. Telebistako nesken ahuldadearekin konparaturik, ni indartsua nintzen. Ezin izan nion aitari sekula esan autodefentsa feministako lehenbiziko ikaspena berak eman zidala oraindik ume mokoa nintzela.

Aitzitik, aitarentzat ez zen erraza erantzutea zergatik jausten ziren bidean arrisku batetik korrika egiten zuten pelikuletako neska guztiak. Erantzun egokirik topatu ez eta erantzunik gabe gelditu zen galdera, salako gortinetatik eskegita.

Amaren gutxiagotze ulergaitzak eta aitaren azalpenek zein azalpen falta adierazezinak munduan zerbait txarto zegoela argitu zidaten. Orduan ez nekien zer zen eta ezin nion izenik eman, baina, banekien nire generoarekin zerikusia bazeukala eta, zelanbait, gauzak erraz izango ez nituela iradokitzen zidan.

NAGORE

“Asko ligatzen zuen zure alabak?” epaimahaiko baten galdera Nagoreren amari.

Nagore, *besterik gabe*, akabatu izana ezin zuela ulertu adierazi zuen epaituaren aitak. Besterik gabe. Beste barik.

Izan ere, “zerbait gertatu behar izan zen Nagore hiltzeko, hori ez datorrelako mutilaren pertsonalitatearekin bat”, epaimahaiko beste batek esan zuenez.

Hil egingo nau.

Esaldi bakan hori. 112 telefonoan. Grabaturik. Gure buruetan betiko.

Nagore Laffage. 2008ko Sanferminak.

HIESA EDO PRINTZIPIOEN AHULDADEA

Rock Hudsonen heriotza telebistatik sartu zen etxera. 1985eko urria zen. Harrezkeroztik, gezur eta sasi-egien nahastea, gaixoen seinalatzea eta baztertzea. HIESak homosexualitatea eta drogak ei zekartzan berarekin batera. Ez omen zen gaixotasun unibertsala. Gripea ez bezala, bilatzen zutenak baino ez ziren gaixotzen. Aitortze hutsak eskala sozialeko azken postuetara bidali zituen egitera ausartu ziren gutxi haiek.

Laster bihurtu zen pandemia eta berau baino askoz arinago zabaldu zen beldurra. Tratamendurik ezak eta heriotza kondena seguruak psikosi kolektibo modukoa sortu zuten, erruak banatzen zituzten talde erlijioso eta kontserbadoreen laguntzaz eta morboa zein albiste txundigarriak bilatzen zituzten komunikabideen bultzadaz.

HIESak, gaixotzeaz gain, paria bihurtzen zituen –eta oraindik bihurtzen ditu– gaixoak. Berdin zen zein estatus zeukan, berdin zelako boterea zerabilen, ber-

din zein eskailera mailatan zegoen, HIESak hondora bidaltzen zuen egun batetik bestera.

Rock Hudson hil zen urte berean bota zuten Ryan White eskolatik. Urtebete geroago, Durangoko eskola batek gauza bera egin zion hiru urteko ume bati. Eztabaida kalean zegoen. Kalean eta etxean. Eguerdi batean, bazkaldu bitartean, nire eskolan birusa zeukan umerik egonez gero, eskolatik aterako nindukeela esan zion aitak amari.

Ea zergatik galdetu nuen, galdera baino, desadostasuna adierazten zuen doinuaz. Horrelako umerik egonez gero, banekien bere beldur egongo ez litzatekeen eta berarekin jolasteko, laguntzeko eta hitz egiteko prest legokeen norbait beste ezein umek baino gehiago beharko lukeela.

Ez nuen espero horrelakorik aitarengandik. Pertsona zuzentzat neukan. Nolabaiteko nazka sentitu nuen bazkari hartan, printzipioak teorian formulatzetik praktikara pasatzean zein arin aldatzen diren lehen aldiz egiaztatutakoan.

IHESEAN

Beti ihesean ibili izanaren sentsazioa bitxia da. Ihesean, aurrera, baina ez nonbaitetik edo norbaitengandik ihesi, ez beldurrez. Ihesean zerbaiten bila. Zerbait hori topatu ez den tokietatik ihesi, jadanik bizitakotik ihesi. Bila, beti bila. Asebeteko gaituen zerbaiten bila. Bizitzari zentzua emango dion zerbait. Eta ez dago arras asebetetzen gaituen ezer.

Bilatzen ez duena konformatzen den pertsona da. Erraza da konformatzea, baita itxoitea ere. Baina ihesean bizi denak badaki ez dakiela zer ari den topatzen, eta zera hori ez duela inoiz topatuko. Ez dago arrazoi zehatzik abiatzeko, horretara bultzatzen gaituen indar zehaztugabea baino.

Batzuetan pentsatzen dut zerbait topatzearren egiten dudala aurrera. Besteetan konturatzen naiz gauzak atzean uzteko eta atzera ez begiratzeko modua dela aurrera egitea. Beti aurrera, loturak oro atzean utzi, atzera ez begiratu, bizirauteko modu bakarra bailitzan, zelanbait, bizitzeko baino, bizirauteko premia banu bezala. Arrazonamendurik ez daukan ins-

tintua da: egin aurrera, egin aurrera, egin aurrera... Aurrera egin beharra.

Gerraren sarraskira berbaz ere itzuli ezin izan diren familietan horixe ikasten dugulakoan nago.

AINARA

– Alia ez zaigu gustatzen.

Lehen plateraren zain mahaian jarrita, elkarrizketa zaratatsuetan zeuden guztiek entzuteko moduan bota zuen Ainarak esaldi lapidarioa. Zurrumurrua isildu eta denek begiratu zieten Ainarari eta, seguruenik, horren aurretik komentario desegokia egina zuen Alaitzi. Alaitz berriro ere, Alaitz betiko moduan, Alaitz bere papera zein zen ulertu ezinik.

Mahaiko guztiek gaitzespen aurpegiz begiratzen ziotela karguturik, Alaitzek, atzera egin eta kikildu beharrean, itxurazko xalotasunez utzi zuen galdera airean:

– Baina, nik dakidala, ez duzu ezagutzen.

Alaitzek ere ez zuen ezagutzen eta ez zeukan arrazoi edo grina berezirik Aliaren alde jartzeko. Talde osoari errebelatzeko keinua izan zen, keinu txikia, baina zortzi milako baten ertz arriskutsuan kokatu zuena. Aliaren bekatua larria zen, Anartzek zigilu goria zeraman gainean, Agurneren erle eztenaz betiko markaturik.

– Eta zer? Alia ez zaigu gustatzen eta puntu.

Ainarak ez zuen beste azalpenik eman. Eman beharrik ez zegoelako edo, agian, arrazoiak emateko gai ez zelako.

Agurneren alboan jesarrita zegoen Aimarrek irribarre maltzurra zuzendu zion Alaitzi.

ALAZNE ETA AINARA

Ainara ez da andre oso azkarra. Lauzpabost orokorkeria nahikoak ditu bizitzan moldatzeko. Orokorkeria horiek, esan barik doa, beste nonbait edota beste norbaiti entzundakoak dira. Horrelako jendea ere gustuko du Agurnek. Gregarioak.

“Gregario” berba eskolan ikasi nuen, *Sociales* liburu urdin batetik. Ezagutu bai, baina izendatu ezin nuen jokamoldea behingoz adierazteko balio izan zidan.

Sekula beren buruari galderarik egingo ez dioten eta sekula markatutako gidoitik ateratzera ausartuko ez diren gregarioak beharrezkoak dira. Erabilgarriak.

Alazne ez da Ainara bezalakoa. Dirudien baino hobeto ulertzen ditu bere inguruan gertatzen direnak, ezkutuko arauak eta jarraibideak. Alazneren burutik inoiz edo behin toxikotasunetik aldentzea pasatu da. Baina Alaznek Aimar maite du.

SEXUALITATE IRAKASPENA

“Gizon guztiek gauza bakarra nahi dute”. Horixe izan zen amak emandako sexualitate irakaspen bakarra. Zeren eta “sexua” adierazi nahi zuen. Gizonengandik, hau da, sexutik, aldendu nahi ninduen. Gizonen gaineko ikuspegi horren arabera, gizon bat lortzeko –gizon bat lortzea beti delako helburua–, sexua behar da. Eta gizonen begietara erakargarria izateko edertasuna eta ahuldadea omen dira erabili beharrekoak, baita iheskortasuna ere.

Itzelezko paradoxa da hau: sexua gauza arriskutsua, zikina eta baztertu beharrekoa da eta, era berean, daukagun transakzio baliorik handiena. Gure hanka artean dagoena babestu behar dugu eta, aldi berean, eskaini behar dugu. Goxoki pozoitsua ei da hor daukaguna.

AMETSA

Herritik goaz, paseatzen. Beste herri bat da, alboko herria, baina alboko herriaren ezberdina. Dena da landa berdea harri horixkek osatzen dituzten bidexken alboetara. Han, urrunean, solo batean, mando eder bat. Soloan dago etzanik, horregatik uste dut mandoa dela, baina hain da iluna eta hain da handia, ezen zaldi beltza ematen baitu. Bidean aurrera egin dugu. Animalia dagoen tokira hurbildu gara. Mandoa hezur eta azala da. Gehixeago hurreratu eta samatik behera erdibiturik dagoela kargutu gara. Barru husturik dago, putreak eta bestelako sarraskijaleak handik ibiliak izan balira legez, baina ez da horrelakorik inondik ageri. Gehixeago gerturatu eta oraindik bizirik dagoela kargutu naiz. Arnasa estu-estu hartzen du, hagin luze-zabalak bistan, muturra oietan itsatsirik, listu faltan. Begiak zabal-zabalik dauzka, betazalak atzerantz desagerturik. Heriotza aurpegia da, oraindik bizirik badago ere.

Denok ikusi dugu. Bere sufrimenduaz denok gara jakitun. Baina ez dugu ezer egin bere sufrikarioa amai dadin. Eskubiderik ez dagoela esatera mugatu dira

besteak. Eskubiderik ez dagoela entzutera mugatu naiz ni. Mandoaren jabea madarikatu dute besteek. Mandoaren jabea madarikatu dut neure baitan.

Gaur gauean ez dut izerdirik bota. Atzo iluntzean egindako negarretan joan zait, *kontixu*, soberako ura.

ZALDI BELTZA

Zaldi beltza berriro. Zaldi beltzak natura sutsuaren izaera basatia irudikatzen duela irakurri ahal izan nuen Jungen libururen batean. Hain zuzen, Cirlotek, bere sinbolo hiztegiko “zaldi” sarreran, hala azaltzen du: Jungen ustez, gure alde magikoa, inkontzientearen intuizioa irudikatzen duela. Era berean, Paul Dielen aburuz ere, zaldiak desira grinatsuak, instintuak irudikatzen dituela kontatzen digu. Eta Mircea Eliaderentzat animalia khitoniko-funerarioak direla.

Eliadek berak *Ideia eta sinesmen erlijiosoen historia* liburuan kontatzen digu zaldiak eta zaldunak gizarteetan (ez jendarteetan, gizonezkoen artean baizik), ideologia eta erritualetan biziki garrantzitsuak izan direla. Zaldiak hainbatetan agertzen dira: xamanak azterturik, hauek egiten zituzten zaldien sakrifizioak ekartzen ditu; Erroman gaudela, urriaren 15ean Marteri eskaintzen zitzaizkion zaldiak; etruskoak aipatu eta hildakoak bestaldera zaldi gainean heltzen zirela uste zutela kontatzen digu...

Zaldi hilak dira horiek guztiak. Nire zaldi fantasmagoriko lakoak.

ISILPENA (III)

Sentimenduak isiltzea, ez adieraztea, ohitura aldagaitz bihurtu ahal da. Sentimenduak isiltzeko ohitura iraunkortu eta bizimodu bilakatzera hel daiteke, ohitura guztiekin gertatu bezala. Baina sentimenduak ezkutatzetik sentimenduak desagerraraztera pasa liteke? Ba al dago momentu zehatzik horretarako? Urteetan neurtu ahal da? Hamar urte, hogei urte, berrogei urte? Ba al dago bestelako neurketa unitaterik?

Baliteke kanporantz isiltzen den horrek gure baitan entzun ezinezko zaratotsa osatzea, bere desagerpen arriskuaren aurrean irauli eta altxatzen dena. Leherketa bat suertatzen denean, sorburua bilatzeari ekiten diogu beti, baina arrazoi argirik gabekoa bada, azaldu ezinezkoa bada, sentimendu gehiegi pilatzearen erruz izan bada? Edo, aitzitik, sentimenduak ez desagertzeko balizko borrokaren emaitza izan bada?

Erantzun diskurtsiboak ez dira zertan beti berbazkoak izan, ekintzez erantzun daiteke, baita isilpenaz ere. Edozelan, berba eta ekintza ez bezala, zaila da isilpena noiz hasten eta noiz amaitzen den zehaztea.

Isilpena *continuum-a* da, pentsamenduan guztiz lausotzen dena, zeren eta pentsamendua, diskurtsoa ez bezala, beti baitago hizketan.

Horregatik, ageriko isilpenak berbaz adierazten den barru pentsamendu forma ere badauka. Bestela esanda, erantzuna kanpotik isilunea bada ere, buru barruan erantzun horrek pentsamendu forma hartua du. Baina pentsamendua etengabea denez, erantzun diskurtsiboa ez bezala, gelditu barik borborrean dabiltzan pentsamenduekin nahasten da erantzuna litzatekeena. Hasiera eta amaierarik gabeko erantzuna da, baina izan bada, amalgama eran izan arren.

Isilezko erantzun horrek artikulatutako berbak behar zituen, baina pentsamenduaren gatibu gelditu da. Eta arinago edo beranduago irteera bilatuko du. Baina orduan, amalgama hartatik ezin bereizirik, zentzu diskurtsiboa galtzen du, ulertezin suertatzen zaio entzuleari. Baita askatzea lortu duen esatariari ere.

GERRAZ (I)

Erbesteratutako siriarrengatik jende onak errukia sentitzen du, hainbesteko errukia ezen euretako askok aspaldiko *domund*-ak ordezkatu dituzten SMSak bidaltzen baitituzte. Sasoi bat egon zen zeinean Kosovoko albaniar erbesteratuen errukia ere sentitzen zuten, orduan SMS kontzientzia garbitzaile merkeak existitzen ez baziren ere.

19 urte iragan dira Kosovoko 92.000 albaniar errefuxiatu beste herrialde batzuetara ebakuatu zituztenetik. Estatu espainolak armadaren boeing hegazkinak ere erabili zituen bere lurraldera hainbat eramateko. Kosovoko serbiar errefuxiaturik, halere, ez zen inon ageri, ez zen inon aipatu, ez ei zen existitzen. 19 urte iragan dira NATOk, Solana espainiar ministro ohia buru, Jugoslavia bonbardatu zuenetik, 19 urte Kosovo gainean pobretutako uranioz hamar milaka bonba bota zituenetik. Baina hori 1999an izan zen. Orain, mundu guztiak dakienez, Kosovoko albaniar guztiak delitu eta lapurreta egileak baino ez dira, mafiari lo-

tuak. Horrelaxe dio, behintzat, 2018. urtean 1999ko prentsa berberak.

GERRAZ (II)

Siriar aita galderak erantzuten ari da kamera aurrean. Orain dauden kanpamentura heldu arteko bide latzaz lehenengo eta kanpamentuko bizi latzaz gero. Neketik baino askoz harago erakusten duten betazpi ilunak.

Seme-alabei gertatutako guztia kontatuko ote dien, gerran sufritutako guztia azalduko ote dien, Europara helduta zelan tratatu dituzten gogoratuko ote dien galdetu dio kazetariak. Aitak ezetz. Umeak babestu nahi dituela, ez dutela zertan horretaz guztiaz jabetu, orain inportanteena aurrera egitea dela erantzun dio. Mutiko bi eta neskato bat dauzka, hirurak txikiak. Olgetan daude aitaren aldamenean.

Edonork emango luke erantzun hori eta edonor ahaleginduko litzateke horretan, norberarentzat, bikotekidearentzat eta umeentzat onena dela sinisturik.

Eraikinekin batera biziak ere mila zatitan apurtu direnean, bizi horiek gizatasunaz guztiz biluztu direnean, bizi indarra geratzen da. Indar hori aurrera egitekoa dela uste izaten dugu, hondartxoak berrosatzeko parada hartu ahal izateko baino.

Egin aurrera, egin aurrera, egin aurrera... aurrera egin beharra ikasiko dute. Aurrera egin beharra ikasi genuen.

GERRAZ (III)

Bonbardatutako hiriak ez dira harrezkero hiriak.
Umeak jolasten ziren parkeetan orain ez da ezer.
Ez da ezer orain erosketak egiten ziren dendetan.

Fabrikara goizean joateko eta arratsaldean fabrikatik itzultzeko biderik ez da.
Fabrikarik eta zer fabrikatu ez dagoen legez.

Hutsuneak baino ez.
Deslekuak.

Bonbardatu orduko ezagutu zituztenentzat baino ez ziren lekuak hiri horiek.

Telebistan deslekuak baino ezin ditugu guk ikusi. Albistegietatik ezagutzen dugun bakarra da. Berez ez dena, guretzat existitzen den bakarra da. Desagertutako hiri horiek guretzat baino ez dira, ikusten ditugun hutsuneak betidaniko presentzia direla begitantzen zaigu eta.

GAIXOTUTAKO FAMILIAK

Gaixotasuna zenbaitetan belaunaldiz belaunaldi transmititzen da. Herentzia gaitzak izaten dira hauek. Gen kontuak egoten dira tartean eta, gaixotasun oso larriak izan gabe ere, edozein familiatan pasa liteke kolesterola, hipertentsioa edota diabetesa belaunaldiz belaunaldi.

Gurean hemofilia daukagu. Hiru ahizpok eramaileak gara, aita hemofilikoa zenez gero. Hala ere, eramaileak izan arren, andreak garenez, ez dugu gaixotasuna garatu. Hiruron artean seme bakarraz erditu gara eta, zorionez, gaixotasuna jasotzen ez duen %50 horren artean dago.

Belaunaldiz belaunaldi heredatzen diren bestelako gaitz batzuk, hala ere, ez dira batere ezagunak. Traumaren belaunaldi arteko transmisioaz ez da apenas ezer entzuten.

Trauma berba grekotik dator eta “zauria” esan nahi du. Gerrak eta frankismoak gurean utzi zuten zauriak astiro baina etengabean odolusten ari garen hemofiliko bihurtu gaitu.

Traumatizatutako amamak ama traumatizatu zuen; traumatizatuko amak bere ondorengoak. Herentzia krudela da hori: ezin kudeatutako mina beste baten kontra bortxaz eta erruki barik botatzea. Aita baten maitasun faltaz hazitako aitak bihotza erretzen zion pena ezin izan zuen guztiz ezkutatu.

Baina traumarik handiena isilpena da.

Gurasoek gerraoste osoa jasan behar izan zuten. Suposatzen dut eurek gertatutakoaz galdetu egiten zutela, horretaz berbarik egiten ez dela ikasi zuten arte. Arin eta agudo ikasi zuten. Seguru. Baina guri ez digute sekula esan behar izan ez galdetzeko. Zerbait existitzen ez bada, ez dago horretaz hitz egiteko premiarik. Inoiz galdetu al nuen zergatik ez neukan aititarik? Gomutan ez daukat, behintzat. Inork ez zuen sekula euren existentziaz aipamenik egiten. Esaldi bakar bat amamaren ahotik: “Horiexek akatu zuten zure aitita”. Fraga telebistan. Inork ez zuen beste hitzik ahoskatu.

Existitzen ez den hori, enkistaturik egon liteke?

Isilpena ez dator bera bakarrik, emozioen ezkutaketak lagunduta baizik.

Isilpenak historia lapurtu digu. Han-hemenka batzen joan behar izan gara gure historiaren zatiak. Eta isilpena, azkenik, zelan edo halan, tarteka apurtu denean ere, kontatu diren apurrak kontatu direnean, beste batenak balira bezala kontatu dira. Emozio barik. Sentipen barik.

Holokaustoak sortu dituen belaunaldiz belaunaldiko traumak aztertu izan ditu Yael Danieli psikologo juduak. Besteak beste, isilpenak jokatzen duen paperaz hausnartu du. Isilpenaren konspirazio modukoa atzeman du: errua, lotsa eta iragana gogoratu nahi ez. Ez dakit ze hausnarketa egingo lukeen Danielik gure kasuan, horretaz guztiaz gain, berrogei urtez isilpena gordetzea hil ala bizikoa izan denean. Eta hurrengo berrogei urteetan ahanztura inposatu digutenean. 80 urteko isilune derrigortua bizimodu bihurtu digute.

Lau familia tipo proposatzen ditu: borrokalariak, biktimak, anestesikoak eta zapaltzaileenak.

Emakume familia da nire amaren aldekoa, emakume borrokalariena, bizirauteko hagin eta atzoskol borrokatu zirenak. Anestesikoa ere bai. Anestesia laztura kontaezinari gailentzeko modu bakarra baita, hil ala biziko ebakuntzetan legez.

Umeek sasoi batez genealogian atzera egitea dute gustuko. Orduan, euren abizenak bata bestearen segidan joaten dira errenkan ipintzen, abizen bakoitza zein amama edo aititarena den bereizten. Ezin dut imajinatu zenbateko mina zekarkion momentu horrek aitari, zelan azaldu nire aititaren abizenik ez neukanik. Isilpena.

Noren semea zen ez nuen aitarengandik jakin. Barceló jauntxoaren seme bastarta. Barceló jauntxoaren iloba bastarta ni. Bai, Barceló.

Suposatzen dut aitarik gabe hazten den umearen pena, heldua denean, aitagatik sentitzen duen lotsak baino ezin duela gainditu. Amak kontatzen du inoiz edo behin, dirudun batekiko loturak zelanbaiteko handitasuna ematen digulakoan. Miseriaren traumak honelako pentsamenduak sortzen ditu, nonbait.

DESERRIA (I)

Deserriaz asko irakurri dut. Berba ezaguna da deserria, askotan jasoa eta askotan esana. Gaztelerazko baliokidea, hiztegiaren arabera, “destierro” ei da. Hau ez da hain erabilia nire berbategian. Hizkuntzatik hizkuntzara zerbait itzultzen denean ez da inoiz gauza bera ehuneko ehunean, ezta hitz soilak ere. Deserria eta destierroa ez dira gauza bera, gauza ia berdinak baino.

Destierro: norbaitek beste norbait bere lurretatik bota izanaren ekintzak dauka pisurik handiena. Hortaz, bota izan duten pertsonaren egoerari ekintza gauzatu duenaren krudelkeria gailentzen zaio. Momentuko kondena nagusitzen zait buruan.

Deserria: norbait, hainbat arrazoi medio, herri barik gelditu izanagatiko malenkonia nabarmentzen zait. Ekintzaren osteko egoera petrala gailentzen zait. Kondena horretan bizitzeak hartzen du garrantzia.

Ez dakit nire gurasoek “*destierro*” moduan bizi izan zuten euren herrietatik alde egin eta mila kilometrotara bizimodua topatzera behartuta egotea. Baina nire bizia deserri huts legez bizi izan dut.

Nortasun bakarra, baratzeak zementuz bete ahala, fabriketan eta aireko ketzan bilatu eta, saiatu arren, aurkitzen ez zuen herri berri batekoa naiz. Herri sortu berria, kaleak, etxeak, plazak, jendea. Ezen herri berri horretako jendea ere berria baitzen herrian. Herri sortu berria ez da inoren sorburua.

Uda hurbiltzen zenean opor hilabeteak nora pasatzera joango ziren hasten ziren eskolako lagunak elkarri kontatzen. Esaldi bat eskolako hormetan jo, errebotatu eta eskegita gelditzen zen irailera arte: “A mi pueblo”. Denek zeukaten herria, euren herritzat hartzen zuten sorburua. Denek, nik izan ezik. Ez nuen behiz eta gariz betetako herri baten falta nabaritzen, sorburua baino. Nondik zatozen, nor zaren ezagutzeko jarraitu beharreko lerro ikusezina delako.

Familia batzuetan ez dago hari ikusezin horri eusteko modurik edo gogorik edo aukerarik. Familia batzuetan iraganari lotzen gaituen kontakizunaren berbak ere mila kilometrotara eten dira.

Gerra zibilaren zauriak osatu behar direla diote batzuek, estali nahi dituztenen aurrean. Baina zeintzuk dira zauri horiek? Hildako gurasoen eta seme-alaben arteko harreman galduan hasi eta amaitzen dira?

Familia gaixoak dira gureak. Mina, beldurra, lotsa atzean uzteko premia nagusitu zen euretan, horixe baitzen mina, beldurra, lotsa sendatzeko ezagutzen zuten edo utzi zieten modu bakarra. Familia gaixoak, beti aurrera begiratzera behartuak, iragana eta, berarekin batera, historia, hildakoekin batera lurperatua. Kontakizunik ez, galderarik ez. Sentimendurik ere ez. Dena galarazota. Handik eta hemendik zatitxoak berreskuratu eta josi behar dira, norberaren historia izara fin eta zuloduna baino ez dela konturatzearekin batera.

Nork osatu ahal du isilpenaren zauria? Nork osatu ahal du historia barik jaio eta hazi izana? Familia gaixoak dira gureak, belaunaldi batek hurrengoari eskutik eskura ezer emateko ez dutenak, belaunaldiz belaunaldi zeharkatzen gaituzten zauriak ez badira.

Beste batzuena zen herrian jaio eta haztea da deserria. Betirako *trenak ekarrinikoa* izatea da deserria. Historia barik nondik natorren eta historia barik nongoa naizen neure burua topatu ezinik sentitzea da deserria niretzat.

SALATARIAK

“Ez izan salataria, mundu honetako gauzarik eta txarrena salatariak dira”, “mundu honetako okerretan okerrenak salatariak dira”...

Ez nuen ulertzen zergatik beste umeek ez zeukaten ikaspen hau ikasita. Gauza serioa zen, serio hartu beharrekoa, serio esaten zuen aitak. Serio begiratzen nien ume salatariei, nahiz eta ni ez izan salaturikoa.

Nagusitan ulertu nuen.

Hitz egiteko beldurra, jokatzeko beldurra, pentsatzeko beldurra, hitz bitan, izateko beldurra, egunez egun, eguneko ordu, minutu eta segundo guztietan, salatariek eragiten zuten. Ezin fidatu inorekin, ezin jakin inguruko inor, ezagun zein ezezaguna, edo ezustean pasatzen zen edozein, ala elkarrizketa bateko pare bat berba entzuten zituen norbait, handik ezerezera kuartelera kontatzera joango ote zen.

Francok edo Guardia Zibilak ez zuten jendea zuzenean isilpenera kondenatu, salatariek baino. Salatariak izan ziren hainbat eta hainbat heriotzaren, hainbat eta hainbat kartzela urteren, hainbat eta hainbat

torturaren, hainbat eta hainbat enplegu galeraren, hainbat eta hainbat zigor krudelen errudun zuzenak.

Juan García Duránek zioenez, “sasoi honek eman duen narrasti pozoitsuena salataria da, komisarietatik sabela arrastaka dabilena lupu eta adurra zabaltzen”.

Ez dira falta horrelakoak gure inguruetan, gure lanetan, gure kaleetan. Ez dakit oraingo sasoian okerretan okerrenak diren, baina txomin belarra baino gaiztoagoak, oilaskoaren lepoko haragia baino txarragoak, potrozorrien azkura baino ernegagarriagoak badira.

DESERRIA (II)

Deserriratutakook okupatu genuen herri hau. Gu, belarri motzak, gu, koreanoak, gu, mantxurrianoak. “Nongoa zara?” galdetzen zidaten eta tarte luze batez “Bilbokoa” erantzun izan nuen. Ez nuen “Barakaldokoa” esan nahi, zorioneko kanta berriro ez entzutearren. Jon Sarasuak, barakaldarra izanez gero, ondo jakingo luke gure “bisabueloek” ez zekitela euskararik.

Deserritik deserrira etorri ginen. Edonon gaudela, deserrian bizi garelako. Txikitako kanta, joko, esamolde eta atsotitz bako hizkuntzaz bizi gara. Horrelakoxea da gure euskara, hizkuntza mutilatua. Gure ama hizkuntza ere ez da hizkuntza, beste inork ulertzen ez duen idiolektoa baino. Horrelakoxea da gure erdara, gaztelera estandarretik urrun. Apurka-apurka gastatuz, arrailduz eta ahaztuz doazen berba kuttunak dira, beste berba batzuek haien tokia sekula bete ezingo dutela jakinik.

Ingurukoek abertzale eta espainol bereizten duten herrian eskuma eta ezker banatutako mundu ikuskeraz bizitzea ere bada deserria.

DESLEKUAN

Basoan arbola jausiz gero, baina inguruan entzun dezakeen inor egon ezean, zaratarik egiten ote duen galdetzen den moduan, bestea barik, nor naiz ni? akaso banaiz?

Izan banaiz, cogito kartesiarra eztabaidatzeari ekiten ez diodan bitartean. Baina eta ni existitzen ez naizen sasoi eta tokian bazaude, non nago ni? non naiz ni? Deslekuan? Deslekura behartzen nauzu. Deslekuan banago, egon banago, egotez, baina izatez? Nor naiz ni deslekuan nagoen bitartean? Zer naiz ni behin deslekutua?

Inor begira ez badago, berdin da galdetzea iretargia existitzen den ala ez, baiezko zein ezezko hipotesia ezin izango litzatekeelako sekula frogatu.

Berriro lekutuko nauen momentuaren zain ematen ditut orduak. Eta orduak pasaturik, zure presentzia hutsak ez nau lekutzen, deslekutik ekarri-erakartzeko leku egiten ez didazun heinean.

BETIRAKO
AGUR ERREPIKATUAK

Alde egiten duzunean, betirako egiten duzu alde.
Goizetik sumatzen dut bihotza
betirako agurra prestatzen.
Hain hotz, ezen erre egiten baitit.

Laga, laga egiten nauzu,
betirako lagatzen nauzu,
tarte batez ni existituko ez naizela
jakin badakidalako.

Eta ni kantsaturik.
Betirako agurrek arima kantsatu ahal dute,
lurpean legez.
Tarte batez existitu ez naizen lurpeko moduan.
Hotza.

MENDEKU ARRAROAK

Haserreak janda zegoen. Barrukiak jaten zizkion harra hazten eta kumeak egiten igartzen zuen sabelean. Anartz joan orduko ez berbarik, ez musurik, ez ikuturik. Atea ixten entzun bezain pronto, Anartzek alde egitea ekidin ezin izanagatiko frustrazioa gorroto bizi bihurtu zen.

Azkenik itzuli zen Anartz etxera. Atearen sarrailan giltzak sartzen entzun zituen. Buelta bat, bigarren buelta, atearen banden kirrinka, itxieraren zarata. Alia ez zen altxatu. Egongelara sartu zen. Alia ez zen altxatu. Egunon bat atzean. Sofatik alboz begiratu, baina Alia ez zen altxatu. Anartzen pausoak entzun zituen komunerantz pasabidean aurrera egiten. Alia haserre zegoen, samatik gora zapore mikatza igotzen zitzaion. Gibela masailezur artean haginkada bortitzez mastekatzen balego legez altxatu zen.

Lehenengo prakak eta kuleroak segidan. Ortozik gelditu zen egongelan, pasabiderantz begira, itxaroten. Kamiseta erantzi zuen komuneko atea entzutearekin batera. Biluzik gelditu zen, zutunik, zain. Pasabidetik Anartzen urratsak hurbiltzen entzun zituen. Bu-

larrak are gehiago borobildu eta gogortu zitzaizkion, titiburuetatik momentu batetik bestera apuntatu eta disparatuko luketen proiektilen baten zain.

Anartzek ulertzen ez zuten begiez ikusi zuen urrunean gertatzen ari zena. Hurreratu eta esku bat pausatu zion izter bien artean, isilean. Aliak ahoa zabaldu zuen, baina berba egiteko ordez, Anartzen ezpainetan haginka egiteko. Segidan musukatu zuen, eskuez ipurmasail bana estutu bitartean. Gogor musukatu zuen. Sakon. Amorruz. Gerrikotik helduta, logelara arte erakarri zuen, tiraka, harik eta ohe parean geldiarazi, buelta eman eta sakada batez koltxoi gainera etzanarazi zuen arte.

Larrua jo baino, larrua kendu nahi zion, mugimendu bakoitzaz erraietara arte sartu eta organo guztiak erauzi, bilatu, topatu, zanpatu eta ustiatu. Sentitzen zuen min guztia sentiarazi nahi zion, su eta erremin osoa orgasmo batean kontzentratu eta Anartzi eztandarazi.

ETXEA

Betidanik egin dit atentzioa euskarak erdarazko “home”/”house” edo “hogar”/”casa” moduko bikoterik ez izateak. Dena da “etxea”, bai eraikina, bai eta eraikin barruko babes eta berotasuna ere.

Umeek gehien marrazten duten elementuetako bat da etxea. Egiten den etxearen irudikapenean, esaten dutenez, fatxada norberaren ageriko irudiari dagokio, gure pertsonalitateaz ematen dugun itxura da. Identifikazio horretan, fatxada-kanpoaldeaz gain, barruko atalen disposizioa ere bat ei dator: ganbara eta goiko pisua, burua eta pentsamendua; sotoa, inkontzientea eta instintuak.

Gaztelerazko “hogar” berbak etxeari zein sutondoari egin ahal dio erreferentzia. Ezkaratza etxearen bilgunea izaten zen, egongelak eta berogailuak asmatu baino lehenago. Beheko suaren inguruan biltzen ziren familiak. Izan ere, berotasun konpartituak bihurtzen du etxea etxe. Baina euskaraz “sutondoa” etxeko partea da, ez du “etxe” esan nahi.

Alaznek Anartzen etxean dutxa bat hartua zuela bota zion egun batean. Ez zuen indartu dutxa hartzea-

rena, horrek garrantzirik ez zeukan eta, etxea Anartzena besterik ez zela baino. Egongelan Aliaren etxeko zapatilak zeuden, komuna Aliaren krema, ile lehorgailu, xanpu eta koloniaz beterik zegoen, esekitako arroparen erdia baino gehiago Aliarena zen. Hala ere, “Anartzen etxea” zen, Anartzena baino ez. Anartzen bizitzan Alia zerbait arrotz eta puntuala bailitzan.

Alaznek ondo daki gauzak azaltzen.

SYLVIA PLATH

Isiltzeko ausardia
Aho itxiaren ausardia, duen artilleriarekin!
Lerro isil eta arrosa hori, zizare hori, eguzkitara atseden hartzen.
Disko beltzak ditu atzean, suminduraren diskoak,
eta zeruaren sumindura, haren garun marraduna.
Diskoak biraka dabiltza, entzun ditzaten eskatzen dute,

sasikumekeria kontakizunez kargatuta, badaudenez.
Sasikumekeriak, usadioak, desertzio eta bikoizkeriak,
orratza bere ildoari fidel,
zilarrezko piztia bi kanoi ilunen artean,
[...]
Hala jarraitzen dute biraka garunaren diskoek, kanoien ahoek bezala.
Antzinako aihotz hura dago gero, mihia,
nekaezina, morea. Moztu egin behar al da?
Bederatzi buztan ditu, arriskutsua da.
Eta soinua behin martxan hastean airetik larrutzen duena.
[...]

(Itzulpena: Iñigo Astiz)

Ez da erraza isiltzea. Ezpainak gelditu ahal dira, josi ere egin ahal dira. Eguneroko lorpena izan daiteke, hala ere; ganoraz trebatuz gero. Baina burua astintzen duen hori isilarazteak ez du biraka dabilena geldiarazten. Jira eta bueltaka irauten du, gerraren burrunba eta harrabots osoa barnebildu ahala. Mihiak behar du topatu jositako ezpainen artetik askabidea. Baina mihia askatzea arriskutsua da. Horregatik behar da kemena isiltzeko, gordetzeko. Behin askaturik, trumoi, ekaitz eta uholde guztiek galarrena ekarri badakartelako.

Isildu behar, edozelan, edozein eratan, ahal den moduan. Beti isildu. Isildu babesteko. Isildu minik ez jasateko. Isildu, isildu, isildu ezin den arte.

Idatzi, idatzi, idatzi. Sylviak uste zuen idazteak biziari aurre egiteko ahalmena eman ziezaiokeela. Eta idatzi, asko idatzi zuen. Baina, antza, ez zekien literaturak ezin gaituela bizitzatik salbatu, are gutxiago, biziaren zulo ilunetik irten baino, bertan sakontzeko arraun endaia bada.

Aurrera egiten saiatu zen. Bere kabuz. Ez zuen nahi inork bere bizimodua aldatzea beraren erruaga-

tik. Ez zuen inor molestatu nahi. Inor ez molestatzeko hezi gaituzte. Bizitza perfektua zeukala idatzi zion behin eta berriro amari. Azken gutunean, denentzako goraintziak eman aurretik, zera kontatu zion, sasoi latz horiei aurre egiten lagunduko zion mediku batengana joateko asmoa zeukala.

Zortzi egun geroago ez zen beste gutunik heldu. Sylviaren izekoaren etxera ilobaren heriotzaren berri zekarren telegrama ailegatu zen, ordea. Sylviaren gizon ohiak bidali zuen. Labe barruan burua sartu, gasa zabaldu eta bertan ito zen. Hogeita hamar urte baino ez zeuzkan.

“Isilik ederrago zaude”.

Behin eta berriz errepikatu.

Behin eta berriz entzun, harik eta sinistu arte.

ISILPENA (IV)

Zu egiak entzuteak beldurtzen zaitu.
Ni egiak esateak mintzen nau.

Isilpean gurago. Denok.
Isilik daude bizartegietako labanak.
Isilik daude harrapaturiko arrainak.
Isilik basamortuko harriak.
Isilik harresi eta murruak.

IXO!

Kargatutako armak isil dira.

Isiluneak
isiltasun kondena apurtu du,
pilatu ditudan zauriak
urratuak ditu.
Isilpean,
inork ez entzun arren,
mugimendu telurikoak ez dira eteten.
Eta gero

lurrikara.
Presio eltzeak
bonbak ere izan daitezke.

Eztandak beldurtzen zaitu zu.
Eztandari eskerrak ematen dizkiot nik.

ESKOLA

Eskolaurrea Montessori izeneko zentro batean egin nuen. Kasualitateak eroan ninduen gure kalean bertan zegoen ikastetxe horretara.

Maria Montessori 1870ean jaio zen, Chiaravallen, Italian. Bere irakaskuntza metodoa mundu osoan ezagutu zen eta, hainbat urte iragan ostean, oraindik bada iraultzailea eta erabilia. Montessorik ez zuen ezer “asmatu”, ez zuen bere “jakinduria” inposatu; umeengandik jaso eta umeek erakutsi zioten ikasteko modua sistematizatu baino ez zuen egin.

Indartsu defendatzen zituen umeak, baita irakatsi ahal izateko lehenbiziko pausoa euren eskubideak errespetatzea zela ere. Indar horrekin azaldu zuen honako hau, besteak beste, 1946an Londonen emandako hitzaldietan:

> “Beste gerra bat egin dugu demokraziaren alde, baina munduaren zati handiena gobernatzen duen demokrazia ez da umeentzat existitzen. Inoiz entzun al diogu inori inon esaten umeek demokrazia hau, justizia hau profitatu

behar dutela? Zibilizazioa helduentzat dago egina. Borrokak pizterakoan, gerrak irabazitakoan, jendeak eskubideez hitz egiten du: gizonaren eskubideak, baldintza hobeak, bizimodu hobea, baina bizimodu hobea helduentzat, ez umeentzat. Umeak ez dira sekula kontuan hartzen. Gizakitzat pertsona helduak baino ez dira hartzen, eta hauxe da okerra, nire ustez. Bakarrik al da gizona gizaki eta herritar?”.

1936ko “Umea. Haurtzaroaren sekretua” liburua pasarte ederrez beterik dago. Eskarmentu propioak, adibideak, metodoaren lerro nagusiak eta maisu-maistra onak izateko bidea azaltzen dizkigu:

“Ez zaio metodoari erreparatzen. Umearen arima ikusten da, oztopo barik, bere naturaren arabera jokatzen duena. Deskubritu ditugun umeen gaitasunak bizitzari dagozkio, ez dira heziketa metodo baten emaitza. Hala ere, argi dago heziketak ekintza natural hauetan eragin dezakeela; heziketaren helburua gaitasun hauek babestea eta sustatzea da, gaitasunok gara daitezen”.

“Suminak eta harrokeriak bat egiten dute egoera konplexua eratzeko, eta tirania deitzen den forma zehatz, lasai eta errespetagarria hartzen dute. Tiraniak ez du eztabaidarik onartzen; onartutako autoritatearen gotorleku erasoezinean kokatzen du pertsona. Helduak umea menperatzen du daukan eskubide naturalaren arabera, bakarrik eta heldua delako. Subiranotasun irmo eta kontsakratuaren forma bat erasotzea da eskubide hau eztabaidatzea. Komunitate primitiboan tiranoa Jaungoikoaren mandataria bazen, umearentzat heldua jaungoikoa bera da, eta bere inguruan ez dago eztabaida posiblerik. Obeditu dezakeena, hau da, umea, isildu egin behar da. Euren buruaren azterketa da gure metodoak maisumaistrei exijitzen dien prestakuntza. Tiraniari uko egitea”.

Errespetuan eta duintasun pertsonalean oinarritutako irakaskuntza da hau, irakasle orojakile batek edukiak inposatu ordez, ikasle bakoitzaren gaitasunak aske uzten dituena. Izan ere, askatasun eta poztasun

osoak gogoratzen ditut sasoi haietatik. Eta, batez ere, ikasteko grina.

Zoritxarrez, eskolaurrea amaitu ostean, mojen eskolan hartu ninduten preso. Eta Montessorik berak ondo azaldu bezala:

> “Mehatxuzko ahots zorrotza zen, beste kide ezezagun guztiekin batera sartzera deitzen ziona, zigortu beharreko izaki gaiztoen masa moduan. ‘Ai, zorigaiztokook, arima gaizkinok!’ Eta nora joan beharko da? Agintzen duen horrek nahi duen tokira. Klasifikatua izan da honezkero eta norbaitek Minosena egingo du, gorputzaren aldean buztana kiribildurik, eta arima galduari ze bazterretara zuzendu behar den seinalatuko dio: I.era, II.era, III.era edo IV.era, zigor eternalak pairatzen diren tokira, ihesbiderik gabe. Hara, bere helmugara sartu denean, maistrak atea zarratuko du. Ordutik aurrera bera izango da jabe eta nagusia, arima talde horri agintzen, lekuko eta kontrol barik”.

Montessorirengana kasualitateak eroan ninduen. Mojengana, amaren handinahia uniformea jantzita asetzeak.

LEKUKOAK

“Zangoak estutu eta hor barruan ito behar izan zintudan jaio orduko”. Berba hauen bitartez amak esplizituki adierazi baino askoz lehenago, sumatzen nuen nik horrelako zerbait.

Horrelaxe neukan onarturik, natural, batere estutasun barik, eta honelaxe azaltzen nuen, batere tremendismorik gabe: hobe zela ni jaio izan ez banintz. Denok irabaziko genukeen, baita neuk ere. Esan barik doa eskolako umeek ez zituztela inondik inora ulertu azalpen trankil horiek. Horretaz berba egiten ez denez, askok uste dute ume txikiek ez dakitela zer den suizidioa, baina bai, jakin badakite, horretaz berba egiten ez dela dakiten bezain ondo. Neskato haietako bat neure buruaz beste egiteaz ari ote nintzen galdetzera ausartu zen. Ez zen hori kontua. Denontzako probetxugarriagoa izango zatekeen egoera deskribatzera eta onartzera mugatzen ari nintzen, besterik gabe.

Berba latz horien bitartez, ahalik eta minik handiena egin nahi izan zidan amak.

Handik denbora batera, bere amak, hau da, gure amamak, berari egindakoak entzunarazten zizkidala, “badakizu amak zer esan zidan behin?” galdetu ostean, niri aurpegiratutako desio krudel berbera irten zitzaion ahotik.

Belaunaldiz belaunaldi pasatzen diren min eta mendekuzko lekukoak omen.

HELDUEN BOTEREAZ

Neskato eredugarriaz:
Neskato bat panpina birekin ari da olgetan
eta errieta egiten die geldi egon daitezen.
Berak ere panpina dirudi, hain da polita eta
hain da ona, eta ez duelako inor molestatzen.
J.H. FIGUEIRAren *Adelante* liburutik
EDUARDO GALEANOk jasoa,
“La cultura del terror-3” izenburupean

Boterea eta jabetza estuki loturik daude. Jabetzak, berez, pertsonak gauza bihurtzen ditu, hau da, subjektua objektu egiten du. Objektu guztiekin gertatu legez, hauei ere funtzio bat ematen zaie edo, bestela esanda, instrumentalizatu egiten dira.

Erabakimena lapurtzea erarik eraginkorrena da pertsonak objektu bihurtzeko eta boterea nork daukan sentiarazteko. Interes kontrajarriak direnean jokoan, boterea daukanaren interesa nagusitzeko modua da erabakiak parte bakar batek hartzea; baina, beste zenbaitetan, bestearen gainetik erabakitzen da, bere iritziaren kontra eta bere interesen kontra, egin ahal

dela erakuste hutsagatik, boterea nork daukan argi uzteagatik, alegia.

Autoritate arbitrarioa izaten da hau, arrazoietan oinarritzen ez dena eta, hortaz, apetaz baino ezin daitekeena azaldu. Bidegabekeria agerikoa da honelakoetan eta, objektu bihurtuta ere, oraindino subjektua subjektu denez, erantzuna eman lezake. Autoritate arbitrarioak askotan bilatzen du erantzun hori, bere burua legitimatu ahal izateko. Erantzuna, berez, gaztigua merezi duen jokabidetzat hartua izaten da eta hala egoten da inplizituki –zein esplizituki– hitzartua. Erantzunak, beraz, autoritatea erabiltzeko "arrazoi" bat ematen du: hasierako ordena apeta hutsa zen, ordena arbitrarioa; hala ere, arbitrarietateari erantzuna eman ostean, ordena gaztigura desbideratzen da.

Umeek pertsona izaera ukaturik izaten dute, gurasoak euren "jabeak" diren heinean eta erabakitzeko eskubidea lapurturik daukaten neurrian.

Familia eta eskola dira umeen zapalkuntza tresna nagusienak. Baina zapalkuntza ezkutua izateaz gain, sozialki onartua eta, areago, goraipatua ere bada, egiten den guztia umeen "onerako" egiten omen delako. Zapalkuntza pairatzen dutenik ere ezin esan, "maitasunaren izenean" egiten baita. "Kexarazten hau,

maite hau” edo “ongi nahi hauenak, negar eragingo dik/n”. Emakumeok ere badakigu zer den gurekin “maitasunaren izenean” aritzea.

Tratu txarrak jorratzen direnean, tratu txar fisikoetan zentratzen dira adituak normalean. Baina tratu txar psikologikoek ere zauri sakonak uzten dituzte, nahiz eta ikusezinak izan. Umeen kasuan ere, abusu fisiko edo sexualen gainean izaten dira ikerketa gehienak, psikologikoak –mutur-muturrekoak ez badira– zailak baitira atzematen.

Destaina, susmo txar, mespretxu eta umiliazio giroan bizitzeak sorrarazten duen estresa eta beldurra azaleratzea lortzen ari gara emakumeok, nork bere bakardadean jasatetik arazo sozial bihurtzeko ahaleginetan gabiltza. Baina zelan eta noiz lortu behar dute umeek?

Behin helduak garenean, pairatutako bortxa modu anitzak birproduzitu ohi ditugu. Katea ez eteteko gako garrantzitsu bat “barkamena” delakoan nago. Barkamena eta ulermena eskatzen zaizkigu nagusiak garenean. Gurasoekiko maitasuna sentitzea exijitzen zaigu, gaitzespen sozialaren arriskupean. Baina barkamena esaten denean, oro har, ez al da ahaztura esan

nahi? Behin ahazturik, nork bermatuko du errepikatu-ko ez dela?

AMETSA

Teilatu zabal batean nago. Hormigoizkoa da, laua. Ume bat daukat besoetan. Arriskuan gaude. Ez, arriskuan nago. Baina ez jausteko arriskuan. Bestelako arrisku bat da, arrisku zehaztugabea, baina, halere, bizia.

Umeari begiratu diot. Nire aho berdina du. Umea ez da nirea, baina nirea da. Nirea da, nire berdina. Gorantz altxatu du burua eta irribarre egin dit. Nire begiak, nire ilea, nire ahoa. Baina ez da nirea. Ez naiz ni beraz erditu. Beste ama batena da. Jakin badakit. Baina nirea da.

Kendu nahi didate. Ez diet emango, ez didate besoetatik erauziko. Nire umea da, neu maite nau. Teilatu zabalean gaude. Urte bi inguru dauzka. Ihes egin behar dugu. Badakite non gauden. Kendu nahi didate. Estu hartzen dut arnasa. Ez zait apenas biriketara heltzen. Umea salbatu behar dut. Ez. Neure burua salbatu behar dut. Ez da nire umea, baina nire berdina da.

ISILIK ETA GELDI

Isilik eta geldi, oso isilik eta geldi, ahalik eta isilen eta geldien, inor ez balego bezala. Ez da inor nire presentziaz kargutuko. Ez dit inork oihurik egingo, ez kontra etorriko. Isilik, isil-isilik. Geldi, geldi-geldirik. Ia desagertu arte.

Mahai azpian, egongelako bazterrean, belaunak paparraren kontra, zerraldoa bezain zurrun, horma eta liburutegi artean.

Liburuetan idatziriko hitzak isildutako berben tokian.

BELDURRA

Ikara nonahi dago. Jaiotzearekin batera ikara sentitzen dugu. Ume txiki-txikiek ez dute negar egiten popan emandako txaloak egiten dien minagatik, baizik eta egoera ezezagun horrek sorrarazten dien ikara deskribaezinagatik.

Ikara sentitzen duen pertsonak erabakitzen du non topatu nahi duen, edo ikara bakoitzak erabakitzen du zeintzuk pertsonak aukeratuko dituen.

Kanpoko elementuak suerta litezke beldurgarri. Animaliak, kasu: armiarmak edo bestelako zomorroak; usoak eta hegaztiak oro har; txakurrak edota katuak. Edo askoz zehaztugabeagoak izan daitezke: lau hormen segurtasunetik at egotea; lau hormen barruko itolarria; hegan egitea; hiltzea.

Baina beste zenbaitetan ikara ez dago kanpoko elementuen menpe; ikara geure barruak eragiten du. Eta horixe da ikararik beldurgarriena. Norbera izan daitekeenari edo bihur litekeenari beldurra. Zer egin lezakete obsesioek pertsona batekin? Zoramenera eroan dezakete pertsona bat? Noiz uzten zaio pertsona izateari? Zer bihur gaitzakete amorruak, gorrotoak,

erneguak? Gizaki izaera galdu ahal da? Ze momentutan?

Norberaren barruko beldurra hobekien islatzen duen azpigeneroa zonbiena da. Patxadaz aztertu ezean, zonbiak astiroago edo arinago mugitzen diren munstroak baino ez dira, aspaldikoek garunak eta modernoagoek edozein barruki jaten duten munstroak. Baina zonbiak ez dira munstro arrotzak, munstro bihurtu diren pertsonak baizik. Gu geu gara. Biktima izatetik borrero izatera pasatu gara momentu batetik bestera. Beldurrik handiena sorrarazten digun horixe bera bilakatu gaitezke bat-batean.

Pertsonen barru izaeraren metafora handia baino ez da zonbien azpigeneroa. Munduaren ordena sotila sustengatzen duten fundamentu eta oinarri apurrak erori eta desager daitezke. Orduan bizirauteko ahalegin izerditsua baino ez da geratzen. Inguruan dena da arrisku, albokoa ere etsai. Hil ala biziko egoerak amorruz betetako munstro basati bilakatzen gaitu. Mugako egoerak munstro bihurtu ahal gaitu. Noiz arte iraun dezake mugako egoera batek? Noiz arte pertsona izateari utzi baino lehen?

Munstroen kontra Iuzaro borrokatzen denean, norbera munstro bihurtzeko arrisku bizia dago. Begirada

leizean luze eta sakon ipiniz gero, azkenean leizea norberaren barruan sartzen da.

MILA GAU ETA BAT GEHIAGO

Hitler txiki eta beltzaranak “arraza arioa” goraipatzen zuen bezala, Francoren eskoletan errege godoak errezitatzen ziren. Godoak eta bisigodoak leinu berezia, omen, eta espainolak leinu horren ondorengoak, antza.

Eta zelebrea da zelan nagusitzen zaion arrazakeria inperio eta leinu nobleziaren gogoari. Bainua ezagutzen ez ei zuten godo eta bisigodoak, hau da, hiru mende eskaseko etorkin barbaroak nahiago, omeiatarrak baino. Al-Andalusek penintsulan zortzi mendez iraun bazuen ere.

Ezin izango dut inoiz burutik kendu Aznar, ardoak erdi txolinduta, moroek ez diotela inoiz konkistagatik barkamenik eskatu esaka. Bai, penintsulan batzuok Al-Andaluseko geneak dauzkagu, baina argi dago bandaloetatik ere nahiko geratzen direla.

Omeiatarren kalifaldia munduak inoiz ikusia zuen inperiorik handiena izan zen. Bagdad, Islamabad, Damasko, Samarkanda, Isfahan... jauregi distiratsuak,

marfila eta brontzea, kupula erraldoiak eta gorantz biribiltzen ziren formak, lorategi eta fruta arbolak nonahi, itsasoa baino azulagoa zen urdina eta urre kolorea, zerura altxatzen ziren minareteak, zokoetako espezia usain sarkorra eta oihalik finenak azalak laztantzen. Oraindik egiten dit gogoak ipuin horietara bidaia.

Dutxan, gogorapen horiexek iradoki nahi dituen xaboia ikusten dut goizero. Sentsualitate eta misterioz beteriko bainua izango dela egiten dit zin, benetako argan olioa gorputz biluzian igurtziko banu bezala. Potoan balizko hiri bat, marrazkiak ere esaten du gezurra, baina. Bagdad edo Islamabad hildako hirien eraikin suntsituak ez ei dira marketinerako onuragarriak.

Mila gau eta bat gehiago liburukotearen orrialdeetan egiten nuen ihes. Amaierarik gabekoa iruditzen zitzaidan, ipuin bat besteari kateaturik. Irudirik ez, egokitutako bertsiorik ez; letrak, hitzak eta esaldiak elkarren segidan, hori besterik ez. Eta hori nahikoa zen.

Pertsiako antzinako liburuan oinarriturik dagoen arren, bilduma egin zuen arabiarrari zor diot deskribapen bakoitzean, ipuin bakoitzean, kontakizun bakoitzean, Al-Andalus ere irudikatu ahal izatea. Inguratzen gintuen zeru grisa bizitzaren kontingentzia baino ez

zela amesten nuen eta, mundu posible horretan egon arren, beste mundu posible batean, Al-Andalusen, bestelako zeru aukera bat izango nukeela. Azuleju landu eta koloredunak, fabriketako ketzaren partez.

Al-Andalusen, alfajor, granada, altramuz, alkatxofa, berenjena eta azeitunak jaten, etxean bezala. Eta, etxean bezala, *mortero* batean barik, *almirez* batean almendrak txikitzen. Babutxak, sultanak, txilabak, zimitarrak... zer ziren ez genuen eskolan edota liburuetan ikasi, etxean baino. Ahotik irristatu bezain pronto, berbek ere hara eramaten ninduten: *alcanfor, mojama, alcayata, mameluco, alhaja, jarana*...

“Laztantxu” edo “maittia” barik, *reina mora* edota *mora de la morería* izan gara beti.

San Francisco kalean behin ijito batek zera esan zion lagunari albotik pasatu nintzenean *“mira qué ojos, parece una mora”.* Harrigarriki, jaio bezain pronto, erizainaren ahotik entzun nituen lehenbiziko hitzak *“mira qué gitanilla tan guapa”* izan ei ziren.

NORBERAREN BARRUTIK AT

Inguruko guztia arrotz. Kaleak, seinaleak, autoak, pertsonak, zebrabideak... benetakoak ez balira bezala, errealitatea irudikatu nahiko lukeen errealitate birtualean banengo bezala. Norbera ere birtuala balitz bezala. Hankak, eskuak, besoak, pentsamenduak, dena arrotza.

Izakia izan banintzela lehenengo aldiz konturatu nintzenean antzera sentitu naiz gaur. Kale bat zeharkatzen ari nintzen, aitaren eskutik helduta. Eta bat-batean ezer ez zen ezer. Neure buruaren kontzientzia hartu, biziaren automatismoa lipar batez eten eta, automatismo hori gabe, bizia amildegia, amildegi hutsa, besterik ez zela ikusi nuen.

Munduaren arroztasuna neure buruarekiko arroztasuna ordezkatzera etorri zen aspaldi. Habia biguna-goa da, norberaren identitatearen xerka abiatzea baino.

Antzeko sentsazioa izan da gaurko egun osoan, baita erosketak egin bitartean ere. Nire eskuek apaletatik hartu eta otzarara sartzen zuten produktu bakoitza benetan existituko ez balitz bezala, neure eskuak

ere nireak ez balira legez; buruak agintzen dituen pauso automatikoak egin baino, indar arraro batek mugituko banindu bezala. Nire barrutik at, barru hori zein den oraindik ez dakidala.

ZOROAK

Telebistatik ematen dituzten Estatu Batuetako pelikula eta serieetako zoroak, zoro-zoroak dira, benetan eta egiatan. Aurpegia ikusi bezain pronto, jakin badakigu. Eta jakin badakigu pelikulak aurrera egin ahala seguruenik norbait hilko dutela edo, behintzat, eta poliziak ekidin ezean, norbait hiltzeko ahaleginak egin egingo dituztela.

“Uste al duzu zoro nagoela?” galdetu dio zoro horietako batek bere psikiatrari. “Ez, kreatiboa zarela uste dut”. Esan barik doa, seriearen argumentuak hala eskatuta, zoroak hainbat lagun akabatuak zituela hogeigarren minuturako.

Egun batzuk lehenago medikuarengandik erantzun oso antzekoa jaso izanak zer pentsa eman zidan. “Ume imajinatiboa zinela uste dut” erantzun zidan psikologoak. Ni lasaitzeko moduko erantzuna, ni lasaitzeko eta pentsamendu ezkorretatik urruntzeko, antza.

Ez zuen sinistu benetan norbait hiltzea burutik pasa zitzaidanik; ez zuen sinistu hain ume txikia izanda, koartadarik beharko ez nuela jakitun banintzela; ez zuen sinistu ez egitearen arrazoi bakarra zera izan

zela, arrakasta-porrot kalkulua egin eta, indar fisikoaren faltagatik, emaitza porrot argia izango zela deliberatu nuela.

Munstrokeriaren bat egiten duen hori munstrotzat jotzen dugu. Arrakasta ziurtaturik izanez gero, nork ez luke munstrokeriaren bat egingo? Zer da munstrokeria? Eta nor ez da munstroa?

Lauzpabost urteko ume hark bazekien balkoitik behera bultza egiteko ezintasun fisikoa zela oztopo bakarra; hilketa besteen begietara suizidioa izango zatekeen, zuzen, galderarik gabe, inork ez zukeelako inolaz ere pentsatuko ume koletadun, zintzo eta begi berdedun harengan, umezurtz gelditu izanak sorraraziko ei ziokeen penagatik ez balitz.

Indarra irabazten nuen erritmo berean, koartada hura ezerezten joan zenez gero, ume imajinatiboa nintzela esango dugu.

NO SABEMOS DIVIDIR

Eskolako laugarren maila, bederatzi urte. Beste 39 neskato gehiago klasean. Maistrak norberarengan erreparatzeko aukera berrogeiren arteko bakarra izan arren, gorputza uzkur, aukera bat egon badagoela jakinda. Edozein izen entzunda ere, aulkian salto, edozein berba ozen entzun ostean, aulkian salto, edozein zarata dela ere, aulkian salto.

– Sonia, arbelera! –hiru Sonietatik neuri dagokidala dioen atzamar akusatzaileak seinalaturik.

Aulkitik altxatu eta pasabidetik aurrera egin dut, oinak astiro, arrastaka, pausorik egin ezingo balute bezala. “Irakasleek orain ezin dituzte ikasleak jo”, “irakasleek orain ezin dituzte ikasleak jo”... behin eta berriro errepikatzen diot neure buruari maistrarengana hurbildu bitartean.

Arbelean zatiketa bat. Zatiketa erraza. Ikarak ez dit uzten ezer idazten, ez dit uzten ezer egiten, ez dit uzten ezer pentsatzen. Klariona eskuan ezin naiz mugitu.

Maistrak ileetatik hartu eta zazpi bider segidan kolpatu dit burua arbelaren kontra, silaba bakoitzaren erritmora: “¡NO - SA - BE - MOS - DI - VI - DIR!”.

Begoña zeukan izena, bosgarren mailakoak beza-laxe. Azken honek, takoi altuen gainean eta soberako kiloak praka bakeroetan estu-estuturik, eraztun han-diaz egunero koskorrekoak banatzen disfrutatzen zuen. Ez dut bere aurpegia ondo gogoratzen, urte osoa burua makurturik eman nuen eta.

AKUSAZIO FALTSUAK

Egunez egun jolasa galarazten zuen etxerako lan pilaketa ohitura zen bezala, udan ere –gure probetxurako, aisiaren eta norberarentzako denbora propioaren bekatutik aldentzeko– irakasgai bakoitzaren egiteko zerrenda luzeaz betetzen genuen motxila. Egiteko horiek guztiak hurrengo kurtsoaren hasieran eman behar genizkien irakasleei, gure lana bete genuela egiazta zezaten. Era berean, egiteko horietatik gehien-gehienak zuzendu barik botatzen zituzten zakarrontzira, Nagiaren Bekatu Kapitala ez baitzen irakasle eta mojengan pentsaturik ezarri. Hala ere, hustasun intelektuala lantzen zuen eskola hartako *anni horribilietan* inoiz edo behin irudimena airera askatzeko aukera ere aurki zitekeen. Horietako bat Hizkuntza eta Literatura ikasgaian izan genuen.

Zazpigarren kurtsoan erromantizismoa ikasi genuenez, kondaira bat idatzi behar izan genuen Becquerren *Rimas y leyendas* obraren estilora. Gustura egon nintzen istorioa asmatzen, berbak aukeratzen, esaldien erritmoa zaintzen... Harro eman nion irakasleari lana eskura eta, zergatik ez esan, nik egindako

lana ona zela berretsiko zuen aprobazioaren zain egon nintzen hurrengo egunetan.

Azkenik heldu zen eguna. Ohitura zuen bezala, irakaslea banan-banan joan zen notak ozen esaten klase osoaren aurrean, alfabetikoki. Gómezen atzean, González. “Suspentsoa”.

Arrazoia: kopiatu izana.

Pulpitutik epai hotza. Togarik ez zuen behar. Frogarik ere ez.

Ez nuen ezer esan. Ez eskolan, ez etxean. Eskolan ezer esatea alferrikakoa zatekeen. Irakasleak ez zeukan nire kontrako frogarik, baina nik neure alde frogatu ezinezkoa zen egia baino ez neukan. Egia eta egia hori entzunarazteko boteretik guztiz aldentzen nindu-ten hamaika urte. Etxean lotsagatik. Ez suspentsoak ematen zidan lotsa, baizik eta sinistua izan ez izanak sorrarazten zidan ahalkea.

Ez dut kondaira hartatik askorik gogoratzen, salbu eta protagonistak, amaierako klimaxean, zeharkatu beharreko atea. Detaile guztiz irudikatu nuen neure buruan ebanozko ate hura. Oraindik ikus dezaket. Handitasuna, dotorezia eta gurutzatzeak ekarriko lukeen amaiera zirraragarria iradokitzen zuten berba konkretu, landu eta misteriotsuz deskribatu nuen.

Horrexegatik zen ebanozkoa. Amaiera beltza iragartzen zuelako. Epaile jaunak arrazoiak omen zeuzkan: hamaika urteko ze umek daki ebanoa zer den eta, are gehiago, zeren metafora den.

HIRIA

Labartza herrian ez da sekula ezer pasatzen. Denbora, akaso. Baina denbora hain da astiro pasatzen, ezen zaila izaten baita horren kargu hartzea. Kontrakoa dirudien arren, Hirian ere ez da askoz arinagoa izaten denboraren igarotzea. Agian, inguruan mugitzen diren auto, autobus, tranbia, tren eta oinezkoen abiadurak denboraren igaroa ere kutsatzen duela ematen du batzuetan.

Hirian lasterrago mugitzekotan, inbidiak, amarruak, iruzurrak eta azpikeriak ibiltzen dira azkarrago, euren burua besteena baino bizkorragotzat daukaten uzkurren sasi-balentriaz.

Hala ere, Hirian, ezer sortzen ez denez, ortuariak lurretik, kasu, ezinezkoa izaten da denboraz benetan konturatzea: supermerkatuetan ez da ezer jaiotzen, ezta, erosleon bistara behintzat, hiltzen edo urdintzen ere. Hortaz, Hirikoek uste dute euren balizko loria ere ez dela denboraz lizunduko.

HIERON I.a, TIRANOA

Xenofontek Hieron I.aren eta Simonides poetaren arteko elkarrizketa luzea dakar bere obran. Hasierako ataletan tiranoaren bizimodua ez dela pentsa litekeen bezain ona erantzuten dihardu Hieronek. Honen ostean, Simonidesek agintari ona izateko erak azaltzen dizkio: boterea zelan erabili, halakoa izango delako herriaren eta Hieronen beraren bizimodua.

Esan bezala, Hieronek tiranoek dauzkaten kezkak eta buruhausteak plazaratzen ditu. Ondo ei daki horretaz, tirano bihurtu baino lehenago, gizon arrunta zenez gero. Halako batean, zera azaltzen dio Simonidesi: tiranoak gai direla, beste guztiak bezala, gizon ausartak, jakintsuak eta justuak bereizteko, baina, hala ere, miretsi beharrean, euren beldur direla. Ausarten beldur dira, askatasunaren izenean zerbaitetan ausart daitezkeelako; jakintsuen beldur dira, euren kontra zerbait asma dezaketelako; justuen beldur dira, herriak haien atzetik joatea erabaki dezakeelako. Hortaz, beldur honek menperaturik, baliodun gizon hauek baztertuz gero, bidegabeak, ergelak eta esklabo arima daukatenak baino ez zaizkio gelditzen tiranoari,

hauek menperatzeko errazak eta arazorik ekarriko ez dizkiotenak baitira. Hieron I.a jakitun da bere inguruan horrelako gizonak besterik ez direnez, patu benetan zitala dela tiranoena.

Harrigarria da, hainbeste mende pasa ostean, euren bizia besteen erabilpenean oinarritzen duten hainbatek horrelako argitasunik ez izatea. Harrigarria da adimena zein puntutaraino lauso dezaketen laudorio, konplazentzia eta onespen etengabeek. Bidegabe, ergel eta esklaboen fideltasuna eta lausenguak faltsu eta ezdeusak direla konturatu ohi dira, berandu baina: bakarrik gelditu direla egiaztatu behar izan dute euren gaztelu eta dorreak harea hutsa zirela kargutzeko.

AMETSA

Andoni ospitalean dago. Ohean. Gaixorik. Ohe alboan aulki bat. Ni bertan, jesarrita, gau eta egun. Ez dut jaten. Ez daukat jateko gogorik. Ez dut lorik egiten, harik eta Andoni loak hartzen duen arte. Eskutik helduta daukat. Atzamarrak ile artean sartu eta astiro laztandu diot burua.

Gelaren bestaldean zarraturik dagoen atea bat-batean zabaldu da. Inork ez du jo. Burua harantz biratu dut. Hanka mehe bik barrura egin dute. Burua altxatu dut. Gorputz borobil txiki txongil bati eusten dioten oilo hankak dira.

Aulkitik altxatu naiz. Hutsik dagoen ate alboko ohe partera hura ailegatu orduko, neu heldu natzaio parera. Nirekin pasabidera irteteko esan eta nire aurretik sakatu dut kanporantz. Atea itxi dut, tinko eta sarkor begiratzen diot. Atearen danbatekoa entzutearekin batera, buelta eman du, eta buelta ematearekin batera, atea zarratu berri duen eskuma zabaldu eta zaplazteko zaratatsuaz markatu diot aurpegia. Isilik. Geldi. Zer gertatu ote den bere buruari galdetuko balio bezala. Gorritzen hasi zaio ezkerreko masaila.

Gorri-gorri. Erreakzionatzeko, ezer egiteko, ezer esateko denborarik utzi gabe, lepoa eman eta gelara sartu naiz berriro.

Gaur ere izerdi plotan esnatu naiz. Berandura arte egin dut lo, halere.

Indarra, jadanik berbarik ez daukan horrek erabiltzen duela esan ohi da. Baina eta indarrak jadanik berba larregi egin duen inor behingoz berba barik uzteko balio duenean?

MIYÓ VESTRINI (I)

AZENARIO BIRRINDUA

Aurreneko suizidioa bakarra da.
Beti galdetzen dizute ea istripu bat izan zen
edo hiltzeko asmo sendoa.
Tutu bat pasatzen dizute sudurretik,
indarrez,
min eman dezan
eta ondokoa ez aztoratzen ikas dezazun.
Heriotza-berez-irtenbide-bakarra-iruditzen-zaitzaizula
azaltzen hasten zarenean
edo zure-senarra-eta-zure-familia-izorratzeko
egiten duzula,
bizkarra eman dizute dagoeneko
eta zure azken afaria daraman
tutu gardena begiratzen ari dira.
Fideo edo arroz txinatarra ote den egin dute apustu.
Guardiako medikuak bereari eusten dio:
azenario birrindua da.
Nazka, dio ezpain lodiko erizainak.
Amorratuta bidali ninduten handik,

batek ere ez zuelako apustua irabazi.
Seruma azkar jaitsi zen
eta hamar minututan,
etxean nintzen berriro.
Ez zen negar egiteko espaziorik izan,
ezta hotza edo beldurra sentitzeko tarterik ere.
Jendea ez da heriotzaz arduratzen gehiegizko maitasunagatik.
Umeen gauzak,
diote,
umeak egunero suizidatuko balira bezala.
Hammetten orrialde zehatza bilatu nuen:
ez dut inoiz zure bizitzari buruzko hitzik esango
liburu batean ere,
hori egitea ekidin badezaket.

Heriotza eta mina. Maitemina askotan. Gehiegitan.

Vestriniren poesiak, zuzen eta intentsoa izan arren, daukan indar guztia daukala ere, ezin izan du Atlantikoa zeharkatu. Gezurra dirudi, berbetatik kanpora bortitz salto egiten duen andreak inprimitutako orrialderik ez izatea munduko bazter honetan. Iraultza urratuak Miyórenak, bortxatuak, burrunbadan dato-

rren ekaitza, aizkorakadaz ebakitzen diren sentimenduak, laban zorrotzak baino zorrotzago mozten duen aizto moztua... Poemak, borrokalariaren koraza bakarra direnean, gogor eta latzak behar dira izan. Ez dira babeslekua, oskola baino.

Amorrua eta ihesbidea. Ihesean beti. 1991n oinazea amaitu zen arte. Antsiolitikoen gaindosia. Behingoz eta betiko askabidea.

Eta ispilua, norberaren irudia ispiluan. Ispiluak ez du gure kanpoko itxura islatzen. Ispilua bihotz muinetara arte sartzeko gai da, belztasunean atzaparrez arakatzen duen herensuge bihurtzeko kapaza da. Norberaren isla mastekatu eta aurpegira botatzen digu, adurretan blai, higuin keinuaz. Ispiluaren barruko ispiluen irudiak milaka eta bakarra dira, milaka zatitan krakatutako emakumea bezala.

AMETSA

Miyó Vestriniren liburuak aurkitu ditut azkenik. Ez da Hirian izan, beste hiri batean baino, nire gusturako zetak lar aurreraturik ahoskatzen dituzten hirian. Beste andre bat dago nirekin. Andreok bete behar dugun guztia gorpuzten du honek: beldurtia, lotsatia, zolia, xaloa, adeitsua... Ez da berez horrelakoa eta jakin badaki. Dudatan hasi da bere papera egiten ote duen edo, bizi osoan horrela jokatuz gero, bera bere paper bihurtu ote den. Edozer dela ere, kantsaturik dago.

Liburu denda barrura lagundu nau. Urduri nago, liburuak aurkitu izanagatik emozionaturik. Kamisetaren beso bat altxatu eta ileak zelan laztu zaizkidan erakutsi diot. Ez nau ulertu. Poema guztiak biltzen dituen liburua eta prosa osoa batzen duena erosi ditut. Vestriniren argazkia azalean: begi jausia betaurreko lodien atzean.

Irten ostean, lauzan jesarri gara, elkarren ondoan. Liburuak eman dizkiot, berak irakur ditzan. Gainetik begiratu eta poesia zabarkeriaz edota zakarkeriaz idazten duela esan dit. Ez diot ondo ulertu, baina zau-

ritasunez eta zabaltasunez idazten duela erantzun diot.

Beldur naiz liburuak bueltatuko ote dizkidan. Bakarrik utzi dut. Hondartzara joan naiz, entzungailuak belarrietan.

Yo para qué las quiero
todas las palabras,
si todo lo que sueño
está en las entrañas.

Eta inoiz baino urrunago dagoen itsasertzera jo dut.

Y ahora me pregunto a punto de decirte ná
si no estaré ya en otra parte,
si vivo en un mundo dentro de una realidad
que no me corresponde.

HERRIRATURIK

Euskara gure territorio libre bakarra dela dio Sarrionandiak. Ez dakit euskara nire territorio librea den, baina bai nire herri bakarra. Berbetan herriratu nintzen eta berbek eman zidaten herria.

Lehen hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzaren jabekuntza prozesuak ezberdinak dira. Beldur naiz nagusia naizenean euskara, bizitzan zehar ikasten diren beste kontu batzuekin batera, gaixotasunak ezabatuko ote didan; beldur naiz, euskara galduta, ni neu eta nire bizi osoa ere galduko ote garen, ni euskaraz naizelako eta erdaraz ez naizelako ni edo, behintzat, ni osorik.

Deserria gogorarazten zidaten ama hizkuntza defendatu behar zela zioten haiek.
Beste ama hizkuntza batez ari ziren, ez nireaz. Euskaldun osoa ez banintz legez. Eta hala sentitzen dut zenbaitetan, datuak emandakoan, abizenek nolabait bekatu originala salatuko balute bezala.

CIGA Galiziako sindikatuko kide batek euren Biltzar Nagusian esan zidanez, ez ei daukat euskal itxurarik. Fisonomista ona da gizona. Euskal emaztea zuen eta

hainbat urte emanda zeuzkan Euskal Herrian. Asmatu egin zuen.

Nire aberria da eta, hala ere, guztiz propioa ez bailitzan igartzen dut lantzean behin. Herri gutxi ezaugarritzen ditu gaur egun hizkuntzak. Euskara Herria da horietako bat, mundua euskaradun eta erdaradunen artean banatzen duena. Herri zaharren ohitura.

Ama hizkuntza ere maite dut. Batzuetan bere premia larria izaten du nire mingainak. Gustuko dut ezpainetatik erraz irristatzen denean. Gustuko ditut etxeko berbak: *arrepellar, arrebujar, poyete, sieso, esaborío, esnortá, entelería*; baita jaioterrikoak ere: *coger bolida* edota *polifín*. Nire izaeraren parte dira, eta aberria ez izan arren, badira nire territorio librea. Ingurukoek ezagutzen ez dituzten berba magikoak. Ardo ondu eta zaharraren zaporea aho sabaian.

ALEJANDRA PIZARNIK

MINA

Negar egin! Aurpegia laztandu zuen. Tristezia sakona ematen zion bere tristeziak. Negar egin! Itsaso malenkoniatsuan urperatzen zen; sakonki, xaloki, malenkoniatsua.

Bere sufrimenduaren kontzientzia motela hartzen zuen, bere itxaronaldi hutsa ikusteak larriagotzen zuen sufrimendua. Bere ariman geratzen ziren esperantza hondarrak kalkulatu zituen. Zer itxaron?, noiz?, noraino?, zergatik?, zertarako? Bere barrua gaizki eraikitako txorrota bezala desegiten zen apurka-apurka. Zerbaitek min partikula izugarriak isurtzen zituen tantaka. Zerbaitek, zerbaitek. Irribarre egin nahi izan zuen, baina betileek taupadak egin zituzten bere begietan azaleratzen zen umedadearen aurrean. Hiltzea besterik ez zitzaiola geratzen pentsatu zuen. Bere arima begiztatu zuen hitz saihetsezin honek eragiten zion efektua egiaztatzeko: hiltzea. Ez. Ezereza bakarrik. Bere arimak baietz esaten zuen

isilik. Jadanik ez zitzaion inporta ez izatea. Irribarre egin nahi izan zuen eta lantua hasi zen batbatean. Ez izatea! Eta orain, akaso bera bazen? Zer zen? Min garrasia! Porrot prosaiko eta txikia ezkutatzen zuen giza agoniaren simulakro gogaikarria: bere bizitzarena! Bertigo unibertsalaren ardura egotzi nahi zion bere buruari, bizitza hain gogor eta hain gaiztoak umiliatutako partikula negartsua baino ez zenean, ulertzen ez zuen bizitza, ulertzen saiatzen ez zen bizitza, onartzen ez zuen bizitza!

1954ko irailaren 28an idatzia. 1972ko irailaren 25ean, seconal sodikoa, 50 pilula.

Pizarniken idazkera goxoa, leuna, samurra, berba distiratsuz betea. Min eramanezina jasotzeko bai, baina inor mintzeko gai ez den pairatzailearena.

Sinbolismoa, hauskortasuna, malenkonia... arrotz suertatzen zaizkit berez isurtzen zaizkion dohainak. Harik eta isiltasun ezagunak salto egin arte, hustasunaren toki hutsa betetzeko.

Horregatik ez balitz, gogor egingo nuke zure hitzen trokara ez hurbiltzearren.

Ahuldadearen arro horrek harrotu egiten nau, orroa arrapostu. Erroiaren Nevermore harrabotsa urrunetik hurrera ez, berriro ez. Erne ernatu naiz eta horrezkero berriz ez du mendreak nigan hirrikatuko.

Hori oihukatuko nizuke belarrira zure idazkera goxoa, leuna, samurra eta berba distiratsuz betea irakurtzen dudanean. Eta orduan *Bathory kondesaren kondairan* erabili zenuen estiloa zeure estilo zeurezkoentzat zeneukala jakin dut. Lasaitu egin naiz, beste estiloetan zure pertsonaien lore jokoak zeuden tarteko.

Idazlea beti da pertsonaia, baina pertsonaia idazlea denean, pertsonaia ez da idazten ari den pertsona eta, aldi berean, bada. Magia truko fina da gurea: munduaren begietara biluzten gara eta, segidan, egindakoaren lotsaz edo erreparoz, pertsonaiaren atzean ezkutatzen saiatzen gara. Ba al naiz ni idazten ari naizen hau? Galdera berau, pertsonaiak edo pertsonak egin du? Nor naiz ni, pertsona, ezagutzen ez nauzun zuretzat ez banaiz inor?

AMETSEN KONTUAK

Errusiar idazle batekin egin nuen amets behin. Aspaldi. San Petersburgon, Neva errekaren paretik paseatzen ari ginen, literaturaz eta ezertarako balio ez duten bestelako gauzez berbetan. Ez zen Joseba, Anton zen. Hitz bakoitzaren atzetik gure ahoetatik ihes egiten zuen lurrunari kasu egin barik gindoazen. Astiro. Txekhov zen eta, aldi berean, Sarrionandia. Ametsen gauzak.

Erreka izeneko kale batean jaio eta beti errekaren alboan bizi izan naizela kontatu nion eta oraindik ez nekiela lurraren oparoa edo uraren ahanztura esan nahi ote zidan. Hobeto entzun behar nuela erantzun bezain pronto, kontrako norabidean zetorren emakume dotorearengana jo zuen. Uhal gorriaz loturik zekarren txakur txikiaren burua laztandu zuen. Barre egin genuen.

Hermitagera heldu ginen elurretan hasi eta batera.

– Zein Sofia zara? –galdetu zidan– *Osaba Vania* ipuinekoa edo *Krimena eta zigorra* nobelakoa? Esan, zein Sonetska zara zu?

– Bietatik apur bat –erantzun nion.

– Hori eman dit.

– Baina ez daukat euren antzik inondik ere ez.

– Ez, ez batena ez bestearena.

– Zuk ere ez daukazu zeure antzik.

– Ametsen kontuak, badakizu.

Errusiako literaturak mundu osoaren pisua daramala lepo gainean, historia osoaren madarikazioen pean idatzi izan dela deliberatu genuen. Orduan, Etxahun, malerusetan malerusena, errusiarra ote zen eztabaidatzeari ekin genion.

Eta Neguko Jauregian barrena, *ahaide deliziusean, bizitze mulde gaitza deklaratü genuen*.

AUTOBUSA

Aurreko atsoak aitaren egin du autobusa mugitzen hasi bezain pronto. Atzo antipsikotikoak hartzea ahaztu nuela konturatu naiz. Ez ditut gaurko ametsak gogoratzen, halere. Liburua atera dut. Zahartzen naizenean ez naiz bakarrik egongo, liburutegi ederra, behintzat, izango dut. Eztulka hasi naiz. Listua kontrako samatik joan zait. Karamelua ez. Eskerrak. Aitaren eztul berbera izan da. Erretzailearena. Bentanatik astoak ikus ditzaket. Eta ardiak. Eta zaldiak. Eta ahuntzak. Txori bat. Txoriek berba egiten didate eta ez diet sekula ulertzen. Santzen zarata baino ez dut bereizten. Liburura bueltatu beharko nintzateke. Liburuak apalategietan ikuste hutsak bakardadea samurtzen dit. Haserre nago. Oso haserre. Atzoskolak masakratzeari utzi beharko nioke. Atzoskol luze eta gogorrak nahiko nituzke. Gorriz margotuak. Andoniren aurpegia zarramazkatuko nuke horrela. Tripak zarata atera dit. Hutsik dago. Gorroto hau, borborrean daukadan indar hau, probetxuzko zerbaitera bideratu beharko nuke. Letrekin adiskidetu berri naiz. Hain adiskideturik ezen orain ez baitaukat denborarik buruan dabilkidan guz-

tia idazteko. Letrek ez ninduten salbatu. Militantziak ere ez. Osatuko nauen zerbaiten bila beti, aurrera, transzendentziaren xerka. Biziari zentzunen bat emateko ahalegina. Osatu: “bete”, bizkaieraz “sendatu” ere esan nahi du. Eta liburu guztiak elektroniko eta hotzak direnean? Euskara ulertuko dut zaharretan edo ahaztuko zait? Beldurgarria izango litzateke nik idatzitako zerbait esku artean izan eta zer esan nahi duen ezin asmatzea. Ama hizkuntza badakit ez dudala ahaztuko, baina ikasitako guztia ahaztu daiteke. Gazteleraz amestuko dut berriro? Chomskyren teoriekin amestu nuen lehengo egunean. Tabernako barran. Chomsky hizkuntzalariaren ekarpenak azaldu nizkion bati. Gezurra badirudi ere, inork gutxik daki Chomskyk iraultza ekarri ziola hizkuntzalaritzari. 1. Hizkuntza guztiek egituraketa berbera daukate. 2. Izakiok jaio orduko egituraketa hori buruan daukagu programaturik. Ardoa edaten ari ginen. Liburuen pisua igartzea gustuko dut. Usaina ere bai. Hanka lokartu zait. Ordu honetan normalean ez da honen autobus txikirik etortzen. Beharbada erlijioak eta superstizioak konpartitzen duten funtzioaz idatzi beharko nuke. Bai, gure esku ez dauden gauzak kontrolatzeko ahalegina baino ez direla biak. Eta kostunbrismoaz. Iluntzean. Edo

beste batean. Nonbait irakurri nuen esaldi oso polita, sinestunak zazpi aldiz berraragitu behar badira ere, ateook hiru bider baino ez ditugula behar, denbora gehiago ematen baitugu jainkoarengan pentsatzen. Korapilo modukoa daukat tripetan. Berriro kostatzen zait jatea. Hestegorrian ile marapilo batek traba egingo balit legez. Katuei horrelakoak gertatzen ei zaizkie. Katuak gorroto ditut. Andonik sutu egiten nau. Zelan esan zidan baietz? Baietz! Laga behar izan nuela orduan! Ezin dut burutik kendu. Asteburu osoa etxean emango dut. Idatzi behar dut. Bueno, idatzi nahi dut. Arropa zuria garbitu, hori bai da beharra. Zigarroa amatatu berri dut eta berriro piztu. Non daukat burua, ba? Sortzeko burutik jota egotea ezinbestekoa al da? Horrela delakoan nago. Gutxieneko desoreka bat seguru beharrezkoa dela. Hala ere, nor bere zoroak bizi du. Zoramen hori onartzean eta erabiltzean ote datza kontua, orduan? *Más Platón y menos prozac* liburua. Nori otu zitzaion filosofia autolaguntza dela? Ze ostia da autolaguntza? Hori bai, agian filosofiak edo filosofia terminoaren erabilerak dirua eman duen lehenengo aldia izan da ditxosozko best seller hori. Pare bat psikologo ezagutzen ditut, nahiko hurretik, baina ez espezialista moduan, eskerrak, burutik guztiz eginda

daude eta. Beti pentsatu izan dut holakoek Psikologia ikastea erabaki zutela ea horrela euren burua konpondu ahal zuten. Antza, ez dabil horrela kontua. Zuzenbidea ikasten zutenek pena ematen zidaten. Liburukote itzelen artean, lauzpabost koloretako errotulagailuez dena azpimarratzen. Dena buruz ikasten. Eskola eta institututik irten eta unibertsitateak pentsamendua askatzea zuela helburu uste nuen. Idealismo petral honek akabatu egingo nau. Seguru. Ez daukat asmorik idealismo hori neuk akabatzeko. Erraz bereizten ziren dirudunak eta langileen alabak. Modan zegoen Enpresa ikasketak egitea. Askotan gogoratzen dut Gotzon Garate, irakasle kuttuna. Beste batzuk ere bai. Onerako zein txarrerako. Doktoretza ikastaroan azken hauetako bat zera esatera ausartu zen, erdarazko maileguetan hasierako “s-” euskaraz “z-” bihurtu zela “s-”rik ez geneukalako protoeuskaraz. Seguruenik ez dakizu hau zelako zentzubakokeria den, baina itzela da. Gure Gotzon-Motzonek *Por quién doblan las campanas* oparitu eta barruan “egunen batean horrelako liburu on bat idaztea” opa zidan. Liburua ez zitzaidan gustatu. Onena titulua eta, gainera, John Donneren pasarte batetik hartua. Metallicaren *For Whom the Bell Tolls* kanta. Zelan zekien Gotzon Garatek noizbait

zerbait idatzi behar nuela? Ez nion sekula ezer esan. Neska errepublikarren irudia higuingarria da. Babesa behar duten animaliatxoak, bera, gizona, gudari ausarta. Neska errepublikarrari arradatutako buru gainetik eskua pasatzen dionean, irudi hori ezin dut burutik kendu. Benetan eman zidan nazka. Lotara joan beharko nintzateke.

SORGORTASUNA

Sudurretik odola zeridan lantzean behin. Ezkerreko sudur zulotik gehienetan. Mukiak kendu ostean izaten zen askotan, besterik gabe ere zenbaitetan. Orduan kotoia edo paperezko mukizapia sartzen zidaten barruan, apurka gorriztatzen zen tapoi formadun zilindro zuria, eta jarioa eten arte atzamarraz estuturik eusten nion.

Egun batean denbora luzea eman behar izan nuen sudur zuloa sakatzen. Lotarako ordura arte ez nuen lortu hemorragia etetea. Goizean, hala ere, altxatu eta segidan hasi ziren tanta lodiak goitik behera, lurrera arte. Gelatik komunera bidexka marraztu zuten. Egun hartan anbulatoriora joan ginen.

Zain bat erre behar zidaten. Ez dakit zenbat urte neuzkan, baina txikia nintzen. Besoetan hartu eta orduan niretzat oso goian zegoen mahai edo ohatila edo zerbaiten gainean jesarri ninduten. Medikuak sudur barruan buril antzeko tresna bat sartu zidan. Ez nituen begiak itxi. Mugimendurik ere ez nuen egin.

Erredura sentitu nuen. Ume gorputzerako mingarria izan zela gogoratzen dut. Bat-bateko ziztada

goria. Ez nuen ezer esan. Ez nuen negarrik egin. Ez kexarik, ez malkorik. Isilik eta geldi. Pediatra edo mediku edo praktikante edo dena delakoaren harridura gogoan daukat oraindik. Ume hain txiki eta hain sorgorra seguruenik gutxitan zuen ikusia.

Sorgortasuna babesteko modua da, sentimenduak azaltzeak zauritua izateko bidea seinalatzen baitu. Baina sorgortasunak, babesteko modua izateaz gain, minarekiko eta, hortaz, mina ematen duenarekiko ardura gabezia ere erakusten du. Zerbaitek edo norbaitek ardurarik ez badu, mina eman ahal izateko botereaz gabetu egiten zaio.

HILEKOA

Obarioetako mina daukat. Hil honetan bereziki. Baina ez dut min hori apalduko duen botikarik hartu. Ez dut hartu nahi. Igarri egin nahi dut.

Emakumea izatea zer den gogoratzen digu honek hilero: mingarria, guretzat; ulertezina, mitoz beterikoa, baita higuingarria ere, beste gehienentzat.

Amenabarren pelikulan ikusi ahal da zelan bota zuen Hipatiak ikasle baten aurrean odolez zikindutako oihala, “hauxe da maite duzuna eta ez da batere ederra” esanez.

Anatole Broyard idazle eta kritikoak hilekoaren inguruko liburu baten kritika egin zuenean esan bezala, *“gizonek hilekoa izango balute, ziurrenik, horretaz harro agertzeko modua aurkituko lukete. Gizonek hilekoan bat-bateko eiakulazioa, bizitasun gehiegikeria ikusiko lukete. Euren kasuan isuri egiten den supersexualitatearen kopa izango litzateke. Odola, azken batez, ondasuna da. ‘Kirol odoltsuak’ gizontasun frogarik onena dira eta, antzina, gazte baten lehenbiziko ehiza ondo amaitzeko, guztiz odoleztatuta itzuli behar zen. Baina emakumeari odola darionean, denari ema-*

ten zaio buelta. Odola isurtzea gaixotasun, gutxiagotasun, zikinkeria eta irrazionaltasun zantzua da”.

Bizia sortzeko gure boterearen beldur. Bizia sortzen dugulako eta, era berean, bizia ez sortzea ere erabakitzen dugulako, jainkosek baino ez daukaten botereaz.

Gure indarraren beldur. Erditzeko, erdibitzeko, gure gorputza bitan banatzeko, minari eusteko eta, horren ostean, berriro osatzeko ahalmena daukagulako.

Hamahiru urte neuzkan hilekoa lehenbizikoz izan nuenean. Komunera txiza egitera joan eta hantxe zegoen. Kuleroak zikin. Hilekoa ote zen jakitea kostatu zitzaidan. Estreinako jario hori ez zen jarioa izan, ezta odol kolorekoa ere. Ez zen gauza urtsu gorri ugaria izan, oretsu, marroixka eta benetan urria baino.

Hilekoa = neska izateari utzi eta emakume bihurtu. Hilekoa zerbait misteriotsua zen, zerbait ezezaguna eta, kontakizunak kontatzen zuenez, guztiz aldarazi behar ninduena. Nesken mundua utzi eta emakumeen mundura sartu behar omen nintzen.

Komunetik irten eta amari esan nion. Amak, gordeta zeukan itzelezko konpresa potolo bat atera zuen armairutik eta eskura emanda, honelaxe sententziatu

zuen: “Irteten zarenean gauza oso-oso inportante bat esan behar dizut, emakumeek jakin behar duten zerbait”.

Komunean berriro, ezin nion esaldiari bueltak emateari utzi. Emakumeek jakin behar duten zerbait. Ordura arte neska izateagatik ezkutaturik izan nuen isilpeko errebelazioren bat. Mundu berri horretara sartzeko lehenbiziko ikasgaia amaren ahotik etorriko ei zen handik irten eta segidan. Behar baino denbora gehiago pasa nuen komunean, atea itxita, zer entzungo nuen aztoraturik. Eta azkenik...

“Hilekoa daukazunean kuleroak eskuz garbitu behar dituzu, igurdi ona emanda”.

ABERRI SALBATZAILEA IZATEKO GIDA LABURRA

– Ganorazko aberri salbatzailea izateko, ezer baino lehen eta ezeren gainetik, horren planta eman behar da. Aberriaren etorkizuna zeure esku balego bezala jokatu behar duzu egunez egun.

– Aberri salbatzailea izateko, hortaz, ez da jakintza berezirik behar. Pare bat lelo errepikaturik nahikoa izango da. Kontuz! Eta hau puntu garrantzitsua da: ezinbestekoa da komentario guztietan besteek pentsatzen dutena mespretxatzea; horrek beti ematen du hitz egiteko aukera, pentsaera propioa garatzeko premia izan barik.

– Aurrekoarekin loturik, aberri salbatzailea izateko, ez da beharrezkoa aberria salbatzea helburu daukan ezer egitea. Hitz egitea nahikoa da. Era berean, orain-txe azaldutako puntuarekin koherentea izateko, ezinbestekoa da besteek egiten dutena gaitzestea; horrek

beti ematen du ekimenen gainean hitz egiteko aukera, ekimen propioak garatzeko premia izan barik.

– Koherentziaz ari garela, ez da aipatutakoaz besteko koherentziarik behar. Izan ere, aberri salbatzailea izateko, koherentzia ez da derrigorra. Hortaz, norberak egiten ez duena beste inori aurpegiratu ahal dio besteak ere egiten ez badu. Adibide praktikoa: beste batzuei “euskararen etsai” deitu ahal zaie gaztelera perfektuan.

– Hizkuntza gauza zaila denez gero, aberri salbatzaileak analfabetoak izan daitezke batere arazo barik. Nahikoa da euskara apur bat jakitea, baina hau ere ez da derrigorra. Euskaraz hitz egiten duten aberri salbatzaileek, edonola, euskara traketsa edo euskañola egin dezakete.

– Euskaraz idaztea lan lar neketsua denez, aberri salbatzaileek ez daukate horretan alferrik galtzeko denborarik. Beti egongo da menekoren bat prest zure abertzaletasun peto-petoa munduari erakusten dion testu espainola euskaratzeko.

– Jarraibide sinple hauek beteta, burua ondo goratuta paseatu ahal izango zara hiritik zehar.

– Gure kaleetan hainbeste salbatzaile egonda, harrigarria da zelan ez gauden oraindik denetik salbaturik.

PLAUDITE AMICI

Suetoniok, *Enperadoreen bizitzak* liburuan, Augustoren azken berbak izan ei zirenak dakartza: “Plaudite amici, comoedia finita est”, “Egin txalo, lagunok, antzerkia amaitu egin da”. Augustok bazekien bere bizi osoa antzerki hutsa izana zela eta, azken momentuan besterik ez bazen ere, besteen aurrean onartzeko gaitasuna izan zuen. Baina sasi-idoloek, euren biziak eremu hain txikian norbait direla erakusteko plantak egiten eman dituztenek, euren buruetan eta euren inguru hurbilean inor baino ez direnek, zelan onartuko dute antzerki jokoa baino ez dela izan? Zelan konturatuko dira amaieraz? Augusto enperadorea izan zen. Beste batzuk bufoiak baino ez.

TRAGEDIA

1. Gai goibel edo latz batez diharduen eta halabeharrez dohakabeki amaitzen den antzerki lana; obra mota honek osatzen duen antzerki generoa.

2. Ezbehar samina.

Horrelaxe dakar hiztegiak tragedia terminoa bilatuz gero.

Tragedia, tragèdia, tragédia, tragedie, tragédie, traxedia, tragedija, tragödie, tragedi, tragedy... jatorrizko hitz grekoa hainbat hizkuntzatara pasa da ia aldaketa barik. Baina, zer esan nahi du, etimologikoki, tragedia berbak? Τραγωδία, tragoidia, “akerraren kantua” (tragos, akerra; oide, kantua).

Aristotelesek bere Poetikan zera azaltzen du tragediaren sorburuaz, ditiranbo kantuetatik datorrela eta obra satirikoen garapena dela. Forma artistiko biren konfluentzia izango litzateke, beraz: drama satirikoa (satyrikon) eta kantu koral ditiranbikoa. Obra satiriko hauetan koroko partaideak aker mozorrotuta egoten ei ziren. Tragediaren prehistoria edo prototragedia izango litzateke hau, honelako obra idatzirik heldu ez zaigun neurrian.

Tragedia grekoaren funtsa ez da samina, ez da ezbeharra, ez da protagonistaren amaiera fatala. Tragediaren funtsa gatazka da, legearen eta kontzientzia edo eginbeharraren arteko talka. Jokabide bi daude borrokan, biak ulergarriak euren ikuspuntutik. Oinarria ez datza on eta txarraren edota justu eta injustuaren arteko topekadan, bakoitzak bere argumentuak dauzka eta. Baina gatazka ezin da konpondu tarteko bide bat hartuta, kontzientzia eta legea ez baitira uztargarriak. Amaiera, hortaz, ez da sekula guztientzat onuragarria izango. Horrexegatik da tragedia.

Gaur *tragedia* edo *tragiko* oso mingarria, penagarria edo negargarria dena adierazteko erabiltzen dugu. Sentimendu ilunak, zelanbait, lege eta kontzientziaren arteko gatazka konpongaitza desplazatu du.

Euskal Herria tragedia dela ez dago eztabaidagai. Kontua da ze nolako tragedia osatzen dugun: egun kontzeptuak islatzen duen erakoa edo tragedia klasikoaren modukoa.

MARINA TSVETAIEVA

Zuri, mende bat barru jaioko zaren horri,
arnas hartzeari utzi diodanerako,
hiltzera zigortutako baten barrukietatik
neure eskuaz idazten ari natzaizu
“Zuri, mende bat barru” poema

Duela ehun urte poema bat idatzi zenidan. Niri. Ez zenekien mende baten buruan hemen egongo ote nintzen. Ez jakiteagatik, ez zenekien ni izango nintzenik ere. Eta, hala ere, idatzi egin zenidan.

Egia esan behar dizut. Poemak ez dira irakurri dudan bakarra. Kuriositatea neukan eta zure egunerokoa ere erabili dut esku artean, zu irudikatzen eta zure pentsamenduetan lapur moduan arakatzen. Ez nuen mesanotxetik ostu behar izan, liburu denda batean erosi nuen; hala ere, salerosketaren ekintza kapitalistak ez du zure intimitatean arakatu izana samurtzen, ezta duintzen ere.

Ez dut zure azken egunaz berba egin gura. Ez dut gura espekulatu ea erbestera joateko maleta biltzeko soka berbera erabili ote zenuen zeure burua urkatze-

ko. Bizi osoan zehar, momenturik txarrenetan ere, zure idazkiei darien sua, grina, pasioa nahi ditut ekarri.

Ez amorrurik ez gorrotorik zure idazkietan. Akaso ez zenuen arrangurarik edo erreminik sentitzen? Ala isiltzen zenuen? Marina, ez dizut gezurrik esango. Ez naiz damutzen nik kontrako erabakia hartu izanaz. Ez naiz damutzen itxuragabetzen naizenean, ez naiz damutzen ahotsa benatzen zaidanean. Ez naiz damutzen basapiztia askatzen dudanean.

1917ko iraultzak bete-betean harrapatu zintuen, baina okerreko aldean, agidanez. Gerra, pobreziarik eta larriena, Irina alaba txikiaren heriotza, erbestea... handik urte batzuetara senarraren epaiketa eta heriotza zigorra, Ariadna alaba nagusiaren kartzelatzea, ostrazismoa Tartaristanen.

Errusian ez zinen izan irabazleen artekoa, baina Europan ere ezin izan zintuzten andrazko bihurtu. Esaldi erraz eta egiteko askoz errazagoen eskean zebiltzan poesia maite ez zuten haiek. Baina zelan ez goraipatu Maiakovski? Zelan ez maite Pasternak?

Zalantzatan zenbiltzan ea zu hil eta urteetara inork zure lana aintzat hartuko lukeen. Mende bat pasatu da eta oraindik inork ez du poesia maite.

Alemania nazismoaren zirimolan zegoenean ere ondo ulertu zenuen. Rhin errekaren zaratotsa eta Goetheren buru argia ez ziren iraganekoak, baizik eta etorkizunak prest zeuzkan heldulekuak. Etorkizun horretatik diotsut, beste inork ez zuen hain argi ikusi. Rhin eta Goethe. Baita egungo zirimolan ere.

Arimak kortse barruan eusten dituzten horiek euren gainean dabilzkien Furiak balira legez hartzen dituzte sentimenduak. Orduko sasoi latzak su, pasio eta grina sasoiak ez zirela ezarri zuten hainbat gizonek. Okerrik eta nagusiena hori. Su, pasio eta grina barik sasoirik ez dagoelako, ez latzik, ez samurrik. Ez dago ezer.

AMETSA

Etxe sarrerako altzarira heldu behar naiz. Kanpoan nago. Hormigoizko etxe berrien auzoa da. Ez dabil inor kaletik. Arnasestuka noa. Korrika. Sartu eta hortxe, sartu eta segidan, sartu eta lehenbiziko altzarira ailegatu behar naiz.

Nire atzetik dator, akabatu nahi nauela badakit. Lehenbiziko kaxoian dagoen pistola hartu behar dut. Hormigoizko etxeetako hormigoizko arkupeetatik noa korrika. Lauki perfektuak osatzen dituzten etxe blokeen artean, hormigoizko parterreak. Korrika eta korrika eta korrika, kargatzeko denborarik izango ote dudan zalantzan nago. Blokeen arteko kale kantoietatik ikusi ahal nau. Ikusi egin nau. Badaki nora noan. Badaki zer egiteko asmoa daukadan. Nik badakit berak, ni harrapatuz gero, gauza bera egingo duela.

Estu, baina heldu egin naiz, kargatu egin dut. Ez da pistola, errebolberra da. Eskuek dar-dar egiten didate. Bala guztiak sartzea lortu baino lehenago, hark disparatu du. Ez nau jo. Ez nau ikutu. Azken bala sartu dut eta kalera irten naiz. Etxe-saguzulo honetatik irten beharra daukat. Urrunean ikusi ahal dut, baina berak

ez nau irteten ikusi. Apuntatu. Tiroa jo. Andoni erail dut.

SEXUALITATEA IKASTEN

Ez dut gogoratzen etxean erlea eta lorearena entzun izana: nire ahizpek bai jaso zuten txikitan irakaspen sexual gogotsu hura. Badakit lantzean behin aitari gomuta eragin eta barre egiten baitzioten. Baina 80ko hamarkadarako nahiko desfasaturik zegoen irudimena larre berdeetara eroan eta polinizazioa azaltzea edota “aitatxok hazitxo bat amarengan ipini eta listo” erantzutea, umeak nondik datozen galderari erantzuteko. Hain desfasaturik, ezen EGBn sexualitatea ere azaldu behar baitzuten irakasleek.

Esan barik doa mojen eskolan sexualitatea ugalaparatuen azalpen hutsa zela, azken kurtsoetan eta andrazko irakasle sekular baten esku.

Hala ere, egun batean, klasetik irten eta bideo bat ikustera eraman gintuen, nork eta Sor Rosariok, eskola hartako pertsona on bakarrenetako batek. Pertsona nagusia begitantzen zitzaidan orduan, bere abitu eta guzti, baina, umeen begietara nagusi guztiak oso nagusiak direnez, seguruenik uste baino gazteagoa zen sasoi hartan.

Sor Rosario sexualitateaz hitz egiten hasi zen. Bai, sexualitateaz. Ez ugalketaz, sexualitateaz baino. Gai bakarra gomutatzen dut. Ez harritu ninduelako, baizik eta entzutearekin batera, jakin banekielako beste umeek Sor Rosario arazoetan sartu behar zutela. Masturbazioaz hitz egin zigun.

Ez pentsatu luze aritu zenik, ezta detailerik eman zigunik ere. Gauza bi argi utzi nahi zizkigun: bata, izan zitekeela gutako edonork “ekintza horrekin” topo egitea eta jakin behar genuela “hori” gauza naturala zela; eta bestea, ez gintuen inolaz ere “horretara” animatzen. Moja askorentzat masturbazioa tabu ez ezik, bekatua ere bada. Mojentzat, baita eskola hartako guraso gehienentzat ere. Banekien hainbat neskato egun hartan bertan etxera joan eta Sor Rosariok masturbatzeko esan ziela kontatuko zutela.

Guraso batzuk azalpen eske joan ziren eskolara. Ezin zuten sinistu horrelakoetatik babesteko ordaintzen ari ziren ikastetxe barruan bertan euren umeek halako gaiztakeriak eta lizunkeriak entzun behar izana. Jainkoarren! Agur Maria aratz garbia! Gainera guk, neskok, mutilek ez bezala, guztiz galarazota geneukan “hori”, baita nerabezaroan ere. Mutilek euren

artean onartzen eta konpartitzen zuten bitartean, neska gazteok elkarri ere ezkutatzen genion.

Harira: marrazten eta josten irakasten zigun Sor Rosariok arazoak izan zituen.

Ez dut gogoratzen ordurako nik “ekintza horrekin” egina nuen topo, baina oraindik orain harritzen naute izakion instintuek, “horrelakorik” neukanik jakin barik, klitoria zer zen jakin barik, hamaika urte neuzkala, oporretan, zergatik eta zelan jakin barik, eskua “horra” joan zitzaidan. Harritzekoa benetan. Gustua-ren gustuaz ia-ia txiza egin nuen eta.

SEGI AURRERA PUTAKUME HORI!

Lagun batekin nago kalean berbetan. Etxera bidean gaude, kale izkinan. Nik aldatsean gora eta berak alboko kaletik egin baino lehen, auto bat pasa da astiro, gure paretik, hain astiro, ezen begiratu barik badakigu zer datorren. Barruan dauden morroi biak, adurretan egitea maskulinitatearen adierazlerik behinena bailitzan, esaka hasi zaizkigu. Gu, eurentzako opariak, koloreetan bilduta.

Buelta eman eta *“segi aurrera putakume hori!”* bota diot. Autoa guztiz gelditu eta gidariaren albokoa jaitsi egin da. *“Zer esan dozu? Zer deitu dostazu? Okurridu bez nire amaren gainean ezer esatea!”*. Niregana dator. Jo egin behar nau.

Duela gutxi lagun batek kontatu zidan nonbaiteko jaietan gauza bera gertatu zitzaiola. “Putakume” deitu eta, beraren ama iraintzeagatik, matrailezurrean ukabilkada batez hagina apurtu zion. Baina minik handiena, halere, ez zion kolpeak egin, inpotentziak baino.

Gizonak emakumeon inguruan aritzen direnean, euren amen inguruan ere ari dira. Emakumeok garenaren ebidentzia hortik ikasi dute txikitatik. Horregatik daude hainbat eta hainbat obsesionaturik ama kritika, laido eta hoben guztietatik babestearekin. Emakume guztiok objektuak gara eurentzat, euren gozamenerako edo euren frustrazioetarako edo, besterik gabe, euren gizontasuna erakusteko. Baina ama, eurez erditu zena, salbuespena izan behar da derrigor. Ama salbuespena ez den momentutik, andre horren gainean patriarkatuaren pisu eta zabor guztia jausten da: urdanga zikina da, babo ergela da, zerbitzari otzana da...

Horren balio gutxiko zerbait, zikinkeria hori al da txikitatik maite izan dutena? Gizon horien amei patriarkatuaren irainik kuttunenaz “puta” deitzea, Ama existitzen ez dela konturaraztea eta gezur horren inguruan eraikitako fantasia eraistea, dena da bat.

OMAYRAREN BEGIAK

Omayrak mundu osoko albistegiak bete zituen 1985eko azaroaren zenbait egunetan. Mundu osoko telebistetatik ikusi ahal izan zen neskaren aurpegitxo beltzaran txikitxo hura amatatzen, zuzenean, hainbat egunetako emanaldietan. Nevado del Ruiz lehoi-sumendiak iratzarri eta Kolonbiako Omayraren herria basatza azpian estali zuen. Hainbat eta hainbat lagun hil ziren estutasun momentu haietan, baina Omayra han gelditu zen, bere etxearen egurrek, harriek eta bestelako hondakinek harrapaturik. Burua baino ez zeukan bistan, burua eta eskutxoak, aurpegia bezain beltzaranak. Trabes zegoen egur bati heltzen zion, egur hori biziari eusteko heldulekua bailitzan. Eta izan bazen. 60 orduz egon ei ziren kamerak grabatzen, 60 orduz esatariak esaten, neskaren agonia hunkigarrien nork kontatuko ote zuen isilpeko txapelketa makabroan.

Omayrak ile laburra zeukan. Omayraren betazpiak gero eta ilunagoak ziren. Omayraren begirakuneak etsipena eta itxaropena nahasirik islatzen zituen.

Momentura arte eskolara joaten zen, eskolatik irten ostean lagunekin olgetan ibiltzea gustuko zuen,

etorkizunerako planak zeuzkan, herriko mutil edo neska batekin maitemindurik egonda ere, ezer esateaz lotsatzen zen, lantzean behin amarekin eztabaidatzen zuen eta, harrezkero, Gabonak laster heldu behar zirenez, oparien zain zegoen seguruenik. Ez zen edozein neska, Omayra zen, bere ilusio, gogo eta nahi propioekin. Hala ere, neska baten, edozein neskaren, heriotza hiru egunez zuzenean jarraitu ahal izan genuen. Nik ere ikusi nuen. Zortzi urte neuzkan.

Gomutapen argia izan dut urte hauetan guztietan zehar.

Beste guztiek pena adierazten zuten bitartean, arrangura baino ezin nuen nik sentitu. Arrangura eta arranguratik gorrotora. Zergatik ez zuten handik ateratzen? Zergatik ateratzen zuten telebistatik, zulotik atera ordez? Mundu osoa ari zen ikusten. Inor ez al zen kapaza beharrezkoak ziren bitartekoak hara bidaltzeko? Inor ez al zen kapaza handik behingoz ateratzeko egin beharreko guztia egiteko? Aurrerapen tekniko eta teknologiko guztiak; lasterketa armamentistikoa; kimika, medikuntza, biologia, fisika, ingeniaritza... jakinduria osoa... ezertarako ere ez. Neska hura zuzenean hiltzen utzi zuten.

Omayraren bizitza ez zen baliotsua. Omayraren heriotza, ordea, bai. Zenbat eta malko gehiago sortu ikusleei, orduan eta handiagoa irabazia, mass-media jabeek ondo ezagutzen duten proportzioaz.

Omayrak trabes egiten zuen egur bati eusten zion eta, bere izeko hilaren buru gainean zutunduta, lortzen zuen burua basatzatik ateratzea. Neska hark azkenean handik salbatuko luketen itxaropenari eusten zion, azken batez, bere alboan zeuden gau eta egun. Hala ere, funts-funtsean bazekien ezer gutxi balio zuela, kolonbiar neska pobrea baino ez zela. Begietako itxaropena etsipenez betetzen zitzaion.

KÖNIGIN DER NACHT

Der Hölle Rache kocht in meinen Herzen!
Tod und Verzweiflung flammet um mich her!

Zapata guztiak iltzez beterik baleude legez, ortozik gurago dut harrien gainean ibili. Punta bakoitza zapaldurik, nire ahotsari ere alde egingo diot, gorantz, ahots humanoa izateari utzi arte, Gauaren Erreginak bezala.

Gau eternalean betiko murgiltzea, trumoi, ostots eta durunda artean, ez litzateke asturu lazgarria izango, aiherkundearen itzala indarrez askatuz gero, begiak lausotu eta hezurretaraino sartzen den behe laino bihurtuz gero, oinaztu argiaz eta inatazi azoteaz. Ikusezin, baina sentigarri.

ERLIJIOA ETA SUPERSTIZIOA

Mito arkaiko guztiak, baita testamentu zaharrean topatzen direnak ere, munduaren eta munduan dagoen guztiaren sorkuntzarekin hasten dira. Denboran zehar joan dira garatzen, ahoz lehenen eta idatziz gero, moldatzen eta aberasten eta kultura artean hartzen eta ematen. Baina denak ziren egia eta euren froga nagusia munduaren existentzia bera zen.

Mendebaldean, behintzat, desmitifikazio prozesu sakona izan zen. Jainkoen historiatik atzerago jo eta han bilatzeko asmo kontzientea izan zen jakintzari ateak zabaldu zizkiona. Printzipioaren edo αργη izenekoaren bilaketak mito kosmogonikoa arazo ontologiko bihurtu zuen.

Guretzat oraindik hain ezaguna den mitologia greko-erromatarra baino askoz inportanteagoak izan ziren misterio grekoekialdetarrak (Eleusis, Dioniso, Isis eta Osiris, Mitra...). Lehenengoa literaturara eta Estatuaren bastioi izatera pasatzen zen heinean, bigarrenak herri erlijio bihurtzen joan ziren, Estatuak sustatzen zuen hartatik gero eta urrunago. Salbazio erlijioak ziren, baina misterioetan iniziatzen ziren horien-

tzat. Kristautasuna gailentzeko arrazoi nagusietako bat mundu guztiarentzako salbazioa eskaintzea izan zen, erlijio kristauaren misterioak mundu guztiari zabalduta. Berritasuna Jesus sasoi historikoan kokatzea izan zen eta, honekin batera, bere heriotza eta berpizkundea bat eta bakarra izatea. Ez zen alegoria, ez zen periodikoki errepikatzen zen ekintza.

Salbazio eta bizi eternoaren promesak zerikusi handia izan zuen kristautasunaren zabalkundean, baita beste erlijio batzuk zituztenen artean ere. Bikingoen artean, kasu, Valhallara gerran hildako gudariak baino ez ziren joaten. Baina zer gertatzen zen beste guztiekin, hau da, populazioaren gehiengoarekin? Beste zerbait bazegoela sinistu bai, baina beste zerbait hori ez zen eurentzat. Hortaz, nora zihoazen hil eta gero? Kristautasunak behar zuten heldulekua eman zien.

Hala ere, aspaldiko sasoi horietatik hona denbora luzea igaro da. Honezkero ez da jaungoikoarengan berdin sinisten. Gure inguruko kristauen artean benetan gaitza izango litzaiguke infernuan, esaterako, sinisten duen norbait topatzea. Euren burua kristautzat dutenen artean, gehiengoa ez litzateke gai izango ez

hamar manamenduak ez zazpi bekatu kapitalak zerrendatzeko.

Sorkuntza mito guztiek bezala, erlijioaren sorkuntza mitoak munduari eta existentziari ematen dio azalpena. Eta hori ez da gutxi. Moral erlijiosoak bizia gidatzeko pautak zabaltzen ditu. Eta hori ez da azaren azpiko orria. Baina bereziki interesatzen zait erlijioaren superstiziorik nagusienak: gainetik daukagun norbaitek gure kargu hartzen duela eta, erritu errazen bitartez, gaitzetik salbatuak izan gaitezkeela.

Ataka baten aurrean egiten den lehenbiziko gauza da ataka horretatik onik atera ahal izateko moduak aztertu eta praktikan ipintzea. Geure gaitasunez, hau da, geure esku dauden moduez, saiatzen gara egoera horri aurre egiten. Hala ere, guk ezin dugu dena kontrolatu. Kasualitateak ahalmen askoz handiagoa dauka guk baino.

Demagun, kalera irten eta kasualitatez teilape baten azpitik pasatzen garen momentuan kasualitatez haize bolada bat datorrela eta kasualitatez hirugarren pisuan geranioak landaturik dauzkan loreontzia kasualitatez balkoian txarto lotuta dagoela. Eta kasualitatez buru gainera jausi zaigu. Ez dago nork kontrolatu hori. Baina gure kontroletik kanpo dagoena kontro-

latzeko ahalegina egiten dugula pentsatu eta sinistu nahi dugu. Ohikoa da jende nagusia atarietan aitaren egiten ikustea.

Keinu txiki horretan dago kontzentraturik superstizioaren premia. Pertsona horrentzat ez da nahikoa sinistea, kristau ona izatea eta jainkoa begira daukala jakitea. Kontrolaezina den hori ez dago prest ezta jaunaren esku uzteko ere, keinua egin, egin behar du. Bere eskuaz bekoki, papar eta besagainak ikutu eta keinu horrek babestuko duela uste du. Benetako jainko batek beste arrazoi batzuengatik babestuko luke; ona izateagatik, sinestuna izateagatik, domekero elizara joateagatik... benetako arrazoiren batengatik eta ez eskuaz burua, paparra eta sorbaldak ikutzeagatik. Pertsonaren kontrolik eza samurtzeko ahalegina da keinu horren atzean ezkutatzen dena.

Ezintasunak zerbait egiteko konpultsiora behartzen gaitu.

Euria egin dezan dantza egitea bezala, bikotekidea topatzeko harri bati bueltak ematea bezala...

Gaixoa hil ala biziko egoeran. Medikuak edo petrikiloak edo enplasteroak bere esku zegoen guztia egin duela esan du. “Otoitz baino ezin dezakegu egin” entzun da. Eta otoitz egin dute.

Baliteke gaixoa osatzea. Jainkoari eman behar zaizkio eskerrak. Otoitzek fruitua eman dute. Eta baliteke gaixoa hiltzea. Jainkoak horrela nahi izan du. Edo patua izan da.

Baliteke, halere, otoitz barik gaixoa berdin-berdin hiltzea. Orduan, ez paturik, ez Jainkoaren nahirik, otoitz egin ez dutenen kontra zeruko sumina.

Markatutako kartekin jokatzen du superstizioak.

BETI EGIN DAITEKE HOBETO

Harritzen nau zelan akatsek ez duten besteentzat hainbesteko garrantzirik, zergatik ez diren eurentzat oztopo, zelan egin dezaketen ez ikusiarena eta besterik gabe aurrera jarraitu. Harritu eta haserretu ere bai, haserre horren nondik norakoak azaltzea zaila bada ere.

Eskarmentuak erakutsi dit, edozer egiten dugula ere, emaitza ez dela inoiz perfektua, detaileren batek beti kontroletik ihes egingo digula. Hori kontuan hartuta, perfekzioa bilatu badugu, emaitza ona izango da. Aitzitik, ondo egitea baino ez badugu bilatu, seguruena da emaitza, ona baino, eskasa izatea. Militantzian ondo konprobatu ahal izan dut: “Ondo” egiteko asmoaren atzean “ahalik eta errazen” ezkutatu ohi da, emaitza, azken batez, ez zaigulako larregi inporta. Nork bilatzen du perfekzioa? Inork ere ez. Zertarako?, galdetuko lukete, jendeari berdin badio.

Alfred Adlerren teoriaren arabera, gutxiagotasun sentimendua beti da oinarria nork bere burua hobetzeko edo ezartzen dituen helburuak erdiesteko. Perfekzionismo grinaz ere aritu zen nork bere burua ho-

betzera bultzatzen duen motibazio indarra azaltzeko. Helburu bat finkatzekotan, zergatik konformatu edozein helbururekin? Zergatik ez jo gero eta gorago? Beti egin daiteke hobeto.

NOIZ BIHURTZEN DIRA NESKAK EMAKUME?

Aldaketa ez du hilekoak eta, hortaz, ama izateko gaitasunak markatzen.

Edozein adurti kaletik zure gorputzaren gainean edozer esaka hasten denean, orduan bihurtu zara emakume. Gure gorputzak bihurtzen gaitu emakume, beste batzuen begietara objektu desiragarri edo laidogarri. Ezberdintasun fisiko hutsak bazterkeriarako bidea ezartzen du eremu guztietan.

Kamiseta zabalak eta arropa ahalik eta nasaienak erabiltzen hasten zara. Gorputza ezkutatu nahi duzu. Psikologoek (gizonezkoak) askotan aipatzen dute norberaren buruaren lotsagatik dela, baina oso gutxik erreparatzen dute besteen begietatik eta adurretatik babesteko modua ere badela.

Harik eta egun batean izaki sexuatu eta sexuala zarela onartu eta erabili nahi zaituzten horiek zeuk erabiliko dituzula erabaki arte. Ez euren desira betetzeko, zeure plazera askatzeko baino.

Edo beste helbururen baterako, besterik gabe. Opor batzuetan, atzerrian, hogei urte inguruko ilobari esan bezala “nahi duzu jakin zelan egin behar duzun? Egin nire moduan, igo titiak, jaitsi eskotea eta zatoz”. Udaltzain birengana hurbildu ginen eta goxo-goxo, ahots eta begirada sentsualaz, baina benetan eta ez pelikula pornoetan bezala, galderaren bat egin nion bietako bati. Bere ergel aurpegierak eta eskutxoaz agur esateko moduak arrazoia eman zidan. “Aprobe-txatu zure ahalmen hori, estrategia hori inoiz edo behin beharko duzu eta”.

HERIOTZA ATSEGINA

Itsasoari lana uztea onena litzateke.

Odol isuririk ez dakarten metodoen artean ezin esan aukera handirik dagoenik. Pozoi edo pilula gaindosiak ez dakar odol jariorik, baina txahala edonon botatzea bai. Eta ez da ez atsegina, ez garbia. Nork nahi du bere gorpua goitik eta behetik botatako zikinkeria artean aurkitua izatea? Gainera, produktu korrosiboa ez bada, heriotza ez dago bermatua. Eta barruki guztiak erretzea ez dirudi oso samurra denik.

Bainerako ur beroetan odol hustea heriotzarik eta samurrena dela esan liteke. Zainak eskumuturretik gorantz, zeharka, ebakitzea eraginkorragoa ei da, normalean suizidek eskuturrak ebakitzen badituzte ere. Hala ere, ezin esan gozoa denik gorpua topatzen duenarentzat. Mereziko luke bainera guztiz gorri topatzea? Mereziko luke komunera sartzen den bakoitzean nire gorpuaren irudia gogoratzea? Agian bai. Andoniri horrelakorik egiteko gai al zara maitasun-gorroto dialektikan?

Beraz, itsasora sartu. Egunez? Gauez? Argi dagoena da udan izan behar dela. Hotza ez dut agoantatzen.

Itolarria sentsazio lazgarria da, berez eta nahikoa; ez dago agonia luzatzeko premiarik. Udan. Erabakirik.

Baina udan bada, gauez beharko, egunez izanez gero, hordartzainen abileziaren menpe bainengoke.

Jantzirik? Biluzik? Jantzirik, jakina da arroparen pisuak helburuan laguntzen duela. Baina zelan egin uko itsasora biluzik sartzeak sorrarazten duen besarkada umel konparaezinari? Titiak uretan flotatzen... Gizona izanez gero, gustagarriagoa izango litzatekeela suposatzen dut, zakila uren nahieran aske igartzen, solterik antzean...

MIYÓ VESTRINI (II)

Zure inbidia daukat, Miyó. Inbidia txar, gaizto, gorri eta beltza. Ez baitago inbidia sanorik mundu honetan, hori esanda arima zuritu nahi duten inbidiatsuak baino. Utzidazu zure otoitza erabiltzen nire azken egunerako. Zalantzan dago nik ostuko dizudan edo zuk ostu zenidan nik idatzi orduko:

Emadazu, jauna,
sumintzen duen heriotza bat.
Mindu nituenak bezain
mingarria izango den heriotza.
Santiago de Compostelako
euria jasan dezakeen heriotza
eta bidez batez,
mindu ninduten horiek hilko dituena.

Jauna, esaten dizutenean
errukirik eskatu gabe
agortu ditudala nekearen baliabide guztiak
orduan, jauna,
jo nazazu gogor.

Utzidazu, jauna,
neure burua naizen bezalakoa ikusten:
Erriflea eskuan
Granada ahoan
Maite dudan jendeari erraiak ateratzen.
Eta ikusiko duzu zelan ezerk
ezin didan eman suminduko nauen heriotza bat.

Bazenekien lar *arrecha* zinela emakume poeta izateko. Haserrea, amorrua, sumina eta samina ez dira oztopo poetentzat, bai ordea emakumeontzat. Lar *arrecha* zinen emakumea izateko, emakume izate horretan izaera horren arrazoia izan arren.

Camusen *Gizon errebeldea* liburuan ez dut inon aurkitu nork bere buruaren kontrako iraultzaz ezer. “Andre errebeldea” idatzi beharko da noiz edo noiz, gu subjektu iraultzaileetan iraultzaileenak garelako, irauli beharreko objektua gu geu baikara.

Iraultzek, benetan iraultzeko, bortizkeria dakarte derrigor, ekintza bortitzak baino ezin duelako ordena irauli. Maiuskulaz idazten den Gertaera behar izaten da. Zu-subjektuak burura eraman zuen azken Gertaera bortitza zu-objektua akabatzea izan zen. Edozein

erregizidio, parrizidio edo deizidio baino basatiagoa den ekintzaz.

BEKATUEN KONFESIOA

Eskolan Jainkoaz aritzen ziren, Jainko krudel eta zigortzaile batez. Horregatik, akaso, hartzen zuten eurek, Jainkoaren zerbitzariak ziren heinean, paper horixe Lurrean.

Eskolako kideen gurasoak sinestunak ziren, ama batzuk katekistak ziren, besteren batek Joan Paulo II.a aita santu antikomunista eta atzerakoiaren erretratua zeukan horman eskegita. Wojtila eta Ratzinger, askapenaren teologiaren kontrako borrokalari sutsuak. Gurean ez zen otoitz egiten, ez zen elizara joaten, Biblia bat geneukan liburuen apalategian, Koranaren eta mitologia liburuen alboan.

Eskolan bai. Eskolan jainko eta santuak, kanta eta erreguteak ama birjinari, gurutzeak nonahi... Sinistu ala ez, ezbaian pasatu nuen denboratxo bat. Nahasirik nengoen. Hala ere, estasi mistikoak hiruzpalau egun baino ez zidan iraun; gauez, lotara orduko, otoitz egin nuela gogoratzen dut. Laster erabaki nuen jainkoa ez zela existitzen, eta, edozelan, existituz gero, nik infernuaren zigorrik ez nuela merezi.

Plantak egin behar izan nituen handik aurrera.

Hipokrisia txiki bat, bizirauteko bestekoa.

Klasean mojekin egunero-egunero otoitz egiten bagenuen ere, zenbait egun berezitan abadea etortzen zen meza emateko.

Eliza ilun, heriotza argi hila ematen zuten kandelak nabarmentzen ziren.

Sartu. Zutundu. Kantatu. Aitaren egin.

"El señor esté con vosotros". *"Y con su espíritu".*

"Por mi culpa, por mi culpa, por mi grandísima culpa".

"Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna". *"Amén".*

"Señor ten piedad".

"Cristo ten piedad".

"Oremos hermanos". *"Te rogamos óyenos".*

Abadea eskolan zegoenean, egunez egun ordena eta zigorra gorpuzten zuten abitudun haiek oilo loka aldra bihurtzen ziren. Sotanadunaren ingurutik zebiltzan, Jainkoa bera euren albora jaitsi izan bailitzan. Harropuzkeria eta gehiegikeria desagertu eta otzanta-

sun obedienteak hartzen zituen euren gorpuzkera eta mugimenduak gizon haren aurrean.

Kuriosoa. Abadea zelako? Gizona zelako?

Jesarri.

“Palabra de Dios”. *“Te alabamos señor”.*

Altxatu.

Gurutzearen seinalea egin.

“Palabra del señor”. *“Gloria a ti Señor Jesús”.*

Jesarri.

“Lava del todo mi delito, Señor, limpia mi pecado”.

Altxatu.

“El señor esté con vosotros”. *“Y con su espíritu”.*

“Levantemos el corazón”. *“Lo tenemos levantado hacia el Señor”.*

“Demos gracias al Señor nuestro Dios”. *“Es justo y necesario”.*

“Santo, Santo, Santo es el Señor, Dios del universo”.

Mojek ez bezala egiten dute berba abadeek, leun, doinua tonu batzuk altxaturik, jainko on eta abegikorraren ordezkariak direla erakustearren. Jaungoikoa Abrahami semea hiltzeko agintzen gogoratzen nuen,

Job pazientziadunari egindako barrabaskeriak ez aipatzearren; Jesus ere, azotea eskuan, merkatariak tenplutik botatzen irudikatzen nuen. Eta abadea gozotasun eta ergelkeria arteko doinuaz berbetan.

Belaunikatu.

“Tomad y comed todos de él, porque éste es mi cuerpo”.

“Tomad y bebed todos de él, porque éste es el cáliz de mi sangre”.

“Anunciamos tu muerte, proclamamos tu resurrección, ven señor Jesús”.

Zutundu.

“Por Cristo, con él y en él, a ti, Dios Padre omnipotente, en la unidad del Espíritu Santo, todo honor y toda gloria por los siglos de los siglos”. *“Amén”.*

Gure Aita errezitatu.

“La paz del Señor esté siempre con vosotros”. *“Y con su Espíritu”.*

Bakea eman.

“Cordero de Dios, que quitas el pecado del mundo, ten piedad de nosotros”.

“Señor, no soy digno de que entres en mi casa, pero una palabra tuya bastará para sanarme”.

“El Cuerpo de Cristo”. *“Amén”.*

Erdigunean ilara egin, sasi-ogia ezkerreko esku ahurrean hartu eta eskumaz –beti eskumaz– ahoratu. Ore hori mastekatzen nuen lantzean behin, beste eskolakideek laztura senti zezaten euren Kristo Jaunari haginak sartzen nizkiola ikusita.

Belaunikatu. Sasi-ogia aho sabaitik noiz askatuko itxaron. Altxatu.

“El Señor esté siempre con vosotros”. “*Y con su Espíritu”.*

“La bendición de Dios todopoderoso, Padre, Hijo y Espíritu Santo descienda sobre vosotros”.

Aitaren egin.

“Amén”.

Oso txikitatik hasi behar izan ginen konfesionariotik pasatzen, lehenbiziko jaunartzea baino askoz lehenago. Eguna heltzen zenean, zer konta? Ze bekatu izan ahal du ume batek? Errenkan gure txanda itxaron bitartean, zerbait asmatu behar. Abadeak zerbait en-

tzun nahi zuen, ezin nion esan bekaturik ez neukala, katolikoentzat denok bekatariak gara eta. Hori harropuzkeria bekatua zatekeen. Beraz, bazkaren bat ematera nengoen beharturik.

Hori bai irrazional eta kontraesankorra: gezurra esanda, bekatu eginarazten zidaten eurek.

“Podéis ir en paz”. *“Demos gracias al Señor”.*

Altxatu. Joan.

SUIZIDIOA

Suizidioa, latinez suicidium, “sui-caedere”.

Terminoaren erabilera, hala ere, nahiko berria da. XVIII. mendean, urte gutxiren tartean, hiru autoretan topa dezakegu: Prévost abatearen *Le Pour et Contre* kazetan, Desfontaines abatearen *Observations sur les écrits modernes*-en XI. liburukian, eta Voltaireren *Du suicide ou de l’homicide de soi-même* obran.

Mende bat geroago Étienne Esquirol psikiatra luze aritu zen suizidioaz *Des maladies mentales considérées sous les rapports médical, hygiénique et médico-légal* obrako lehen liburukiaren amaieran: horretara eroaten duten egoerak, sintomak, arrazoiak eta prebenitzeko erak azaldu zituen, besteak beste.

Esquirolena da pasarte ezagun hau:

“Ez dago gizabanakorik bere buruaz beste egitea inoiz bururatu ez zaionik, ezta zubi batetik pasatzean salto egiteko gogoa izan ez duenik ere”.

Hiltzeko ideiak izatea arrunta dela konturatu zen Esquirol, baina arruntasun honetatik suizidiora eroaten duen prozedura ez da Pierre Moron psikiatrak 1987an Esquirolen ahotan ipini zuena bezain borobila.

Azken honek suizidioaz idatzi zuen liburuan eskerrak eman behar izan zizkion aurreko mendeko medikuari, orrialde nahikotxo plagiatu zizkion eta. Hala ere, esaldi bakarra aitortu eta, gainera, erdia asmaturik. Esaldi horren jarraipena ez da izan sekula *“Gizakiak eroaldian baizik ez du bere buruaz beste egiten, eta suizidatu guztiak alienatuak dira”.*

Esquirolek gauza arrunt moduan onartzen zuen suizidioaren ideia, edonork noizbait izan duen ideia dela, alegia. Baina, esaten zuenez, zenbaitetan ideia hori gero eta toki handiagoa hartuz joaten da pertsonaren baten buruan, harik eta beste ideia guztiak zokoratu eta minei alde egiteko modu bakartzat agertu arte. Gaixotasuntzat hartzen badu ere, paragrafoari erreparatuz gero, esan genezake ideiaren kantitate edo intentsitate maila dela gakoa.

Suizidioaz hainbat azterketa egin dira hiru mendetan zehar eta gaurko egunean osasun arloek noizero ateratzen dituzte estatistikak eta suiziden tipologiak. Datu bi errepikatzen dira guztietan: gizonezko gehiagok egiten dute euren buruaz beste eta moduak bortitzagoak izaten dira euren kasuan.

Hala ere, Émile Durkheim soziologoak 1897an idatzitako obran baino ez dut topatu atentzioa egin zidan datu bat. Datuak orotara ematen dira, zenbat gizon, zenbat emakume, zenbat gazte, zenbat zahar, zenbat ezkondu, zenbat ezkongabe. Durkheimek emaitza adierazgarri bat aurkitu zuen: gizonak gehiago ziren adin tarte guztietan, esan bezala, baina aldagai honi egoera zibilaren aldagaia uztartu zionean eta datuak adin tarte ezberdinetan kokatu zituenean, zera ikusi zuen, behin ezkonduta, gizonezkoen ehunekoa jaitsi eta emakumezkoena igotzen zela.

Datuen ondorioa ematerakoan, Durkheimek sasoi hartan nahiko zabalduta zegoen ustea gezurtatzeko profitatu zuen. Émilek nahita azaleratu zuen ez zela egia ezkondu ostean emakumezkoek “irabazi” eta gizonezkoek “galtzen” zutenik.

ZIENTZIAZ

Zientzia ez da zerbait aseptiko, neutro ezta objektiboa ere. Evelyn F. Keller matematikoak eta Sandra Harding filosofoak, nork bere aldetik, diotenez, zientzia humanitatearen talde zehatz batek ekoiztu du ia guztiz: gizonek, zuriek, Mendebaldekoek eta klase ertain-altukoek.

XVIII. eta XIX. mendeetan buru hezurren neurri ezberdintasuna erabili izan zen emakumeok balio gutxiagokoak garela frogatzeko. Darwinek berak ere utzi zuen idatzita gizonezkoak adimentsuagoak direla. Ramón y Cajal espainiar Nobelak “poesiari” ekin zion gure ezberdintasunak adierazteko:

“Gauza jakina da gizona eta emakumea ez direla berdinak, osagarriak baino, erlea eta lorea diren bezalaxe. Eta arrisku handia dago, tailer edo lantegietako lanak –emakumezkoen edertasun eta osasunarentzako gaitza denez gero– ez ote duen etorkizunean emakumezko abortatua sortuko, hau da, himenoptikoen erle langilearen pareko emakumea”.

Umeak nondik datozen galdetuta, gurasoek lorea eta erlearen ipuina kontatzen zuten aspaldi. Nork esan

“zientifikotasun osoko” kontakizun hura Nobel bati zor zitzaiola.

Eta Nobel sariak aipatu ditugula, 48 emakumek baino ez dute jaso, %5ek, alegia: hauetako gehienek, 16k, Bake saria, jakina baita emakumeon geurezko ontasuna; bik besterik ez Fisikan (hauetako bat Marie Curie, baina gizon birekin partekaturik) eta bakarrak, Elinor Ostromek Ekonomian, hau ere gizonezko batekin konpartiturik.

Ez omen dago emakume zientzialaririk. Are gutxiago testuliburuetan.

Medikuek egozten ziguten histerismo gaixotasuna eta horretan gure uteroak omen zeukan zerikusia gauza jakina da, baina ez gara hain urrunera zertan joan. 1992ra arte ez zen fibromialgia gaixotasuntzat aitortu, esaterako. Ordura arte, sintomak asmatuak zirela aurpegiratzen ziguten mediku gehienek euren mahaiak eta mantal zuriak ematen dien nagusitasunaz. Gaixoen %90 emakumezkoak dira. Histeriko hutsak.

Denok ondo dakigu bihotzekoak jotzen gaituenean zeintzuk diren sintoma orokorrak, naturalak, ohikoak, mundu guztiarenak: opresioa bularrean eta mina ezkerreko besoan. Horiek dira medikuntzak ezarri ditue-

nak eta mediku ia guztiek kontuan hartzen dituzten zantzuak bihotzekorik izan ote dugun aztertzeko. Baina andreok, antza, nauseak izaten ditugu eta sabeleko beheko partean mina sentitzen dugu. Honelako sintomak azaltzen dituzten emakumeei kasu gehiengehienetan ez diete egiten bihotzekorik izan duten aztertzeko frogarik.

Hiltzeko aukera gehiago izaten ditugu. Kasu honetan ere bai.

ZIENTZIA ETA FILOSOFIA

Gure behatzeak eragin zuzena dauka gure munduan. Orain arte gai filosofikoa baino ez zen honek zientzietara egin du salto.

Zientzia esperimentaletan teoriak, esperientzian oinarritzen diren heinean, esperientziaz proba daitezke, hau da, egiazkoak direla demostra daiteke. Filosofiaren teorietan, ordea, demostrazio esperimentalaren ezean, ezin dira probatu eta, hortaz, euren zuzentasuna baino ezin da frogatu. Hala ere, fisika eta mekanika kuantikoaren aroan gauden honetan, zientziak orain arte ezezaguna zitzaion eremuan mugitu beharra daukala ematen du.

Ez zitzaion erlatibitateari itxaron behar esateko esperimentatzen den mundua norberak sortzen duela edo dena dagoela erlazionaturik, bai interaktuatzen den moduarekin, bai eta behatzen den objektuarekin ere. Ezta erreala den guztia erreala dela segun eta ikusten dudan ala ez, eta ikusten dudan moduaren arabera, esateko ere.

Baina bai frogetatik probetara pasatzeko.

Mekanika kuantikoak zientziarentzat berria den perspektiba orokorra dakar: kontzientzia izan daitekeela, eta izan badela, gure izaeraren oinarria; munduaren zentzua topa dezakegula, baldin eta bakarrik errealitatea kontzientzian oinarritzen badugu. Izaki kontzienteak baino ezin dira izan behatzaileak. Hortaz, errealitatearen existentziari berari estu loturik gaude. Gu barik, hedatzen diren errealitateak bata bestearen gainean jartzea baino ez litzateke egongo, ezer definitiborik sekula gertatuko ez litzatekeelarik.

Neurketaren teoria kuantikoaren arabera, behatutakoa eta behatzailea banaezinak dira. Errealitatea gelatina moldagarria baino ez da. Dena da posibilitate eta probabilitate, edonondik ibiltzen edo isurtzen, harik eta behatzaile batek behatu arte. Orduan, gauzak izaten hasten dira. Mentsurazio arazoa da hau. Atomo bat toki zehatz batean agertzen da, baldin eta soilik bere posizioa neurtzen badugu. Atomoa leku guztietan dago, harik eta behatzaile kontziente batek behatzea erabaki arte. Beraz, neurtze edo behatze ekintzak unibertso osoa sortzen du.

Materiaren naturan nabigatzen garenean, eguneroko munduaz dakigun guztia urtzen da. Energia eta argia, fotoiak eta elektroiak ezagutzen ditugu... baina

mundua ez da orain arte zientziak uste bezain finkoa. Mundu solido tridimentsional hau irudimenezkoa ei da. Erlatibitatearen eta mekanika kuantikoaren arabera, mundu hau ez da benetan existitzen. Esan bezala, behatze ekintzak gauzak aldatzen omen ditu. Baina, areago, badirudi partikulak banan-banan zenbat eta gehiago behatu, orduan eta gehiago konturatzen garela elektroi modukorik, kasu, ez dela existitzen. Elektroi bat, edo oinarrizko beste edozein partikula, beste gauza batzuekiko erlazioan baino ez da existitzen, beste partikula batzuekiko erlazioan edo unibertsoarekiko berarekiko erlazioan. Ez da objekturik existitzen, erlazioak baino.

Materia solidotzat hartzen genuen hura ez da hain solido ikusten, gero eta gutxiago. Ezagutzen ditugun errealitate bakarrak gure burmuinak fabrikatzen dituenak dira. Jasotzen ditugun seinaleak holografmetan antolatu eta kanporantz proiektatzen ditugu. Eta horri errealitate deitzen diogu. Errealitatea deskribatzeko erabiltzen ditugun kategoria kontzeptualak, hortaz, gure buru barruko fenomenoak dira, ez daude hor kanpoan. Gehienetan hau arazo filosofikoa da, baina fisika kuantikora heltzen denean, konturatzen gara honek eragin errealak badituela. Eragin hauetako bat:

partikula subatomiko bi banandurik hartu, adibidez, elektroi bi, eta baldintza batzuen arabera estimulatzen baditugu, berdin da ze urrun dauden gero bata bestearengandik, estimuluak biei eragingo die. Honek zera esan nahi du, materia fisikoki behin batuz gero, energiak hortxe iraungo duela, elkar konektatzen, baita banatuz gero ere.

Hortaz, denboran nahiko atzera bagoaz, badakigu hedatzen ari den unibertso honetako materia guztia, partikula guztiak, batuta zeudela eta atzamar artean eutsi genezakeen partikula batean sartzen zirela. Denok izan ginen sasoi batean partikula berberaren parte, unibertsoa sortu zuen partikula, alegia. Eta partikula horiek, orain banandurik eta hedatzen badaude ere, energetikoki oraindik gaude denok loturik.

WELTSCHMERZ
edo MUNDU MINA

Badirudi alemanez askoz errazago irudikatzen dela hustasun, ezintasun, amorru, pena, sentipen hau; alegia, inguruko mundua izan beharko litzatekeena berez ez dela egiaztatzen dugunekoa. Arrotz agertzen zaigu, kalte egiteko ahalmen mugagabeaz. Mundua ez da atseden hartzeko tokia sekula izango eta, atsedenik nahi izanez gero, alde egitea baino ez digu eskaintzen. Edo akaso geu gara arrotzak eta mundu hau okupatzen dugu, bestelako mundu batekoak izan arren.

Euskarazko “min” terminoa engainagarria da. Ezin da erdarazko “pain”, “dolor”, “doleur”, “mal” edo “Schmerz” hitzekin ehuneko ehunean parekatu. Min berbak sufrikarioa, fisiko zein psikikoa, adierazten du, baina kontrakoa ere adieraz lezake: grina edota nahi bizia. Horrexegatik ditugu euskaraz hain kontrajarriak diren “minbizi” eta “bizimin” hitzak, toki aldaketa hutsa eginez.

Weltschmerz “mundu min” itzultzen badugu, euskarak esaera kontrajarriak ekarriko dizkigu: “mundumina”, “herrimin” konstrukzioaren arabera ulertzen badugu, munduagatik sentitzen dugun gogo edo grinaren aurrean geundeke. Baina ez da hau kasua. Weltschmerz, mundu mina, munduak egiten digun mina da.

Hori baino ez.

Eta hori guztia.

NOIA

Dena posible zen sasoia urrunagotzen da. Dena posible zen sasoia, biziaren sasoia agorrezina zen sasoi bera. Bizitzaren patua, antza.

Minutuak, orduak, egunak, urteak uzkurtu eta uzkurdura horretan laburtzen dira. Zenbat eta posible gutxiago, orduan eta zeregin gutxiago.

Dejà vu amaiezinean altxatu, denbora eman. Hurrengo eguna berriz errepikatuko da. Bukaezinezko gaurko eguna gautu arren.

Zerbaiten esperoan beti, katu beltzek atsoen leihoen azpian janari soberakinik jausiko ote den itxaroten duten bezala. Isilik, gora begira, geldi.

Isilik, geldi, olaturik ez dagoenean itsasoa bare dagoela uste bezala, azpiko korronteak ikusezinak, baina sentigarriak direnean bezala.

Geldi, isilik, baina sua igar daiteke. Itxaroten, zerbaiten esperoan, katu beltzak bezala. Dejà vu hori erreko duen pospoloa zein eta noiz izango ote da?

si, d'accordo ma poi...

Tutto il resto è noia,
no, non ho detto gioia,
ma noia, noia, noia
maledetta noia

Noia, uggia, stanchezza... Asperraldia
Gioia, gaudio, esultanza... Kontentamendua

Kontentamendu
kontenitua,
asperraldian
aspergura etorri da eta.

PARRESIA

Parresia: παν - dena, ρησις - hizketa.

Baina parresiak ez du “denaz hitz egitea” edo “dena kontatzea” adierazten. Parresiaren ezaugarri nagusiena *egia* da, egia kontatzea, egia esatea.

Parresia garrantzizko kontzeptua izan zen Antzinako Greziako pentsamendu etiko eta politikoan, baina ikusi besterik ez dago RAEk zelan azaltzen duen zer den gaur egun parresia: ausart eta aske hitz egiten delako itxura, itxuraz laidogarriak baina benetan onuragarriak diren gauzak esatea. Egiaren tokia itxurak hartu ei du.

Euskarazko hiztegiek islatu ere ez dute egiten.

Foucaultek luze garatu zuen kontzeptu hau. Etimologiari jarraiki, parresiaz aritzen denak, hau da, parresiasteak, buruan daukan guztia esaten du, ez dio ezer ezkutatzen hizketakideari, hizketakidea konbentzitzeko edo bere aldera erakartzeko forma erretorikoak erabili barik. Foucaulten iritziz, parresiasteak egia esaten du egia esaten duela badakielako, eta egia dela badaki benetan egia delako.

Edonork esan lezake hori ez dela froga nahikoa norbaitek esaten duena egia dela borobiltzeko. Baina parresia ez da egia esatea, besterik gabe. Eta hona dator froga: parresiasteak esaten duen egia arriskutsua da, ez da gehiengoak uste edo esaten duena, eta hizketakidearen errepresaliak eragin ditzake.

Parresiaren funtzioa beste bati egia erakustea baino, kritika egitea da: besteari kritika edo norbere buruari kritika. Parresiastea ez dago hitz egitera behartuta, baina, hala ere, hitz egiten du, betebehar morala duela uste baitu.

Parresiaz teorizatu ahal bada ere, parresia batez ere praxia da, norbanakoaren praxia norberari eta besteei begira egiten dena. Bizitza zuzentzeko modua izateaz gain, hau da, etika arloari egokitzeaz gain, komunitatean bilatzen du eragina, hau da, ekintza politikoa ere bada. Etikak eta politikak egiten dute bat parresian. Baina, areago, parresiaz aritzeko, lehenengo eta behin egiaren bilaketan egin behar da bidea, ezin baita egiarik esan, aldez aurretik egia zer den bilatu, pentsatu eta hausnartu ez badugu. Eta egiari, gainera, balioa eman behar zaio edo, hobeto esanda, egiak hoberantz alda lezakeena inportanteagotzat jo behar

dugu egia esateak gure kontra ekar lezakeen ondorioa baino.

Esan barik doa, esklaboek eta emakumezkoek parresiaz aritzea galarazota zeukatela. Egia batzuk esatea eta entzutea baino ez omen zegoen onartuta. Arriskua bai, baina puntu batera arte. Batek daki esklaboek eta andreek, egia esaten hasiz gero, ze nolako durduza eragin zezaketen ukiezinak ziren gizartearen zimenduetan. Parresia askatasun ekintza zen, baina askatasun mugatua, norberaren askatasuna aldarrikatzeko debekatua.

Gaur egun, gehienek parre-hesia erabiltzen dute. Parre faltsua hesi moduan, horren atzean ezkuta daitezkeelakoan.

AMETSA

Indarrez sakatu dut azkenik. Zakar mugitzen ari naiz albo guztietara, libratu nahian. Baina ezin dut. Heldu egin nau. Andonik aurpegia gorriz tindatu nahi dit. Aurpegi osoa odol koloreaz zikindu nahi dit. Ez da jokoa. Zerbaiten esanahia baino. Esangura ilunen batez egin nahi dit. Zerbaiten ordaina da, kontixu. Neure burua odoleztaturik ikusi ahal dut.

“*Ze dabixu?*” entzun dut. Ohean nago. Ohean gaude. Indarrez sakatu ei dut.

QUOMODO FIDES A PRINCIPIBUS SIT SERVANDA

Ognuno vede quello che tu pari, pochi sentono quello che tu se';
e quelli pochi non ardiscano opporsi alla opinione di molti
che abbino la maestà dello stato che li difenda:
e nelle azioni di tutti li uomini, e massime de' principi, dove non è iudizio da reclamare, si guarda al fine.
Facci dunque uno principe di vincere e mantenere lo stato:
e' mezzi saranno sempre iudicati onorevoli, e da ciascuno laudati;
perché el vulgo ne va preso con quello che pare e con lo evento della cosa;
e nel mondo non è se non vulgo; e li pochi ci hanno luogo
quando li assai hanno dove appoggiarsi.

NICCOLÒ DI BERNARDO DEI MACHIAVELLI

Itxurak egitea

Horixe inportanteena
Politikan aditua zen Machiavelli
    psikeak ulertzen ere bai
Horrelakoak dira gizakiak, bai, GAIZTOAK
    Horrelakoak gara izakiak, bai, AIZTOAK.

Itxurak gorde
Erreinua gorde
Faborea gorde
    nahi duten horiek
    zure partez egin al zuten gorde?

Eta orain?
Urte luzeen buruan?
Tximur eta gantz tolesturetan
baino ez dago iragargai.
Ze alferrikakoak gogor plantak
lau hormen arteko bakardadean.

Zure bihotz apurtua neuk neukala
idatzi nuen aspaldi.
Pozoia zuretzat edan
eta kontrako samatik bota dizut.
Come vedi,

tu non hai più niente
e non sei più
niente
ora

NIRE MINBIZIA

Gehien gorroto ditudanei
gorroto horren esker onez

De no ser de sí ser de no ser

De no ser, de sí ser, de no ser
Ez izan, bai izan, ez izan
De no ser de sí, ser de no ser
Baitakoa ez izan, ez izatearen izatea

Egun bat eta beste bat,
hurrengoa eta aurrekoa
izan ez naizen sasoietan pentsakor.
Izango ez naizela erabakior,
izatea liseriketa astuna bailitzan,
ez izatean pentsatzea
askoz astunago.

Iragarki gogaikarria telebistan,
zornatzen den atzoskol bat
taup taup taup atzamarraren puntan.

Bai naiz
haragiari darion zikin zuriaren minak
halaxe dio.

Bazkalosteko pilulak hartu ditut
berandu.
Goizekoak, lar goiz.
Arratsaldekoak, sasoian.
Gauekoak, lotara orduko.

Ze metafora egin liteke bost “-ina” ezberdinen artean?

Bertsolaria banintz, behintzat, errimak topa nitzake:
adina
gelatina
antzina
naftalina
Eta, jakina,
lehentxu aipatutako mina
Ta, koño, nire potxina!

Mina atera dizuet
mina=mingaina, mihia
izorra dadila mundua,

izorra zaitezten munduan zaudetenok
eta mundutik aparte dena ere
izorra dadila.
Oraindik banaiz
eta amorrua biderkaturik.
Zenbat eta zaharrago, orduan eta azeriago.

Pilulek ez didate hori apaltzen.

Izan zaitez zarena.
Hori besterik ez.
Hori baino ez.
Guztiz, zeharo eta arras.
Izan zaitez zure berezitasunik onena,
zure ezberdintasunik gorena.
Heldu egiozu zehazten zaituen horri.

Eta horretan nabil

Oraindik banaiz
institutuko pasabideetan
behearen gainean
morroi hura
odoletan

utzi zuen neskatoa.
Bai, oraindik banaiz.
Bai, oraindik badaukat
barru-barruan
sua
gorrotoa
amorrua
borroka gogoa
irakiten.

Nire minbizia izan zaretenok
bizimina eman didazue

REQUIEM

Dies irae, dies illa,
Solvet saeclum in favilla
Quantus tremor est futurus!

Eskuak garbitzen dituztenen artean
bekatuak itotzen nau ni,
ezpatarien artean ezpatapean
labanaren zorrotzean
neure burua ikusten dudan ni.
Moztutako aho biko armak
darabiltzaten itsu artean. Hor al naiz ni?
Nor izango naiz ni orroaren eguna heltzen denean?
Orroaren eguna heldu baita, nor naiz ni?

Zer izango naiz ni jainko faltsuaren oinak
justuenen odolaz garbitzen direnean?
Ni, bekatarietan eskurik garbiena.

Quid sum miser tum dicturus?
Quem patronum rogaturus,
Cum vix iustus sit securus?

Zer izango naiz ni
bekatu guztiak ezkutatu eta
lau haizeetara nire dohainak baino
ez badituzte zabaltzen?
Dohainak gomutatu gura eta
nire bekatuak oro ahaztu direnean,
non izango naiz ni?

Rex tremendae majestatis
Qui salvandos salvas gratis,
Salva me, fons pietatis

Ahoz behera itotzen den zizare mundu hau
gorantz begiratzeko beldurrez,
goizetako lanbroa kikara apurtuetan edan eta
ezpainetako odolaz basatza gorrietan
ahalegintzen dira itotzen aratz garbiak omen diren horiek.
Sua, ernegua eta madarikazioak oro, horientzat, zuontzat!
Jan zaitzala eguzki izpirik ikusteko ezintasunak.

Confutatis benedictis

Flamis acribus addictis
Voca me cum maledictis

Ez dago gorantz altxa ahal gaituen plegariarik
Requiem bat
Besterik ez

Zentzubako munduan
zentzubako nire patua bada hori,
ez naiz damu.
Damutu daitezela mundua belztu
eta euren apetarantz moldatzen ahalegintzen diren horiek.
Ez naiz damu,
ezta eragindako minaz ere.

Lacrimosa dies illa
Qua resurget et favilla
Iudicanda mulier rea.

Bai, lacrimosa, ez baitago zuretzat
buru eta oinetan arantzak besterik.

Maledita, maledita per secula seculorum! Amen!